¹ Iturria: Eustat, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Xehetasun gehiago izateko, kontsultatu OTEUSen webgunean Garraio Informazio Sistemako "1.3. Lan merkatua" taldeko adierazleak: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/r41-4833/es/>



badugu, Estatuako ehuneko lau hamarren txikiagoa da Euskadikoa baino; EB-28ko esparruan, berriz, diferentziala zortzi hamarrenekoa da. Enpleguari dagokionez, desberdintasunak txikiagoak dira, Estatuak eta EB-28ko 1 hamarreneko eta 3 hamarreneko aldea baitute, hurrenez hurren, EAERekiko.

i) *Jardueraren azpisektorearen arabera*

Salgaien errepide bidezko garraioa da pisu handieneko taldea, bai establezimenduen kopuruari (% 63,9) eta enpleguari (% 42,4) dagokionez. Garrantzi-ordenaren araberako bigarren azpisektorea pertsonen lurreko garraioak osatzen du, eta sektoreko zentroen % 23,9 eta sektoreko langileen % 23,3 biltzen ditu. Ondoren, garraioari atxikitako jarduerak daude, guztira establezimenduen % 10,9 eta sektoreko enpleguaren % 29,2 biltzen baitute.

Hiru kategoria horiek batera garraioan dabilzan euskal establezimendu guztien % 98,7 osatzen dute eta establezimenduei atxikitako guztizko enpleguaren % 94,9.


1.1. taula EAEko garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua azpisektoreka, 2017-2018 aldian

	Establezimenduak				Enplegua			
	2017		2018		2017		2018	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Bidaiarien lurreko garraioa*	2.450	23,6	2.430	23,9	8.834	23,8	8.811	23,3
Salgaien errepideko garraioa	6.702	64,5	6.492	63,9	15.914	42,8	16.058	42,4
Bidaiarien arteko hirien arteko garraioa trenez	63	0,6	63	0,6	1.140	3,1	1.170	3,1
Salgaien garraioa trenez	16	0,2	15	0,2	89	0,2	81	0,2
Hodi-sare bidezko garraioa	5	0,0	5	0,0	22	0,1	22	0,1
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	15	0,1	12	0,2	48	0,1	49	0,1
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	14	0,1	15	0,1	366	1,0	320	0,8
Bidaiarien aireko garraioa	11	0,1	10	0,1	332	0,9	298	0,8
Salgaien aireko garraioa	3	0,0	3	0,0	168	0,5	3	0,0
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	258	2,5	245	2,4	2.394	6,4	2.392	6,3
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	107	1,0	103	1,0	1.206	3,2	1.079	2,9
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	21	0,2	22	0,2	357	1,0	561	1,5
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	733	7,0	741	7,3	6.309	17,0	6.994	18,5
GUZTIRA	10.398	100,0	10.156	100,0	37.179	100,0	37.838	100,0

(*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-motak (trena, funikularrak eta abar), baldin hirikoak eta hiri ingurukoak badira.


(**) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiarietak nahiz salgaietak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

Iturria: Eusko Jaurlaritza



BEGd-aren azpisektoreen arabera banaketari dagokionez, garraioari atxikitako jardueren sektore osoaren % 36,9 biltzen dute. Atzetik daude salgaien lurreko garraioa² % 34,4 kuotarekin, bidaiariaren lurreko garraioa³ % 18,1eko kuotarekin eta tren bidezko garraioa % 6,3ko kuotarekin. Itsas eta aire garraioek dituzte parte-hartze txikiak, gainerako % 4,2 soilik biltzen baitute.

1.5. grafikoa EAEko garraio-sektorearen Balio Erantsi Gordinaren¹ banaketa azpisektoreen arabera. 2018² (%)



¹ Europako Kontu Sisteman (EKS-10) ezarritako metodologiaren arabera eskuratutako datuak: I+G alorreko eta kontsumo propioarako gastuak, besteak beste. 2010-2013 bitarteko urteetan, gastu horiek % 1,3ko urteko gehikuntza ekarri zuten garraio eta biltegiatze azpisektorean.

² 2018ari dagokion BEGd-aren datua aurrerapena izan zen.

* Lurreko bidaiariak: bidaiariaren hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta nonbait sailkatu gabeko bidaiariaren lurreko beste garraio mota bat.

** Salgaien lurreko garraioa: salgaien garraioa errepide bidez, mudantza-zerbitzuak eta hoditeria bidezko garraioa.

Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak, EJSN-2009 eta EKS -10).



² Salgaien lurreko garraioa: salgaien garraioa errepide bidez, mudantza-zerbitzuak eta hoditeria bidezko garraioa.

³ Lurreko bidaiariak: bidaiariaren hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta nonbait sailkatu gabeko bidaiariaren lurreko beste garraio mota bat.

ii) *Lurralde mailako presentzia*

1.2. taula EAEko garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua 2018an, azpisektoreen eta lurralde historikoen arabera

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Establezimenduak								
Bidaia-irien lurreko garraioa*	296	12,2	1.406	57,9	728	30,0	2.430	100,0
Salgaien errepideko garraioa	867	13,4	3.542	54,6	2.083	32,1	6.492	100,0
Bidaia-irien hirien arteko garraioa trenez	2	3,2	42	66,7	19	30,2	63	100,0
Salgaien garraioa trenez	1	6,7	11	73,3	3	20,0	15	100,0
Hodi-sare bidezko garraioa	2	40,0	2	40,0	1	20,0	5	100,0
Bidaia-irien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0,0	6	50,0	6	50,0	12	100,0
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0,0	13	86,7	2	13,3	15	100,0
Bidaia-irien aireko garraioa	3	30,0	5	50,0	2	20,0	10	100,0
Salgaien aireko garraioa	0	0,0	2	66,7	1	33,3	3	100,0
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	46	18,8	127	51,8	72	29,4	245	100,0
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0	0,0	77	74,8	26	25,2	103	100,0
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	7	31,8	9	40,9	6	27,3	22	100,0
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	100	13,5	396	53,4	245	33,1	741	100,0
GUZTIRA	1.324	13,0	5.638	55,5	3.194	31,4	10.156	100,0
Enplegua								
Bidaia-irien lurreko garraioa*	1.253	14,2	5.104	57,9	2.454	27,9	8.811	100,0
Salgaien errepideko garraioa	2.395	14,9	7.320	45,6	6.343	39,5	16.058	100,0
Bidaia-irien hirien arteko garraioa trenez	(***)	(***)	830	70,9	(***)	(***)	1.170	100,0
Salgaien garraioa trenez	(***)	(***)	48	(***)	(***)	(***)	81	100,0
Hodi-sare bidezko garraioa	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	22	100,0
Bidaia-irien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0	(***)	(***)	(***)	(***)	49	100,0
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0	(***)	(***)	(***)	(***)	320	100,0
Bidaia-irien aireko garraioa	(***)	(***)	261	87,6	(***)	(***)	298	100,0
Salgaien aireko garraioa	0	0	(***)	(***)	(***)	(***)	3	--
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	198	8,3	1.295	54,1	899	37,6	2.392	100,0
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0	0	898	83,2	181	16,8	1.079	100,0
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	270	48,1	240	42,8	51	9,1	561	100,0
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	1.422	20,3	3.809	54,5	1.763	25,2	6.994	100,0
GUZTIRA	5.538 y (***)	14,6 y (***)	19.805 y (***)	52,3 y (***)	11.691 y (***)	30,9 y (***)	37.838	100,0

(*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-motak (trena, funikularrak eta abar), baldin hirikoak eta hiri ingurukoak badira.

(**) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiariak nahiz salgaiak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(***) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuak

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraio-bide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

Datuak lurralde historikoaren arabera banakatuz gero, Bizkaia sektoreko establezimenduen eta enpleguaren erdia baino gehiago (5.638 zentro eta 19.805 langile baino gehiago) biltzen duela ikusten da. Atzetik Gipuzkoa dago, sektorearen herena biltzen baitu gutxi gorabehera (3.194 establezimendu eta 11.691 langile baino gehiago). Ondoren, Arabak establezimenduen % 13 (1.324 zentro) eta enpleguaren % 14,6 (5.538 langile) xurgatzen ditu.

Komenigarria da kontuan izatea lurraldeka bereizitako enpleguaren kopuruetan ez ditugula aintzat hartu estatistika-sekretuaren babesagatik taulan adierazi gabeko kopuruak. Edonola ere, ehuneko-pisu oso txikia zuten.

Garraioaren sektoreko ekonomia-informazioa amaitzeko, ondorioz, enpresei eta garraioaren jarduerarako baimen kopuruei buruzko alderdirik azpimarragarrienak aztertuko dira labor-labor. Hala, gutxienez hein batean, garraioaren berezko jardura egiten duten enpresen ekonomia-jardueraren egoera eta bilakaera adieraziko da, enpresa horiek garrantzitsuak baitira garraioaren sektorean. Garraio jarduerarako baimena duten erregistratutako ibilgailu kopuruarekin bat datoz baimenak, ibilgailu motaren eta baimen-txartel motaren arabera xehatuta.

1.3. taula Bidaiarien garraiorako enpresen eta baimenen banaketa Lurralde Historikoetan. EAE. 2018.

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
ID: Autobus Diskrezionala	Enpresak	27	14,8	99	54,4	56	30,8	182	100,0
	Baimenak	541	20,3	1.415	53,2	704	26,5	2.660	100,0
TI: Taxiak, A edo B motako baimenak	Enpresak	239	11,2	1.239	58,0	659	30,8	2.137	100,0
	Baimenak	240	11,2	1.239	58,0	659	30,8	2.138	100,0
OI: Anbulantzia	Enpresak	1	10,0	4	40,0	5	50,0	10	100,0
	Baimenak	4	0,9	193	43,4	248	55,7	445	100,0
GGA: Gidaririk gabeko alokairua	Enpresak	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	0	--	0	--	0	--	0	--
TIC: Taxiak, C motako baimena	Enpresak	6	20,0	15	60,0	5	20,0	26	100,0
	Baimenak	30	31,3	40	41,7	26	27,1	96	100,0
Guztira EAEn	Enpresak	272	11,6	1.357	57,6	725	30,8	2.355	100,0
	Baimenak	815	15,3	2.887	54,1	1.637	30,7	5.339	100,0

Iturria: Sustapen Ministerioa.

EAEko bidaiarien garraio-enpresen lurraldekako banaketari erreparatuz gero, ikusten da Bizkaian daudela EAEko bidaiariak garraiatzeko enpresen erdia baino gehiago (% 57,6), bertan instalatuta baitzeuden 2018an 1.357 konpainia, eta haiei atxikita daude 2.887 baimen (euskal lizentzia guztien % 54,1). Bidaiarien garraio-konpainien heren inguru Gipuzkoan daude (% 30,8); hau da, kopuru absolututan 725 enpresa eta 1.637 baimen (% 30,7). Azkenik, Arabak bidaiarien garraioan lan egiten duten konpainien % 11,6 (272 enpresa) biltzen du eta garraiorako lizentzien % 15,3 (815 baimen).



1.4. taula Salgaien garraiorako enpresen eta baimenen banaketa Lurralde Historikoetan. EAE. 2018.

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
SDA: salgai diskrezional arinak	Enpresak	325	13,7	1.351	57,1	691	29,2	2.367	100,0
	Baimenak	486	14,4	1.930	57,2	961	28,5	3.377	100,0
SDA: salgai diskrezional astunak	Enpresak	454	13,6	1.753	52,4	1.137	34,0	3.344	100,0
	Baimenak	1.626	14,9	4.748	43,4	4.562	41,7	10.936	100,0
GO: Garraio-operadorea (garraio-kudeatzaileak eta biltegizainak)	Enpresak	55	12,0	204	44,4	200	43,6	459	100,0
	Baimenak	55	12,0	204	44,4	200	43,6	459	100,0
Guztira EAEn	Enpresak	834	13,5	3.308	53,6	2.028	32,9	6.170	100,0
	Baimenak	2.167	14,7	6.882	46,6	5.723	38,7	14.772	100,0

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Salgaien garraioari dagokionez, EAeko enpresen erdia baino gehiago Bizkaian daude, 3.308 konpainia (% 53,6) baitaude emandako 6.882 baimenekin (% 46,6). Karga-garraio enpresen herena Gipuzkoan daude erregistratuta (% 32,9ko kuota, 2.028 konpainia), eta horrek berekin dakar baimenen % 38,7 izatea, hau da, 5.723 lizentzia. Araban, 834 enpresa daude; hau da, EAE osoko % 13,5ko parte-hartzea eta 2.167 lizentzia (Euskadin emandako baimenen % 14,7).

1.5. taula Bidaiarien eta salgaien garraiorako enpresen eta baimenen bilakaera EAEn. 2018.

		EAE								
		2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Δ 18/12	Δ 18/17
Bidaiarien garraioa	Enpresak	2.415	2.350	2.394	2.400	2.405	2.307	2.355	-2,5	2,0
	Baimenak	4.702	4.674	5.042	5.112	5.107	5.306	5.339	13,5	0,6
Salgaien garraioa	Enpresak	6.807	6.925	6.668	6.831	6.559	6.643	6.170	-9,4	-7,1
	Baimenak	15.049	15.425	14.372	15.201	14.782	15.492	14.772	-1,8	-4,6
Guztira EAEn	Enpresak	9.222	9.275	9.062	9.231	8.964	8.950	8.525	-7,6	-4,8
	Baimenak	19.751	20.099	19.414	20.313	19.889	20.798	20.111	1,8	-3,3

Iturria: Sustapen Ministerioa.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraibide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

Pertsonen garraioari dagokionez, urtetik urterako bilakaera positiboa da enpresa kopuruari (% +2, hau da, 48 unitate gehiago) nahiz baimenei (% +0,6) dagokionez. 33 lizentzia gehiago eman dira. Aitzitik, salgaien garraioari dagokionez, konpainien (% -7,1, hau da, 473 sozietate galdu dira) eta atxikitako lizentzien (% -4,6, hau da, 720 baimen gutxiago eman dira) bolumena txikitu egin da. 2012-2018 aldian, bidaiarien garraioan lan egiten zuten sozietateak % 2,5 murriztu ziren, eta lizentziek % 13,5 egin zuten gora. Salgaien konpainiak % 9,4 murriztu ziren, bai eta haiei emandako baimenak ere (% -1,8).

iii) Laneko kostua

Ekonomia osorako langile eta hilabete bakoitzaren guztizko lan-kostuaren (lehen sektorea albo batera utzita) eta garraio-jarduera osatzen duten azpisektoreen azterketa konparatiboa egingo dugu. Horretarako, kontuan izango ditugu jarduera horietan eta ekonomia orokorraren artean dauden aldeak laneko kostuari dagokionez.


Analisiaren oinarria EINren laneko kostuaren hiruhilekoko inkesta (LKHI) da. Urteko batez besteko datuak aurkezten ditu eurotan, estatistika-organismo horrek eskainitako hiruhilekoko informazioa oinarri hartuta. Alderaketa estatu mailan egin da, kasu horretan soilik eskura baitaiteke EJSN-09ren dibisioei buruzko informazioa. Alderdi horri esker, garraioaren azpisektoreei buruzko informazioa eskura daiteke.

2018an, langileko eta hilabeteko laneko kostua hazi egin zen garraioaren azpisektore guztietan. Esparru hauek erregistratu zuten ekonomia osoari dagokiona baino hazkunde handiagoa: itsas garraioa eta bide nabigagarrien bidezkoa (% +2,7), aireko garraioa (% +2) eta biltegitratzea eta atxikitako jarduerak (% +1,5). Lurreko garraioan eta hodi bidezkoan, igoera pixka bat txikiagoa izan zen (% +0,8) ekonomia orokorrarena (% +1,0) baino.

1.6. taula Lan-kostua langileko eta hileko. Espainiako estatu. 2017-2018

	Laneko kostu osoa		Urtetik urterako aldaketa (%)
	2017	2018	
Ekonomia guztira (lehen sektorea kenduta)	2.547	2.573	1,0
Lurreko garraioa eta hodi-sare bidezko garraioa	2.697	2.719	0,8
Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	2.921	2.999	2,7
Aireko garraioa	4.346	4.431	2,0
Biltegitratzea, eta garraioarekin uztartutako jarduerak	3.016	3.062	1,5

Iturria: Kostuaren hiruhileko inkesta (ETCL), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).



b) *Prezioen bilakaera*

Abendutik abendurako euskal kontsumoen prezioen urtetik urterako aldakuntza %1,0koa izan zen, garraioaren sektorearen KPIren % 0,1eko igoera baino handiagoa. Gainerako ondasun kategoriei dagokienez, etxebizitza (% + 2,8) eta komunikazioak (% 2,4) taldeetan hazi dira gehien prezioak. Aitzitik, aisialdiaren eta kulturaren sektorean soilik (% -0,3) uzkurto dira prezioak.

1.7. taula EAEko KPI, taldeka. 2015-2018

Abendutik abendurako aldakuntza

	2015	2016	2017	2018
Janaria eta edari ez-alkoholdunak	2,3	0,7	1,7	0,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,8	1,8	1,2
Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,9	0,3	0,9
Etxebizitza	-1,6	0,4	1,1	2,8
Etxeko tresneria	0,3	0,8	-0,7	0,5
Medikuntza	0,9	0,7	0,4	0,3
Garraioak	-2,5	4,6	2,0	0,1
Komunikazioak	0,5	3,3	0,3	2,4
Aisialdia eta kultura	0,1	0,9	-0,3	-0,3
Irakaskuntza	0,6	1,0	1,6	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,8	1,3	1,8	1,6
Beste batzuk	1,8	1,8	0,5	0,9
Orokorra	0,3	1,5	1,1	1,0

Iturria: EIN.





Bilakaera Orokorra

2. Bilakaera orokorra

2.1. Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapen orokorra

EAEko garraio-sistema osoa bide-, trenbide- eta portu-azpiegitura, aireko azpiegitura, kable-sistema eta logistika integraleko sistema sare zabal batez osatuta dago. Koadro honetan, sistema osoaren osagaiei buruzko informazioa laburbiltzen da:

2.1. taula Garraio-sistema Euskadin

Sistema	Azpiegitura	Organo titularra	Erakundea / Operadorea
Bide-sistema	Errepideen sare orokorra **	Foru-aldundiak	Garraio-zerbitzu publikoaren emakidaduna/mailegatzaila Erabiltzaile partikularra.
	Hiriko sarea	Udalak	
	Autobidea *	Estatua Foru-aldundiak	
Trenbide-sistema	Europa barneko sarea Penintsulako sarea	Estatua	Adif eta Renfe
	Sare metrikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa Estatua	ETS eta EuskoTren Adif eta Renfe Metrikoa
	Metroa/Tranbia	Euskal Autonomia Erkidegoa	ETS, Bilboko Metroa eta EuskoTren
	Zubi esekia	Bilboko Portu Agintaritza	Pribatua
Portu-sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portu-agintaritza
	Autonomia-erkidegoetako portuak	Euskal Autonomia Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Aireko sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Aena
Kable-sistema	Igogailuak eta funikularrak	Euskal Autonomia Erkidegoa Foru-aldundiak Udalak	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak / Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak


* AP-68 eta AP-1 autobideek (hegoaldeko tartea, Armiñoneraino) Estatuaren titulartasuna dute.

** Sare orokorreko errepideez gain, foru-aldundienak dira A-8 eta AP-1 autopistak, Lukotik Eibarrera, bai eta Artxandako Tunelak ere.

Iturria: Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana.

Euskadiko Garraio Sistemaren ezaugarriak koadro honetan laburbiltzen dira.





Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapena

- 2017ko ekitaldiari dagozkion argitaratutako azken datuen arabera, euskal bide-sareak 4.160 kilometro ditu, eta horietatik 623 edukiera handiko bideei dagozkie (autobideak, autobiak eta bide anitzeko errepideak); hau da, EAEko bide-eskaintza osoaren % 15.
- Lurralde bakoitzeko foru aldundiak dute, batez ere, azpiegituren titulartasuna, A-68 eta AP-1 (Armiñonera arteko hegoaldeko tartea) autobideena izan ezik, Estatuaren titulartasuna baitute, ez eta Artxandako Tunelena (Bizkaiko Foru Aldundiaren emakidadun sozietatea) ere. A-8ren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak haren ustiapenaren kudeaketa Bidegiren eta Interbiaken esku uzten dute, hurrenez hurren, Arabako Foru Aldundiak AP-1 arabar tartearen kudeaketa Arabat sozietate publikoaren esku uzten duen bezala.
- Trenbide-sistemari dagokionez, Adifek eta ETSk administratzen dituzte azpiegiturak. Bestalde, EAEn operadore hauek ematen dituzte pertsonak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzuak: Renfe eta ETSren azpiegiturei dagozkien eragile operadoreak. Renfe Adifen sare arruntaren nahiz metrikoaren operadorea da. Haren sare arrunteko eskaintzak probintzietako zenbait udalerrri euskal hiriburuekin lotzen ditu, eta era berean, Estatuako gainerako lekuekin lotzeko ere baliagarria da. Sare metrikoan, Bizkaiairen mendebaldeko udalerrriak beraien artean lotzen ditu, bai eta Kantauri itsasoko ertzean eta Gaztela eta Leongo iparraldean Estatuako udalerriekin ere. ETSren azpiegituren operadoreak, berriz, hauek dira: Euskotren, Bilboko Metroa eta Euskotrenen tranbiak. Euskotrenen hiri arteko zerbitzua Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait udalerritan barrena ibiltzen da. Bilboko Metroaren zerbitzuak Bizkaiko hiriburuaren hiriko eta metropoliko esparruan bidaiariak garraiatzea du ardatz. Euskotrenen tranbiek, berriz, Bizkaiko eta Arabako hiriburuen hiriko eremua barne hartzen dute, Bilboko Tranbiaren eta Gasteizko Tranbiaren zerbitzuen bidez.
- Bestalde, Zubi Esekiairen (Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia) jarduera Transbordador de Vizcaya S.L. sozietateak kudeatzen du.
- Azkenik, “Prestazio Handiko Euskal Trenbide Sare Berria”, Euskal Y izenez ezaguna, eraikitzeak EAEko trenbide-azpiegituren egungo sarea osatuko du laster.
- Portu-sistemari dagokionez, Bilboko Portua eta Pasaiako Portua dira merkataritza-portu nagusiak, interes orokorreko portu bakarrak bi-biak eta Estatuaren titulartasunekoak. Autonomia-erkidegoetako gainerako portuek (15 guztira) osatzen dute euskal portu-sistema. Maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez, Estatuako Administrazioak Euskal Administrazioari eskualdatu zizkionetik, egun Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.
- EAEko aireko sistema Bilboko, Donostiako eta Gasteizko aireportuetako aireko azpiegiturek osatzen dute. Denak Estatuaren titulartasunekoak dira eta Aenak kudeatzen ditu.
- Bestalde, lau funikularrek (Artxandako funikularra, Larreinetako funikularra, Igeldoko funikularra eta Mamarigako funikularra) eta bost igogailuk (Arangoiti, La Salve, Solokoetxe, Begoña eta Ereaga) osatzen dute EAEko kable-sistema. Denak Bizkaian daude, Igeldoko donostiar funikularra izan ezik.
- Azkenik, Euskadin garraio-sistemaren egitura zenbait operadore logistikoren bidez osatzen da. Operadore horien helburua da salgaien garraioan eraginkortasuna bultzatzea: Aparkabisa Bizkaian, Zaisa Gipuzkoan, eta CTVi eta Arasur Araban.

2.2. Mugikortasun orokorraren duela gutxiko bilakaera Euskadin 2018an


2.2.1. Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

a) EAE

“Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana 2016” lanaren datuen arabera, EAEko (6 urtetik gorako) biztanleriak 6.705.864 joan-etorri egin ditu eguneko. Zifra horrek adierazten duenez, batez besteko lanegun batean, biztanleko batez besteko joan-etorri kopurua 3,33koa izan da.

2.1. grafikoa Pertsonen mugikortasuna EAEn, esparruaren arabera: laburpen-mapa¹. 2016.

(joan-etorri/egun)



¹ EAEko biztanleez dihardu.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016.

EAEko biztanleen mugikortasunaren arloari sakonago erreparaturaz, 2016. urtean, eguneroko joan-etorrien % 98,8k EAE bera izan dute abiapuntu eta xedea. Hain zuzen ere, grafikoa agertzen den bezala, lurralde barnekoa da joan-etorrien % 96, lurralde artekoa da % 2,8, eta gainerako % 1,2 EAEtik kanpo hasi edo amaitzen dira.

“EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011” izeneko aurreko lanean bildutako emaitzei dagokienez, EAEko guztizko joan-etorriak % 8,1 ugartu dira (2011ko ekitaldian 6.200.572 joan-etorri egin ziren); eta horrenbestez, EAE abiapuntutzat eta xedetzat duten eguneroko joan-




etorriak % 8,8 ugaritu ziren. Zehazki, lurralde barneko mugimenduak % 9,4 ugaritu dira, eta lurraldeen artekoak, berriz, % 7,1 murriztu. Bukatzeko, EAEtik kanpo abiapuntu edo xede duten joan-etorrien kopurua % 28,1 txikitu da.

Intermodalitateari dagokionez, 2016an, EAE osoan joan-etorrien % 99,1 etapa bakarrekoak dira. Beraz, 2011rekin alderatuta, ehuneko 0,3 puntu ugaritu dira.

Bestalde, 2016ko ekitaldiko joan-etorrien arrazoiei erreparaturaz, esan behar da nahitaezko lekualdaketak direla —hots, lana edo ikasketak direla-eta egindakoak— EAEko biztanleek egiten dituzten eguneroko joan-etorri gehienak (% 43,8). 2011ko datuekin alderatuta, lanak eragindako joan-etorrien kopuruak behera egin du (2016an, % 30,3, baina 2011n % 37,3).

2.2. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2011-2016 aldian, arrazoien arabera (%)




Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016.

Oinezko joan-etorrien proportzioak lekualdaketa guztien ia erdia hartzen du. Hala, beraz, oinezko joan-etorriak dira oraindik ere lekualdatzeko modu nagusia (2016an, % 47,1; 2011n, % 44,8). Bestalde, ibilgailu pribatuaren (autoa eta motoa) erabilerak behera egiten jarraitzen du, eta pisua galtzen: % 36,4, 2016an eta % 36,7 2011n. Hala ere, autoak bigarren lekuan segitzen du lekualdaketen garrantziaren hurrenkeran, joan-etorrien % 35,2 bereganatuta. Bestalde, garraio kolektiboak (autobusa, trenbidea, hegazkina eta itsasontzia) joan-etorrien % 13,3 dira, eta 2011n, % 15,0 ziren. Esan beharra dago, baina, beherakada hori garraio kolektiboaren ehuneko pisuari dagokiola; izan ere, garraio-modu batzuetan joan-etorrien kopurua handitu egin da.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraio bide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2.3. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2011-2016 aldian, garraio-motaren arabera (%)




Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016.

2018. urteari erreparatzen badiogu, errepide eta trenbide bidezko garraio kolektibo publikoko zerbitzuen bidaiarien zirkulazioa % 2,3 hazi da 2017. urtearekin alderatuta: 263,2 milioi joan-etorri egin dira; hau da, kopuru absolututan, 5,9 milioi pertsona gehiago lekualdatu dira. Bi garraio-bideen bezero kopuruak hobera egin du hiriko esparruan nahiz hirien artekoan. Hala, hiriko garraioa autobusez % 1,4 handitu zen 2017. urtearekin alderatuta; hau da, kopuru absolututan, 70 milioi pertsona inguru garraiatu ziren. Errepide bidezko hirien arteko lekualdatzeak % 2,2 ugartu ziren; hau da, 54,5 milioi erabiltzaile izan zituzten. Hiriko eremuan, tren bidezko bidaien kopurua % 1 handitu zen, eta hala, 100,2 milioi bidaiari baino gehiago izan zituzten. Hirien arteko lekualdaketez izan zuten igoerarik handiena (% +7,7). Hala, 39,5 milioi bidaia baino gehiago egin zituzten.

Dena dela, hau azpimarratu behar da: garraio kolektiboaren bilakaera aztertzean, beharrezkoa da aztertutako eremu geografikoko eskaintzaren ikuspegi orokorra kontuan edukitzea; izan ere, azpiegitura berriak martxan jartzearen ondorioz, batetik, garraio kolektiboaren eskari berriak asetzen dira, eta bestetik, joan-etorriak garraio-bide batetik bestera aldatzen dira, garraio publikoaren eskaintza murriztu gabe.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra**
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraio-bide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2.4. grafikoa Bidaiarien bilakaera errepide-eta trenbide-garraio kolektiboen zerbitzu publikoetan. 2000-2018.



¹ "Hiriarteko AUTOBUSARI" buruzko datuek, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruzkoek, hiru aldundietako bakoitzaren emakiden autobus-mugimenduak jasotzen dituzte, lurraldearen barruan egindakoak nahiz beste bi lurraldeetako herrietara egindakoak.

¹ "Bizkaiko hiriarteko AUTOBUSAREN" datuek, 2011tik aurrerakoek, A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidaren linea aintzat hartzen dute: 2011n 1.076.097 pertsona garraiatu zituzten. Ez dugu aurreko urteetako daturik.


² Bizkaiko hiriarteko trenaren datuetan ez dira aintzat hartu La Reineta funikularreko bidaiariak.

Iturria: GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).

Azkenik, generoaren ikuspegitik, ikus daiteke garraio-moduak erabiltzean badaudela desberdintasun batzuk emakumeen eta gizonen artean. Eskuragarri ditugun azken datuen arabera ("EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016"), motorrik gabeko garraio-moduak gizonen zein emakumezkoen garraio-modu nagusi bihurtu dira (emakumezkoen % 53,4rentzat eta gizonen % 45,1entzat). Gizonen artean nagusitasun handiagoa dute automobil pribatuetako joan-etorriek, mugimendu guztien % 42,2, hain zuzen; emakumeen artean, berriz, mugimendu guztien % 28,2 dira joan-etorri horiek. 2011-2016 aldia aztertuta, ikusten da mugikortasun jasangarriago baten aldeko joera nagusitzen ari dela bai emakumezkoen artean, bai gizonen artean: oro har, motorrik gabeko joan-etorriak gora egiten ari dira.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraibide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2.5. grafikoa Joan-etorriak garraio-motaren eta sexuaren arabera. 2011-2016.



(*) Motorrak kontuan hartzen ditu


Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016.

b) *Lurraldearen arabeko banaketa*

Euskadiko biztanleriaren mugikortasunaren ezaugarriak antzekoak dira hiru lurralde historikoetan, baina badira berezitasunak, ez direlako berdinak orografia, biztanleriaren lurraldekako banaketa, mugikortasun-beharrak eta garraio kolektiboaren eskaintza. Hori dela eta, azterketa xeheago bat egin behar da.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak


2.6. grafikoa Pertsonen mugikortasuna EAEn, bizileku duten lurraldearen arabera. 2011-2016.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016. EUSTAT.

Joan-etorrien lurraldekako banaketari dagokionez, eta 2016ko datuak kontuan hartuta, ikusten da EAEko joan-etorrien ia erdia (% 49,6) Bizkaiko lurralde historikoko biztanleek egin dituztela, % 32,7 Gipuzkoakoek, eta gainerako % 17,7a, Arabakoek.

2.7. grafikoa 5 urtetik gorako biztanleen arabera lekualdatzeak¹. 2011-2016.




¹ 2016ko ekitaldiko datuak 6 urtetik gorako biztanleriarentzat dira.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016. EUSTAT.

Joan-etorriek hiru lurralde historikoetan egin dute gora 2011-2016 aldian. Dena dela, batez ere Araban bizi direnek eragin dute azken bost urtean izan den mugikortasun orokorraren hazkundera; zehazki, % 27ko hazkundera izan dute. Atzetik, gipuzkoarrak daude, % 6,4ko hazkunderarekin, eta bizkaitarrak ondoren, % 3,8ko hazkunderarekin.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2.8. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa, lurraldearen eta garraio-motaren arabera, 2011-2016 bitartean.



Grafikoa, motorra barne dago ibilgailu pribatuan.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2016.


Lurralde bakoitzaren barneko mugikortasuna aintzat hartuta aztertuz gero, oinezko joan-etorriak orain arteko proportziorik handienara iritsi direla hiru lurraldeetan (% 55,1 Araban, % 48,4 Bizkaian eta % 46,4 Gipuzkoan). Lurralde bakoitzaren ezaugarriari erreparaturuz gero, nabarmentzen da Gipuzkoan dagoela ibilgailu pribatuaren erabileraren proportziorik handiena (joan-etorri guztien % 39,2), bai eta errepideko garraio kolektiboaren proportziorik handiena ere (% 9,2). Bestalde, Bilboko Metroaren arrakasta aintzat hartuta logikoa denez, Bizkaian dago trenbide bidezko mugikortasunaren ehunekorik handiena (joan-etorri guztien % 9,6). Eta azkenik, Araban, bereziki azpimarratu behar da bizikletaren erabilera handia; zehazki, lurraldean egindako joan-etorrien % 6,8 bizikletaz egiten dute bertako biztanleek.

2011ko ekitalditik gaurdaino izandako bilakaerari dagokionez, ikusten da motorizatu gabeko garraiobideek (oinetz eta bizikleta) igoera izan dutela lurralde historiko guztietan. Hala, % 6 puntu igo da Araban, 0,7 puntu Bizkaian eta 1,3 puntu Gipuzkoan. Aitzitik, ibilgailu pribatu motorizatuen mugimenduek behera egin dute Araban (% 1,8 puntu); Gipuzkoan mantendu egin dira eta Bizkaian gora egin dute (% 1,4 puntu). Garraiobide kolektiboetan (autobusa eta trena) mugimenduek behera egin dute hiru lurraldeetan.

2011-2016 aldian, Donostia eta Gasteiz abiapuntutzat eta/edo xedetzat dituzten banakako motordun ibilgailuan egindako joan-etorrien ehunekoak behera egin du, eta Bilbon, berriz, igoera arin bat izan du. Garraio-zerbitzu kolektiboan egindako lekualdaketek ere behera egin dute aldi horretan, Bilbo eta Donostia abiapuntu edo xede duen trenbide bidezko garraio publikoak eta


errepideko autobus-zerbitzu bereziek izandako beherakadaren ondorioz, batez ere. Aitzitik, motorrik gabeko garraiobideetan (oinez zein bizikletaz) egindako joan-etorriek gora egin dute.

2.9. grafikoa Joan-etorrien bilakaera, guztira (abiapuntua eta/edo xedea hiriburuetan). 2011-2016



Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren Mugikortasun Azterketa 2011" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

2016




Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren Mugikortasun Azterketa 2016" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

¹ Etapa bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa bat baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio-motan zenbatzen zen.

Hiru hiriburuetakako bakoitzaren barneko joan-etorriei dagokienez, ikusten da oinezko joan-etorriek nabarmen egin dutela gora Bizkaiko hiriburuan (% 3,5 puntu), trenbideko garraioaren kaltean. Donostian, autoaren erabilerak gora egin du (% 5,4 puntu) eta autobusez (hiri-autobusetan zein autobus-zerbitzu berezietan) eta oinez egiten dira joan-etorriek, berriz, behera (2,5 puntu). Azkenik, Gasteizko biztanleen artean gora egin dute bai oinez egindako joan-etorriek (ehuneko 3,8 puntu), bai banakako ibilgailu motordunetan egindakoek (0,3 puntu), garraio kolektiboan egindakoen kaltean.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2.10. grafikoa Hiriburuen barneko joan-etorrien bilakaera (abiapuntua eta xedea hiriburu berean). 2011-2016



Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren Mugikortasun Azterketa 2011" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta eta "Euskal Autonomia Erkidegoaren Mugikortasun Azterketa 2016" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

¹ Etapa bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa bat baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio-motan zenbatzen zen.

2.2.2. Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

Euskadin salgaien zirkulazioak garraio-operadore bakoitzak emandako informazio biltzen du, bai eta azterketa hauen bidez jasotakoak ere: Sustapen Ministerioaren "Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta" eta "EAEko Garraio-Eskariaren Irudia 2016"⁴. Azken horren arabera, joan-etorrian dabilen errepide bidezko garraioa gurpil gainean garraiatutako karga osoaren % 15,5⁵ da, eta Sustapen Ministerioak ez du hori kontuan hartzen "Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkestan".

EAEEn, guztira 154.532,9 mila tona salgai garraiatu ziren 2018an, aurreko urterako egindako kalkularekin alderatuta, urtetik urterako % -0,3ko aldakuntzarekin.

⁴ Salgaien trafikorako eskaintako datuak 2015eko ekitaldiari dagozkio. "EAEko Garraio-Eskariaren Irudia. 2016" (<http://www.euskadi.eus/documentacion/2017/imagen-de-la-demanda-de-transportes-en-la-capv-ano-2016/web01-a2garrai/es/>)

⁵ 2015ean zirkulazioan dagoen garraioak errepidez duen trafikoaren pisua da % 15,5, "EAEko Garraio-Eskariaren Irudia. 2016" azterketaren arabera.

2.2. taula Salgaien banaketa garraio motaren arabera. 2016-2018

Zirkulazio mota	2016		2017		2018	
	Tonak milakotan	%	Tonak milakotan	%	Tonak milakotan	%
Errepidea	108.510,1	73,9	114.978,7	74,2	113.300,6	73,3
▪ Barnekoa	42.464	28,9	43.859	28,3	44.490,0	28,8
▪ Abiapuntua/Xedea	49.227	33,5	53.298	34,4	51.249,0	33,2
▪ Zirkulazioan ¹	16.819,1	11,5	17.821,7	11,5	17.561,6	11,4
Trenbidea	2.451,5	1,7	2.282,5	1,5	2.095,4	1,4
Airekoa	55,1	0,0	62,4	0,0	63,4	0,0
Itsasokoa ²	35.752,2	24,4	37.702,5	24,3	39.073,5	25,3
GUZTIRA	146.768,9	100,0	155.026,1	100,0	154.532,9	100,0


¹ "EAEko Garraio-Eskariaren Irudia 2016" azterketako datuak oinarri hartuta kalkulatu.

² Bilboko, Pasaiaiko eta Bermeoko portuetako datuak sartuta daude.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Renfe, EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritzza, Pasaiaiko Portuko Agintaritzza, Eusko Jaurlaritzza.


Salgaien banaketa modalak adierazten du aireko eta itsasoko zirkulazioak % 1,6 eta % 3,6 egin dutela gora, hurrenez hurren. Aitzitik, errepide eta trenbide bidezko garraioaren bolumenak behera egin du aurreko urtearekin alderatuta (% -1,5 eta % -8,2, hurrenez hurren).

EAEko eta EB-28ko egituren artean desberdintasun nabarmenak daude. 2016ko⁶ ekitaldiari dagozkion azken datu erabilgarriak abiapuntutzat hartuta, hauteman da errepide bidezko salgaien garraioak pisu handiagoa duela EAEn EB-28ko batezbestekoan baino (guztizkoaren % 73,9 EAEn, eta % 50,9 EB-28n). Bestalde, garraibide jasangarriagoen parte-hartzeari dagokionez, hau da, tren eta itsaso bidezko garraioei dagokienez, EAEn txikiagoa da (% 1,7 eta % 24,4, hurrenez hurren) EB-28 osoan baino (% 11,6 eta % 37,4, hurrenez hurren).



⁶ Eskuragarri dagoen azken datua 2016koa da, *Statistical Pocketbook 2018n* argitaratuta.

2.11. grafikoa Salgaiak garraiatzeko moduen banaketa. 2016 (%).



¹ Errepide bidez bidean dagoen garraioa, "EAEko Garraio-Eskariaren Irudia 2016" azterketako datuak oinarri hartuta kalkulatu.

² 2016ko azken datu erabilgarria. Itsas garraioan kontuan hartzen dira barruko bide nabigarriak.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Renfe, Feve (2013tik aurrera Renfek zabalera metrikoko sarean jarduten du), EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritzza, Pasaiako Portuko Agintaritzza, Eusko Jaurlaritzza eta EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2018.

Puntu honetan, azpimarratu behar da Euskadiko administrazio publikoak ahalegin handiak egiten ari direla salgaiak errepidez garraiatu beharrean garraiobide jasangarriagoak erabil daitezkeen (itsasoko eta trenbidezko garraioa). Ahalegin horiek, eta beste batzuk, erakusten ari dira, bai aurrerapen zantzuak. Esate baterako, errepideko garraioak garraiatutako salgai guztiekiko duen pisua % 10,8 puntu jaitsi da 2002⁷ urteaz geroztik eta itsasoko garraioaren pisuak, berriz, % 10 puntu egin du gora urte hartatik bertatik hona.

⁷ Ikusi Euskal Autonomia Erkidegoan garraio-eskariaren azken Irudia. 2003ko eguneratzea:

[http://www.euskadi.eus/web01-](http://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/es/contenidos/documentacion/demanda_de_transporte/es_11014/informe_demanda_transporte.html)

[a2oteus/es/contenidos/documentacion/demanda_de_transporte/es_11014/informe_demanda_transporte.html](http://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/es/contenidos/documentacion/demanda_de_transporte/es_11014/informe_demanda_transporte.html)



Errepide Bidezko Garraioa

3. Errepide bidezko garraioa

3.1. Errepide bidezko garraioaren eskaintza

Sustapen Ministerioaren Estatistika Urtekarietan 2017rako argitaratutako datuek erakusten duten bezala, euskal errepide-sareak 4.160 kilometro zituen. Edukiera handiko bideek (autobide, autobia eta bide anitzeko errepide guztiak aintzat hartuta) euskal errepideen % 15 biltzen dute.

Edukiera handiko bideen parte-hartzea askoz ere handiagoa da Estatu bide-sistema osoan erregistratzen dena baino. Izan ere, Estatuan autobide, autobia eta bide anitzeko errepide multzoa bide-sistema osoaren % 10 inguru da. Europan, bide mota horien proportzioa handiagoa da. Zehazki, EB-28ko⁸ herrialdeak kontuan hartuz gero, edukiera handiko bideak errepide-sare osoaren % 20 dira.

Bide-sistemaren dentsitateari erreparaturik, euskal errepide-sareak 2017an 575 m/km² hartzen zituen, Estatu osoko sarea alde handiaz gainditzen du (327,5 m/km² 2017. urtean) eta EB-28koa (429,2 m/km² 2016an, eskura dagoen azken datua) ere bai.

3.1. taula Errepide sarearen luzera eta dentsitatea. EAE, Estatu eta EB-28. 2015-2017

Errepide mota	2015		2016		2017	
	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹
EAE						
Ordainpeko autobideak	254	35,1	254	35,1	254	35,1
Doako autobideak, autobiak eta bi galtzadako errepideak	363	50,2	369	51,0	369	51,0
Galtzada bakarreko errepideak	3.561	492,2	3.556	491,5	3.556	488,9
Guztira	4.178	577,5	4.179	577,6	4.160	575,0
ESTATUA						
Ordainpeko autobideak	3.040	6,0	3.039	6,0	3.039	6,0
Doako autobideak, autobiak eta bi galtzadako errepideak	13.982	27,6	14.070	27,8	14.124	27,9
Galtzada bakarreko errepideak	148.981	294,4	148.374	293,3	148.522	293,6
Guztira	166.003	328,1	165.483	327,1	165.685	327,5
EB-28						
Ordainpeko autobideak	75.820	17,0	76.823	17,2	--	--
Doako autobideak, autobiak eta bi galtzadako errepideak	316.511	70,8	316.615	70,8	--	--
Galtzada bakarreko errepideak	1.511.667	338,1	1.525.356	341,2	--	--
Guztira	1.903.998	425,9	1.918.794	429,2	--	--

¹ Errepide-sarearen luzeran (m) eta EAEn, Espainiako estatuaren edo EB-28ren azaleran (km²) oinarrituz kalkulatu da.

Iturria: Sustapen Ministerioa, Estatistikako Institutu Nazionala, EU Energy and Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2018, International Road Federation.

Hiru euskal hiriburu-tako hiri-esparruko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publikoko zerbitzu erregularren eskaintzari buruzko datuei erreparaturik, azpimarragarria da 2018an Bilbo zela oraindik autobus kopuru handiena zuen hiriburua, Bilbobusek 148 autobus baitzuten martxan 632,9 km-ko luzerako 43 lineatan (2017. urtearekin alderatuta, % +0,2). Bigarren dago Donostia. DBusek 132 ibilgailu zituen lanean 41 linearen bidez eta 273 km-ko ibilbidea zuen,

⁸ EB-28, 2016. urteari buruzko datua, Statistical Pocketbook 2018 eskura zegoen azken urtea.

2017. urtearekin alderatuta, % +2,2. Arabako hiriburuan, Tuvisak (Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.) 86 autobus zituen lanean 18 lineatan (aurreko urtearekin alderatuta, % 20 hazi zen), eta 203,5 km-ko ibilbidea zuen.

3.2. taula Hiriko garraio-eskaintza publikoaren ezaugarriak, EAEko hiriburuetan. 2016-2018


Errepideen modalitatea	2016	2017	2018	Δ % 17/18
BILBO				
Sareko lineak ¹	43	43	43	0,0
Luzera (km) ¹	596,3	631,5	632,9	0,2
Autobus-kopurua	149	148	148	0,0
DONOSTIA				
Sareko lineak ¹	39	41	41	0,0
Luzera (km) ¹	269	267	273	2,2
Autobus-kopurua	130	132	132	0,0
GASTEIZ				
Sareko lineak ¹	15	15	18	20,0
Luzera (km) ¹	203,5	203,5	203,5	0,0
Autobus-kopurua	81	87	86	-1,1
GUZTIRA				
Sareko lineak ¹	97	99	103	4,0
Luzera (km) ¹	1.069,6	1.102,2	1.109,2	0,6
Autobus-kopurua	360	367	366	-0,3

¹ Sartuta daude eguneko eta gaueko zerbitzu erregularrak.

Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta Dbus.

Garraio pribatua ardaztat hartzen badugu, Trafikoko Zuzendaritza Nagusitik datuen erregistroak kontuan hartuta, 2018an Euskadin ibilgailuen kopuruak goranzko joera arinari eutsi dio eta %1,5eko hazkundera izan du 2017arekin alderatuta. Beraz, 2018aren amaieran, 1.368.626 ibilgailu zeuden.

3.1. grafikoa EAEko ibilgailuen kopurua. 2018




Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Ibilgailuen sailkapenari erreparatzen badiogu, azpimarragarria da ibilgailuen % 86,2 turismoak eta kamioiak/furgonetak direla (% 73,3 eta % 12,9, hurrenez hurren). Urtetik urterako bilakaerari



dagokionez, kategoria guztiek bilakaera positiboa izan dute, eta bilakaerarik handiena motozikletek (% +3,4), beste ibilgailu batzuek (% +3,2) eta autobusek (% +3,1) izan dute.

3.2. grafikoa EAEko ibilgailuen banaketa. 2018




Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Analisia Europara zabaltzen badugu, grafiko honetan herrialde bakoitzeko motorizazio-indizearen sailkapena ageri da, EB-28ren, Europako Merkataritza Libreko Erkidegoaren eta EBko kide izateko herrialde hautagaien esparruan mila biztanleko turismoen erratio gisa neurtuta. Eurostateko eskura ditugun azken datuak (2016. urteari buruzkoak) aintzat hartuta, Islandiak aurrera egiten du rankingeko lehen postuan jartzeraino, mila biztanleko 771 turismorekin. Azken postuan, berriz, Turkia dago, 142 autoko indizearekin. Urtetik urterako aldakuntzari dagokionez, datuen arabera, erratioan igoera handiagoak erregistratu dituzten herrialdeak EBko kide izateko bi herrialde hautagai dira: Montenegro (% 9,5) eta Albania (% 8,6), eta haien atzetik Errumania (% 6,9), eta EBko kide izateko beste herrialde bat, Turkia (% 6). Aitzitik, biztanleko ibilgailu kopuruak behera egin du Malta (% 7,0), Letonian (% 1,2) eta Frantzia (% 1,0).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

3.3. grafikoa Motorizazio-indizea European 2015-2016¹



¹ Statistical Pocketbook 2018tik hartutako Europako herrialdeei buruzko azken datuak 2016koak dira.

² Europako Merkataritza Libreko Erkidegoko herrialdeak (EFTA - European Free Trade Association).

³ EBko kide izateko herrialde hautagaiak.

Iturria: EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2018, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN.



EAEri dagokionez, 2016an, indizea mila biztanleko 449 turismokoa zen, eta rankingaren 23. postuan zegoen (EB-28ren 20. postuan). Lurralde historiko bakoitzari erreparatu gero, ikusten da Arabak duela biztanleko ibilgailuen indizerik handiena, 475, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako motorizazio-maila, berriz, ia berdin-berdina dela, 445 eta 444, hurrenez hurren. Bestalde, Estatuko batez bestekoa (492) hiru euskal lurraldeen indizearen gainetik dago.

EAEko motorizazio-indizeak % 1,2 egin zuen gora 2018an, aurreko urtearekin alderatuta, eta mila biztanleko 461,9 turismokoa zen. Urtetik urterako bilakaera positiboa izan zen hiru lurralde historikoetan. Hala, Gipuzkoa mila biztanleko 452,8 turismo izatetik 458,4 turismo izatera (% +1,2) igaro zen; Araba, 479,7 izatetik 485,1 izatera (% +1,1); eta Bizkaia, 452,35 ibilgailu izatetik 457,4 izatera (% +1,1).


3.2. Pertsonen errepide bidezko mugikortasuna Euskadin

a) Mugikortasuna ibilgailu pribatuan

Lehenik eta behin, azpimarragarria da autoaren erabilerearen aurrerakada. Izan ere, motorizazio-indizea handitu egin da, 2000. urtean mila biztanleko 391 turismokoa baitzen, eta 2018an, 461,9koa.

2007-2016 aldian, autoaren erabilera-maila % 3,3 puntu gutxitu da. Lurralde bakoitza zehazki aztertuz gero, 2011-2016 aldian hauteman da Araban eta Gipuzkoan autoaren erabilera murriztu egin dela (ehuneko -1,6 eta -0,5 puntu, hurrenez hurren). Hala ere, Gipuzkoak du oraindik autoaren erabilera-tasarik handiena (% 36,7). Bestalde, Bizkaian autoan egindako joan etorrien pisuak ehuneko 1,1 puntuko igoera arina izan du, 2011. urtearekin alderatuta.

3.4. grafikoa Pertsonen auto bidezko mugikortasuna. Autoaren erabilera. 2007-2016¹




¹ Guztirakoa probintzia barneko lekualdatzeen batukaria da.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016



Lurralde baten barnean autoan⁹ egiten diren lekualdaketen banaketari dagokionez, EAEn egindako joan-etorrien % 39,6 hiri barneko joan-etorriak dira eta % 34,6 eskualde artekoak. Bestalde, lurralde barneko joan-etorriek % 16,9 biltzen dute; lurraldeen artekoak % 6,0 eta lurraldetik kanpokoen % 3,0. *EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011* azterketaren emaitzekin alderaketa eginda, hiri barneko joan-etorrien partaidetza-tasak % 4,4 puntutan gora egin duela ikusten da, eta eskualde artekoak, berriz, bere horretan geratu direla. Auto bidezko lurralde barneko, lurraldeen arteko eta lurraldetik kanpoko joan-etorrien ehunekoa murriztu egin da.

3.5. grafikoa Autoan egindako lekualdaketen banaketa lurralde-esparruaren arabera. 2011-2016.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

Euskal Autonomia Erkidegoaren mugikortasun azterketa 2016 azterketaren arabera, hiri-esparruan ibilgailu pribatuaren bidezko mugikortasunari dagokionez, azpimarratu behar da Donostian barneko guztizko joan-etorrien % 31,4 autoz¹⁰, egiten direla. Gasteizen, banakako modu motorizatuak guztizko joan-etorrien % 25,7 dira, eta Bilbon, aldiz, automobil bidezko mugikortasuna % 12koa baino ez da.

Era berean, azpimarragarriak dira euskal hiriburueta motordun ibilgailuen bidez sartzeari buruzko datuak, EAEko hiriburueta egiten diren joan-etorri guztiak, barnekoak ere bai, EAEko biztanleek guztira egiten dituzten joan-etorrien % 46,7 baitira, hain zuzen. Hala, hiriburueta egindako joan-etorrietan edo hiri barruan egindakoetan, automobiler¹¹ egindakoak guztizkoaren % 33,2 dira. Hiru hiriburueta erregistratutako barneko joan-etorriei soilik erreparatzen badiegu, automobila joan-etorrien % 20,1ean erabiltzen da, eta hiriburueta erakarrirako joan-etorrietan, berriz, autoaren erabilera % 62,0ra igotzen da.

Kanpotik Euskadiko hiriburueta autoz egindako sarrerei dagokienez, eta mugikortasunari buruzko azken lanetan argitaratutako datuak oinarri hartuta, Bilbo da oraindik kanpotik auto gehien sartzten den hiriburu (147.362 joan-etorri egunean); ondoren Donostia dago (69.615 joan-etorri egunean), eta, azkenik, Gasteiz (52.222 joan-etorri egunean).


⁹ Auto gidaria, auto bidaiaria eta taxia barne hartuta.

¹⁰ Auto gidaria, auto bidaiaria, motoa eta taxia barne hartuta.

¹¹ Auto gidaria, auto bidaiaria eta taxia barne hartuta.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

3.6. grafikoa Kanpotik hiriburuetara autoz egindako sarrerak. 2007-2016.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

b) Garraio kolektibo bidezko mugikortasuna

Autobus publikoen erabiltzaileen kopuruaren bilakaerari buruzko ondorioak atera baino lehen, azterketa bat egin behar da aztertutako eremu geografiko bakoitzean zerbitzua ematen duten garraio publiko kolektiboaren operadore guztiak aintzat hartuta.


Hiru euskal hiriburuak aintzat hartuta, zerbitzuak ematen dituzten hiru autobus-konpainiek, hau da Transportes Urbanos de Vitoria-Tuvisak (Gasteiz), DBusek (Donostia) eta Bilbobusek (Bilbo), guztira 69.983 mila pertsona garraiatu zituzten 2018an; hau da, aurreko ekitaldiarekiko % 1,4 hazi zen.

Zehazki, Tuvisak 15.759 mila joan-etorri erregistratu zituen, % 3,9ko hazkuntza 2017. urtearekin alderatuta. Arabako operadoreak hiru hiriburuetan hiriko autobusek egindako bidaiari guztien % 22,5 biltzen ditu. Donostiako konpainiak, DBusek, % 2,7 handitu zuen bidaiari-kopurua aurreko urtearekin alderatuta; hau da, 29.169 mila bidaiari izan zituen. DBusek Euskadiko hiru hiriburuen hiriko autobusen joan-etorri guztien % 41,7 egiten ditu.

Azkenik, Bilbobusen joan-etorriek % 1,6ko beherakada izan zuten 2017. urtearekin alderatuta (-403 mila joan-etorri). Guztira, 25.055 mila erabiltzaile izan zituen. EAEn egindako hiriko autobusen bidaien guztizkoaren % 35,8 biltzen du operadoreen bizkaitarrak.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

3.7. grafikoa Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera¹². 1990-2018



Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Errepide bidezko hiriarteko joan-etorriak aztertzen baditugu, zerbitzu hori ematen duten operadoreek, hau da, Bizkaibusek Bizkaiko Lurralde Historikoan, Autobuses Interurbanos de Álava-AIAk Araban eta Lurraldebusen txertatutako agenteek Gipuzkoan, 53.451 bidaiari lekualdatu zituzten 2018an; hau da 2017an baino % 2,2 gehiago.

Gipuzkoan, 24,8 milioi lekualdatze egin ziren hiriarteko autobusetan. Bidaiarien kopuruak urtetik urterako % 1,7ko igoera izan zuela esan nahi du horrek, eta 2006an abiatutako goranzko joerari eutsi zaiola.

Bizkaian, Bizkaibusek A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidarekin batera emandako zerbitzuak guztira 28,0 milioi erabiltzaile garraiatu zituen. Hala, % 2,5eko hobekuntza erregistratu zuen 2017. urtearekin alderatuta. Zifra horien ildotik, gogora ekarri behar da beharrezkoa dela datu horiek Bilbo Handiaren metropoli-eremuan garraio publikoko zerbitzuen eskaintza osoaren testuinguruan aztertzea. Izan ere, azken urteetan garraio kolektiboaren eskaria, oro har, izugarri hedatu da. Araban, Autobuses Interurbanos de Álava – AIAk 563,4 mila joan-etorri egin zituen; beraz, aurreko urtearekin alderatuta, bidaiarien kopurua % 6,6 handitu zen. Puntu horretan, zehaztu behar da Araban hiriarteko autobusa pertsona gutxi erabiltzen dutela, beste bi lurraldeekin alderatuta are gutxiagok, lurraldearen okupazio-eredua oso bestelakoa delako. Biztanleria nabarmen pilatzen da hiriburuan, eta horren ondorioz, udalerrien arteko lekualdatzeen eskaria txikiagoa da.

¹² Datuak eranskineko taulan kontsulta daitezke: Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 1990-2018.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa**
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

3.3. taula Hiriarteko garraio publikoa: hiriarteko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 2000-2018¹.

Urteak	Gipuzkoa, Donostia izan ezik		Bizkaia, Bilbo izan ezik ²		Araba, Gasteiz izan ezik ³	
	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)
2000	18.461,2	--	36.062,0	--	n.d.	--
2001	17.748,7	-3,9	38.535,9	6,9	145,5	--
2002	17.022,3	-4,1	35.115,4	-8,9	267,0	83,5
2003	16.712,0	-1,8	37.030,6	5,5	315,3	18,1
2004	16.626,6	-0,5	36.875,8	-0,4	439,2	39,3
2005	15.382,3	-7,5	34.134,2	-7,4	324,3	-26,2
2006	16.109,1	4,7	32.810,0	-3,9	374,0	15,3
2007	16.120,2	0,1	30.875,7	-5,9	349,3	-6,6
2008	17.199,1	6,7	30.195,5	-2,2	348,2	-0,3
2009	18.140,6	5,5	28.807,8	-4,6	421,0	20,9
2010	18.907,5	4,2	27.716,3	-3,8	516,4	22,7
2011	19.772,4	4,6	29.473,7	-- ⁽²⁾	500,1	-3,1
2012	20.517,0	3,8	29.414,2	-0,2	495,0	-1,0
2013	21.121,0	2,9	29.252,7	-0,5	490,0	-1,0
2014	22.159,5	4,9	28.479,0	-2,6	446,7	-8,8
2015	22.920,6	3,4	27.288,7	-4,2	392,2	-12,3
2016	23.962,7	4,5	27.748,8	1,7	467,5	19,2
2017	24.436,0	2,0	27.347,0	-1,4	528,6	13,1
2018	24.845,1	1,7	28.042,5	2,5	563,4	6,6

¹ "Hiriarteko AUTOBUSARI" buruzko datuek, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruzkoek, hiru aldundietako bakoitzaren emakiden autobus-mugimenduak jasotzen dituzte, lurraldearen barruan egindakoak nahiz beste bi lurraldeetako herrietara egindakoak.

² "Bizkaiko hiriarteko AUTOBUSAREN" datuek", 2011tik aurrerakoek, A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidaren linea aintzat hartzen dute: 2011n 1.076.097 pertsona garraiatu zituzten. Ez dugu aurreko urteetako daturik.

BizkaiBus (TCSA, Enkartaciones, EAE, Pesa, EuskoTren, ADNOR eta Autobuses de Lujua) lineetan garraiatutako bidaiariak sartzen dira. Euskotren Bizkaibus sarean sartu zen 2002/12/1ean, ADNOR 2005/12/1ean eta Lujua 2006/11/1ean.

³ 2003tik 2006ra bitartean erabiltzaile kopuruan egondako gorabeherak linea batean izandako aldaketen ondorio dira nagusiki; Gasteiz eta Gorbeia merkataritza-gunea lotzen zituen linea horrek.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia.

3.3. Salgaien errepide bidezko mugikortasuna Euskadin

Sustapen Ministerioaren Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkestatik ateratako informazioa kontuan izanda, 95,7 milioi tona lekualdatu ziren EAEko errepideetatik. Beraz, salgaien zirkulazioak % 1,5 egin zuen behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Eskualde barnean, garraiatutako bolumena % 1,4 handitu zen, eta horrenbestez, udalerrri barnean (% +1,6) nahiz udalerrri artean (% +1,4) hazi zen. Eskualde arteko zirkulazioa (EAE abiapuntu eta xede) % 3,7 uzkurto zen: bidalitako salgaien fluxua % 5,9 jaitsi zen, eta beste erkidegoetatik jasotako salgaiek % 1,7 egin zuten behera 2017. urtearekin alderatuta. Bestalde, nazioarteko zirkulazioak % 4,7 egin zuen behera, esportazioen (% -6,5) eta inportazioen (% -2,8) gainbehera zela eta.



3.4. taula EAEko salgaien errepide-garraioak izandako bilakaera. 2014-2018.

Joan-etorri mota	2014		2015		2016		2017		2018	
	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %
Eskualde barneko garraioa¹	50.203	22,7	41.108	-18,1	42.464	3,3	43.859	3,3	44.490	1,4
Udalerrri barnekoa	9.033	7,6	8.528	-5,6	7.229	-15,2	7.830	8,3	7.953	1,6
Udalerrri artekoa	41.170	26,6	32.580	-20,9	35.235	8,1	36.029	2,3	36.537	1,4
Eskualde arteko garraioa²	39.321	1,3	44.396	12,9	42.751	-3,7	46.908	9,7	45.157	-3,7
Beste autonomia-erkidego batzuetatik jasotakoa	20.204	1,9	23.674	7,2	22.219	-6,1	24.119	8,6	23.717	-1,7
Beste autonomia-erkidego batzuetara bidalitakoa	19.117	0,7	20.722	8,4	20.532	-0,9	22.789	11,0	21.440	-5,9
Nazioarteko garraioa	5.352	15,0	5.519	3,1	6.477	17,4	6.390	-1,3	6.092	-4,7
Jasotakoa	2.729	30,4	2.755	0,9	3.405	23,6	3.157	-7,3	3.070	-2,8
Bidalitakoa	2.622	2,3	2.764	5,4	3.071	11,1	3.233	5,3	3.022	-6,5
EAE, guztira	94.875	12,4	91.023	-4,1	91.691	0,7	97.157	6,0	95.739	-1,5


¹ EAE abiapuntu eta helmuga duena (udalerrri arteko garraioa eta udalerrri barneko garraioa sartzen dira).

² EAEren eta beste autonomia-erkidego batzuen artekoa.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Azken urtean garraiatutako salgaien bolumenak izandako bilakaera dela eta, eskualde arteko garraioak du parte-hartze handiena EAEko errepide bidezko zirkulazioan, zirkulazio osoaren % 47,2 biltzen baitu. Atzetik daude udalerrri barneko zirkulazioa (% 46,5) eta nazioarteko joan-etorriak, gainerako % 6,3 biltzen baitute.

3.8. grafikoa Eskualde arteko salgaien garraioa EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean. 2018.



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.


EAEren eta beste eskualdeen arteko salgai-fluxuak aztertuz, hau hauteman da: Gaztela eta Leon finkatu da EAEren bazkide nagusi gisa, 8,7 milioi tona trukatu baitzituzten; hau da, eskualde arteko zirkulazio osoaren % 19,2. Atzetik daude Nafarroa, 8,2 milioi tonarekin (eskualde arteko joan-etorrien % 18,2); eta hirugarren, Kantabria, 5,7 milioi tonarekin (% 12,6ko parte-hartzea).



Balio absolutuetan, Kantabriak eta Errioxak urteik urtera aldakuntza positiboa izan dute salgaien zirkulazioan: Kantabriak 1,1 milioi tonako igoera izan du (% +23,0), eta Errioxak, 499 mila tonakoa (% +25,5).

Aitzitik, Gaztela eta Leonen eta Galizian salgai-trukeek behera egin dute: Gaztela eta Leonen 1,7 milioi tona gutxiago (% -16,3) trukatu dira; eta Galizian, salgaien joan-etorriak 724 milioi egin du behera (% -24,4).

3.9. grafikoa Eskualde barneko eta eskualde arteko salgaien errepide-garraioaren tipologia. 2018 (%).



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

EAEen eskualde artean eta eskualde barruan trukaturako produktuen kategoriak aztertu dira, eta hauteman da parte-hartze handieneko kategoriek eutsi egin diotela aurreko urteko bolumenari. Hala, makinak, ibilgailuak eta objektu manufakturatua % 26,1 dira; mineralak eta eraikuntzarako materialak, % 22,9; eta produktu metalurgikoak, trukaturako salgaien % 13,0. Kopuru absolutuetan, produktu kimikoen (+310 mila tona) eta nekazaritza-produktuen eta animalien (+65 mila tona) taldeen trukaturako bolumenek gora egin dute. Aitzitik, makinak, ibilgailuen eta objektu manufakturatuen (-766 mila tona) eta elikagaiak eta bazken (-353 mila tona) zirkulazioa murriztu egin da.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



4

Tren Bidezko Garraioa

4. Tren bidezko garraioa

4.1. Tren bidezko garraioaren eskaintza Euskadin

2013ko urtarrilaren 1etik, agente hauek administratutako azpiegitura multzoak osatzen du Euskadiko trenbide-egitura:

- ▶ Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa: trenbide horietatik, Renfe operadore nagusiak Estatuko hiriburu nagusiekin lotzen du EAE. 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, Ferrocarriles de Vía Estrecha (FEVE, Bide Estuko Trenbideak) enpresa-erakunde publikoa Adifen integratuta dago, trenbide-azpiegiturak egiteko eta mantentzeko lanei dagokienez, uztailaren 20ko Legegintzako 2012/22 Errege Dekretuak xedatutakoa betez. Egun horretatik aurrera, Renfe Operadorak eskaintzen ditu Kantauriko itsasertzeko trenbide-zerbitzuak.
- ▶ ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea): Euskotren operadoreak ematen ditu hiriarteko zerbitzuak, Bilboko Metroak metropoli horretan jarduten du, eta EuskoTrenen tranbiak Bizkaiko eta Arabako hiriburu-tako hiri-eremuetan ematen ditu zerbitzuak.

2016ko ekitaldiari buruz eskuragarri dauden azken datuei erreparatuz, EAEko trenbide-azpiegituren dentsitatea Estatukoarekin eta EB-28koarekin alderatzen bada, agerian desberdintasun nabarmenak daude. Hala, EAEn 560 kilometro burdinbide daude; hau da, 77,4 m/km²-ko trenbide-azpiegitura dago, eta balio hori Estatu osoko dentsitatea (31,5 m/km²) eta EB-28 osokoa (48,6 m/km²) baino nabarmen handiagoa da. Era berean, azpimarragarria da errail elektrifikatuek pisu handia dutela euskal trenbide-sare osoan, sare osoaren % 96,25 baitira. Estatuko gainerako lurraldeetan eta EB-28n, berriz, trenbide-sarearen elektrifikazio-maila nabarmen txikiagoa da, zehazki, % 63,7koa eta % 53,7koa, hurrenez hurren.

4.1. taula Trenbideen dentsitatea EAEn, Estatuan eta EB-28n. 2016

	Guztira	Elektrifikatu gabek			Elektrifikatuak		
		Guztira	Guztizkoaren %	Bide bakarra	Guztira	Guztizkoaren %	Bide bakarra
Luzera (Km)							
EAE	560	21	3,75	21	539	96,25	251
Estatua	15.922	5.784	36,3	5.764	10.138	63,7	4.231
EB-28 ¹	217.081	100.488	46,3	--	116.593	53,7	--
Dentsitatea (m/km²)							
EAE	77,4	2,9	--	2,9	74,5	--	34,7
Estatua	31,5	11,4	--	11,4	20,0	--	8,4
EB-28 ¹	48,6	22,5	--	--	26,1	--	--

¹ EB-28ri buruz eskuragarri dauden azken datuak 2016koak dira.

Iturria: Adif, autonomia-erkidegoetako konpainiak eta partikularrak, Euskal Trenbide Sarea, Sustapen Ministerioa, EU Transport in Figures-Statistical Pocketbook 2018, Eurostat.

Hurrengo ataletan, EAEko trenbide-azpiegiturak erabiltzen dituzten operadoreen (hots, Adif, non trenbide-sare konbentzionala eta zabalera metrikoko sare bereizten baitira, eta ETS-RFV) xehetasunak azaldu dira, bai eta trenbide horietan esku hartzen duten eragileen zerbitzuen eskaintza ere.



4.1.1. Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa

2017ko ekitaldiari dagozkion azken datu erabilgarriak abiapuntutzat hartuta, burdinbide arruntek 376,1 km zituzten, eta horien % 61,4 errail bikoitzekoa zen. Renfe da azpiegitura horien ustiatzaile nagusia. Linea-zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- ▶ Bilboko aldiriak (C-1 linea, Bilbo Abando-Santurtzi; C-2 linea, Bilbo Abando-Muskiz; eta C3 linea, Bilbo Abando-Urduña).
- ▶ Donostiako aldiriak (Irun-Brinkola linea).
- ▶ Distantzia luzeko zerbitzua: Irun-Donostia-Madril ibilbidea, Gasteiz-Madril ibilbidea eta Bilbo-Madril ibilbidea egiten ditu, eta Bilbo-Bartzelona eta Irun-Donostia-Bartzelona ere bai.

4.2. taula Adif eskaintzaren oinarriko datuak, Trenbide Sare Konbentzionala. 2016-2017

Lineen luzera km-tan	2016	2017
Bi bide elektrifikatu		
Irun-Donostia-Gasteiz-Miranda Ebro	181,5	--
Bilbo-Urduña	40,3	--
Bilbo-Barakaldo-Santurtzi	13,6	--
Bi bide elektrifikatu, guztira	235,4	231,1
Bide elektrifikatu bakarra		
Urduña-Miranda	62,9	--
Barakaldo-Muskiz	13,1	--
Bide elektrifikatu bakarra, guztira	76,0	145,0

Iturria: Adif.

Renfek operatutako trenbide-sare arrunta pixka bat uzkurto zen 2017. urtearekiko. Izan ere, eskualdeko hiru lineetan ibiltzen diren trenen kopuruak % 0,8 egin zuen behera (7.150 tren), kilometroko trenen kopurua % 0,6 jaitsi zen (2,1 milioi inguru) eta kilometroko plazen kopurua % 0,5 txikitu zen (kilometroko 538,5 milioi plaza).

Renfek eskaintako aldirien zerbitzua pixka bat uzkurto zen 2018an eskaintako trenen kopuruari (% 0,6ko jaitsiera, 127.830 tren daude), egindako kilometroko tren kopuruari (% 1,8 murriztu ziren, kilometroko 4.174.474 tren daude), eta kilometroko plaza kopuruari (% 1,7 gutxitu ziren, 892,6 milioi izateraino) dagokienez.

Donostiako linean, eskaintako zerbitzuek behera egin zuten 2018an. Trenen eskaintza % 1,9 jaitsi da, 24.287 tren ari dira lanean (2017an baino 481 unitate gutxiago); kilometroko trenen kopurua % 4 txikitu da eta kilometroko plaza kopurua % 3,4 txikitu da; horrek kopuru absolutuetan kilometroko 1,7 milioi tren eta kilometroko 391,9 milioi plaza izan direla adierazten du, hurrenez hurren. Bilboko aldirietako sarearen (3 linea) inguruko eskaintzaren hiru adierazleek % 0,3ko beherakada arina izan dute 2017. urtearekin alderatuta. Hala, 103,5 mila tren ibili ziren (341 gutxiago 2017an baino). Kilometroko tren kopurua 2.478,4 mila trenetaraino jaitsi zen, eta kilometroko 500,6 milioi plaza izan ziren.



4.3. taula Renferen eskaintzaren oinarriko datuak, Trenbide Sare Konbentzionala. 2016-2018

	2016	2017	2018
ESKUALDEETAKO LINEAK			
Linea kopurua ¹³	3	3	3
Eskaintako tren kopurua	8.616	7.205	7.150
Eskaintako kilometroko tren kopurua	2.147.867	2.113.468	2.100.034
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	551.362.295	541.453.930	538.486.485
ALDIRIETAKO LINEA			
Linea kopurua	4	4	4
Eskaintako tren kopurua	129.749	128.652	127.830
Eskaintako kilometroko tren kopurua	4.348.927	4.252.501	4.174.474
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	931.457.429	907.783.143	892.553.408

Iturria: Renfe.

4.1.2. ETS-Euskal Trenbide Sarea

ETS-Euskal Trenbide Sareak kudeatutako azpiegituren bidez osatzen da Euskadiko trenbide-sistema. Euskotren eta Bilboko Metroa operadoreek ematen dituzte zerbitzuak sare horretan. Horri dagokionez, hau adierazi behar da:

a) Euskotrenek zerbitzua emateko erabiltzen dituen ETSren azpiegiturak.

Eskura dauden azken datuen arabera, 2017ko ekitaldiari dagozkionen arabera, hain zuzen, EuskoTrenen operatutako ETSren trenbide-sareak 187,4 km ditu. Ia sare osoa bide elektrifikatuz osatuta dago (% 97,4, hain zuzen, 2017. urtean 182,5 km), eta gehienak bide bakarrek dira (% 62, hau da, 2017an 116,9 km). Lan eskerga ari dira egiten bideak bikoizten; izan ere, 2017an 65,6 km ziren bide bikoitzekoak, 2010ean zeudenak (30,9 km) bi halako.

Zehazki, EuskoTrenen linea hauen bidez ematen du zerbitzua:

- 1) Bilbo-Donostia linea eta Amorebieta-Bermeo adarra: 109 kilometro inguruko ibilbidean (Bilbo-Donostia zatia), EuskoTrenen hainbat lotune ditu, garraioko beste linea edo modu batzuekin. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Boluetako geltokian, Bilboko metroa hartzeko lotunea dago; Galdakaon, Usansoloko ospitalera joateko EuskoTrenen mikrobusa hartzeko; Zumaian, EuskoTrenen autobusak har daitezke (Urola eskualdean ematen dute zerbitzua); eta, Donostian, Amarako geltokian, EuskoTrenen Topo trena har daiteke, Hendaiarantz joateko. Horrez gain, linea horrek Zornotza-Bermeo adarra du, 29 kilometro baino gehiagoko luzera duen trenbidea.
- 2) Lasarte Oria-Donostia-Hendaia linea: Bilbo-Donostia linearen sare berbera erabiltzen du linea horrek Errekaldeko eta Amarako geltokien artean (Gipuzkoan biak ere), eta haietatik Bilbo-Donostia linea horretako trenak hartzeko aukera ere badago.
- 3) Bilbo (Deustu)-Lezama: 17 kilometro inguruko ibilbideko linea da eta Txorierriko herriekin lotzen du Bilbo. Bilboko Metroarekin konexioa du Alde Zaharreko geltokian.

2018an, Euskotrenek emandako zerbitzuek gora egin dute tren kopuruari (2017an baino % +2,3 gehiago) dagokionez; guztira 281,7 mila tren eskaini ditu. Bestalde, guztira ia 5,8 milioi km eskaini dira (% +4,3) eta kilometroko plazen kopurua % 0,8 handitu da, 2.107,5 milioi plaza izateraino. Aitzitik, eskaintako plazen kopuruak % 0,4 egin du behera, 92 milioi ingurukoa izateraino.

¹³ 2014 urtean Renfek bere zerbitzuak berrantolatu ditu, zenbait linea batuz; hori dela eta linea kopurua gutxitu da baina zerbitzuak handitu.



4.4. taula EuskoTrenek zerbitzuak emateko erabiltzen duen ETSren azpiegiturari eta EuskoTrenen zerbitzuei buruzko oinarritzko datuak. 2016-2018

	2016	2017	2018
Linea kopurua	3	3	--
Linea arrunten luzera (km)	188,1	187,4	--
Bide bakarreko linea arrunten luzera (km)	127,2	121,8	--
Bi bideko linea arrunten luzera (km)	60,3	65,6	--
Elektrifikatutako linea arrunten luzera (km)	182,1	182,5	--
Elektrifikatu gabeko linea arrunten luzera (km)	6,1	4,9	--
Eskainitako tren kopurua	213.540	275.532	281.736
Eskainitako plaza kopurua	70.439.886	92.374.786	92.005.295
Eskainitako km kopurua	4.743.322	5.518.007	5.756.613
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	1.812.116.537	2.090.104.768	2.107.468.020

Oharra: Tranbia-lineei buruzko datuak ez dira sartu. Larreinetako funikularrari buruzkoak aintzat hartu dira.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), lineen kopuru eta luzerari buruzko informazioari dagokionez - Euskotren, tren-, toki-eta kilometro-kopuruaren eskaintzari buruzko informazioari dagokionez.

b) Bilboko Metroak zerbitzuak emateko erabiltzen dituen ETSen azpiegiturak

2018an, Bilboko Metroak operatzen duen ETSren azpiegitura-sareak 45,1 km zituen, bai eta 41 geltoki ere, bi lineatan banatuta: 1. linea- Plentzia-Basauri, eskuinaldeko udalerrietan barrena zerbitzua ematen duena eta 2. Linea- Santurtzi-Basauri, metropoli-eremuaren ezker aldean barrena ibiltzen dena. Lurpeko 26 geltoki daude, eta 15 gainazalean. Bilboko Metroak 80 sarbide eta 69 atari ditu.

2017ko apirilean, abian jarri zen Bilboko Metroaren 3. linea, eta hala, hiri inguruko trenaren egungo egitura sendotu zen, jada 3 linea baititu. Horrez gain, beste jarduketa batzuk aurreikusita daude, eta horrek berekin ekarriko luke datozen urteetan sareari beste bi linea gehitzea: 4. linea- Matiko-Errekalde (proiektuan) eta 5. linea- Etxebarri-Ospitalea (proiektuan).

4.5. taula Bilboko Metroaren azpiegitura eta eskaintzaren oinarritzko datuak. 2016-2018

	2016	2017	2018
Linea kopurua	2	2	2
Geltoki kopurua	41	41	41
Lineen luzera (km)	45,1	45,1	45,1
Eskainitako km kopurua	4.566.563	4.717.433	4.783.526
Eskainitako kilometroko tren kopurua	20.659.181	21.240.967	21.461.180
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	2.957.094.397	3.039.879.581	3.071.017.091

Iturria: Bilboko Metroa.

Bilboko Metroaren eskaintza % 1,4 handitu zen 2018an eskainitako kilometroei dagokienez, 4,8 milioi km izateraino. Halaber, kilometroko trenen kopuruak % 1 egin zuen gora (21,5 milioi), bai eta kilometroko plazen kopuruak ere, 2018an 3.071 milioi baino gehiago izan baitziren.

c) Euskotrenen zerbitzua ematen dien ETSen tranbien azpiegiturak.

EAEko trenbide-eskaintza ETSren tranbia-azpiegiturarekin osatzen da: Gasteizko Tranbia eta Bilboko Tranbia. Ildo horretan, tranbia-sistemak programa berriak eta lineen zabaltzeak izango dituela aurreikusita dago, hurrengo urteetan sare hori zabaltzen joateko xedearekin.

Bilbon, tranbia-egitura bere horretan mantendu da 2018an. Sareak 14 geltoki ditu, eta 5,53 kilometro egiten ditu Atxuriko eta La Casillako geltokien artean: horietatik 1,72 km noranzko bakarreko bideak dira (guztizkoaren % 31,1) eta 3,81 km noranzko bikoak. 2018an, tranbiaren eskaintzak aldakuntza positiboa izan zuen. Izan ere, herritarren eskura jarritako trenen eta plazen kopuruak % 0,6 handitu ziren; hau da, balio absolututan 62.260 tren (2017an baino +355 tren



gehiago) izan ziren, eta herritarrei 7.782 mila plaza eskaintzera iritsi ziren. Eskaintako kilometroak eta kilometroko plaza kopuruak % 0,3 egin zuten gora; hau da, 337.183 km eta kilometroko 42,1 milioi plaza eskaini ziren, hurrenez hurren.

Gasteizen, tranbia-sareak bi linea eta 20 geltoki ditu. Lineek 8,05 km-ko ibilbidea egiten dute, eta ia osorik noranzko bikoak izan ohi dira (% 99,6). Eskaintzek gora egin dute trenen eta plazen kopuruak (% +0,1), 97.575 tren eta 14.831 mila plaza izateraino; eta kilometroen eta kilometroko plazen kopuruak (% +0,2), 495.780 km eta kilometroko 75,4 milioi plaza izateraino, hurrenez hurren.

4.6. taula EuskoTrenen tranbia-eskaintzaren oinarrizko datuak. 2017-2018

	Bilbo		Gasteiz	
	2017	2018	2017	2018
Linea kopurua	1	1	2	2
Geltoki kopurua	14	14	20	20
Lineen luzera (km)	5,53	5,53	8,05	8,05
Lineen luzera (bide bakarra)	1,72	1,72	0,03	0,03
Lineen luzera (bide biko)	3,81	3,81	8,02	8,02
Gehieneko edukiera (pertsonak) (*)	192 (50 eserleku)	192 (50 eserleku)	244 (52 eserleku)	244 (52 eserleku)
Aplikaturako edukiera (pertsonak) (*)	125 (50 eserleku)	125 (50 eserleku)	152 (52 eserleku)	152 (52 eserleku)
Eskaintako tren kopurua	61.905	62.260	97.469	97.575
Eskaintako plaza kopurua	7.738.125	7.782.500	14.815.288	14.831.400
Eskaintako km kopurua	336.217	337.183	494.835	495.780
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	42.027.106	42.147.845	75.215.985	75.358.487

(*) EuskoTrenek aplikaturako edukiera txikiagoa da fabrikatzaileak zehaztutako gehieneko edukiera baino. Gehieneko erosotasuneko irizpideen arabera zehazten da, Europako erreferentzia oinarri hartuta, metro koadroko 4 pertsona.

Iturria: Euskotren.

4.1.3. Euskal Trenbide Sare berria - ETS eta Adif

Europar Batasunak Euskadi Atlantikoko trenbide-korridorean sartzeari erabaki zuen, eta erabaki horrek Euskadiko trenbide-sareak EBko sareetan duen parte hartzea areagotu du, batetik, eta bultzada handia izan da, bestetik, EAEko trenbide-sare berriarentzat ("Euskal Y" deritzonarentzat). EAEko azpiegituren proiektu nagusietako bat da, eta Gasteizen trenbide-lotune bat jartzeko aukera ematen du, Estatuko gainerako lurraldeekin komunikatzeko, eta Europako gainerako lurraldeekin komunikatzeko, Irunen Europa doazen trenbideekin lotuz eta Bilboko porturantz hurbilduz. Trenbide-azpiegitura horrek pertsonak eta salgaiak garraiatuko ditu. Gainera, Euskal Y-ak EAEko hiru hiriburuak lotuko ditu, haien arteko joan-etorriak bizkortuz eta haietan iraunkortasuna hobetuz.

Azpiegitura hori Europako bideen zabalera estandarrean egokitu da, eta aukera emango du Euskal Autonomia Erkidegoa Europa barneko abiadura handiko sarean sartzeko. Espainiako bideen ezaugarriak izateak Europarekin lotzeko sortu izan dituen oztopoak gainditzea ekarriko du, eta, horrenbestez, Europako merkatuetan sartu ahal izango da, kostu txikiagoarekin.

Sare berriak 172 kilometroko ibilbidea izango du. Trenbide berriaren trazaduraren % 60 ezkutuan egongo da, 80 tunelen bidez (104,3 km), % 9,9 obra horren barruan sartu diren 71 biaduktoren gainean joango da, eta gainerako % 29,5 aire zabalean. Trenbide-azpiegitura berriak sei geltoki izango ditu: Bilbo (Abando), Gasteiz (Arriagako parkea), Donostia (Atotxa), Astigarraga, Irun eta Ezkio-Itsaso.



Gobernu zentrala arduratuko da abiadura handiko trenbide-azpiegitura eraikitzeaz, Sustapen Ministerioaren bidez. Alde horretatik, Euskal Yaren harira, Ministerioak eta EAEko Administrazioak akordio bat sinatu zuten 2006ko apirilaren 24an; akordio horren bidez, Sustapen Ministerioak eskumenaren zati bat Eusko Jaurlaritzari laga zion, eta berarentzat gorde zituen Araba eta Bizkaiko tarteen eraikuntza, Euskal Yak Arrasaten, Elorrioren eta Bergaran izango dituen lotuneen eraikuntza eta Bilboko eta Gasteizko sarrerena. Adif arduratuko da lan horiek egiteaz eta 2.536 milioi euroko inbertsioa izango da guztira.

Eusko Jaurlaritza, berriz, Gipuzkoako azpiegituraren zati handienaz arduratuko da. Euskal Trenbide Sarea sozietate publikoa Bergara-Irun-Donostia tartean egiteaz arduratuko da; 1.642 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Estatuari eman beharreko kupotik kenduko da zenbateko hori.

2018. urtearen amaieran, ETSk Euskal Y-aren Gipuzkoako adarrean garatutako 20 tartetatik 12 amaituta daude (% 71) eta 5 egiten ari dira (% 29). Gainerakoak ez dira hasi (% 15). Adifek, Gasteiz-Bilbo adarreko lanak egitearen arduradunak, berriz, proiektuaren bi herenetan ekin die jarduketari.

4.2. Pertsonen mugikortasuna trenez Euskadin


4.2.1. Hiriko garraioa / metropolikoa

a) *Bilboko Metroa*

Bilboko Metroaren bidaiarien zirkulazioak goranzko joerari eutsi dio azken urteetan. Hala, 2018an 89,9 milioi erabiltzaile erregistratu zituen; kopuru erlatiboetan, 2017. urtearekiko % 2ko igoera izan zela esan nahi du (+1.747 mila pertsona). Linea bakoitzaren erabilerari dagokionez, sarearen trazaduraren enborrean bidaiarien kopuruak % 1,8 egin zuen hobera, Alde Zaharreko geltokiko San Nikolas ahoa irekitzearen ondorioz. 1. lineak % 3,3ko gorakada izan zuen, 2017ko apirilean Urdulizko geltokia berriz irekitzeagatik; eta hala, obrak egiten ziren bitartean Sopela-Plentzia tartean autobusak egindako zerbitzua ordezkatu zuen metro zerbitzuak. 2. linean, berriz, bidaiarien kopuruak % 1,5 egin zuen gora, Ansioko, Kabiezesko eta Arizko geltokietako jendearen emana handitzearen ondorioz.



4.1. grafikoa Hiriko eta metropoli-inguruko garraio publikoa: Bilboko metroaren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1995-2018.



¹ Martxan jarri zutenetik (1995eko azaroaren 11tik) urte amaiera arte.


Iturria: Bilboko Metroa.

Geltokien araberako bidaiei erreparatuz, Bilboko erdiguneko terminalek biltzen dute bidaiari gehien. Jendetsuena Alde Zaharreko geltokia izan zen, 7.005.909 ezeztapen izan baitzuten. Geltoki horri esker, metroaren sistemako hiru lineak konektatuta daude. Hurrengoia Moyua da 6.381.670 bidaiarekin, atzetik Abando 6.222.057 bidaiarekin, eta laugarren eta bosgarren postuan, Indautxuko eta Santimamiko geltokiak 6.161.704 eta 6.134.691 bidaiarekin, hurrenez hurren. Oro har, bost geltoki horiek 31,9 milioi bidaiari xurgatzen dituzte; hau da, Bilboko Metroaren jardura osoaren % 35,5. Itsasadarraren ertzean jende gehien biltzen duten geltokiak kontuan hartuta, Barakaldo eta Gurutzeta dira ezker aldean gehien erabiltzen diren terminalak, eta horietako bakoitzean 3,5 milioi bidaiari inguru ibiltzen dira eta eskuinaldean, berriz, joan-etorri gehien egiten dituen geltokia Areta da (3,4 milioi pertsona inguru).

Erabilitako tituluei dagokienez, Creditrans da bidaiari gehien erabiltzen duten tiketa, % 52,4ko kuotarekin. Bigarren erabiliena Gizatrans tiketa da, leku-aldatzeen % 13,5ean erabiltzen dute. Atzetik, 2017an sortu berri ziren abonua daude, hala nola, Bidai 50 (% 11,3ko parte-hartzea) eta Bidai Oro (% 6,3). Bestalde, bidaien % 2,4an noizbehinkako tiketa erabiltzen da.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

4.2. grafikoa Hiriko garraio publikoa: bidaiarien bilakaera EuskoTrenen Tranbian. 2002-2018.



¹ Martxan jarri zutenetik (2002ko abenduaren 12tik) urte amaiera arte.

Iturria: Euskotren.

b) EuskoTren Tranbia

EuskoTrenek emandako tranbiaren hiriko garraio publikoaren zerbitzuak, oro har, 11.297 bidaiari lekualdatu ditu; beraz, urtetik urtera % 2,3ko igoera.

Zehazki, Bilboko Tranbiaren jarduera % 3 handitu zen 2017. urtearekiko. Hala, 2,992,8 mila bidaiari garraiatu zituen (+85,9 mila pertsona gehiago aurreko ekitaldian baino).

Gasteizko Tranbian, bidaiarien kopurua % 2 handitu zen 2018an. Kopuru absolutuetan, 8,3 milioi erabiltzaile baino gehiago izan ditu; hau da, 2017an baino 166,7 mila joan-etorri gehiago. 2018an, 2009tik, zerbitzua ematen hasi zenetik, izandako jarduera-maila handiena izatea lortu zen.

4.2.2. Hiri arteko garraioa

Renfek, sare arruntean nahiz zabalera metrikoko sarean, eta Euskotrenek¹⁴ ematen dituzte EAEko hiri arteko garraio-zerbitzuak. 2018an, oro har, 39,5 milioi joan-etorri baino gehiago izan ziren; hau da, 2017. urtearekin alderatuta, urtetik urterako % +7,7ko aldakuntza izan zen. Azken urtean, Renferen eskaria sare arruntean eta Euskotrenen eskaria handitu egin dira, eta Renferen eskaria sare metrikokoan, berriz, txikitu egin da.

Zehazki, Renfen, linea arrunteko sarean, bidaiarien kopurua % 1,4 handitu da (+220 mila pertsona), eta hala, 16.314 mila joan-etorri egin dira. Beraz, Renfek, trenbide-sare arruntean lan eginez eta Bilboko Metroa alde batera utziz, Euskadiko hiri arteko trenbide-zirkulazioaren % 41,3 biltzen du.

Lurraldean araberako bilakaerari erreparatuz, Bilboko erdiguneko lineen, hau da C-1 Bilbo Abando-Santurtzi, C-2 Bilbo Abando-Muskiz eta C-3 Bilbo Abando-Urduña lineen erabiltzaileak % 3,8 ugartu dira aurreko ekitaldiarekiko, 10,4 milioi bidaiako kopurura iritsiz, 384,9 mila bidaiari gutxiago aurreko urtean baino. Aitzitik, C1 Irun-Brinkola lineak, Donostiako gipuzkoar gunean lan egiten duenak, % 2,7ko jaitsiera erregistratu du; hau da, 5,9 milioi joan-etorri izan dira, eta horrenbestez, 2017an baino 165,2 mila pertsona garraiatu dira. Bizkaiko

¹⁴ Datuak eranskinetako taulan kontsulta daitezke: Hiri arteko garraio publikoa: Bidaiariak tren-zerbitzu erregularretan. 2000-2018.


- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

lineen erabiltzaileak Renfek EAeko trenbide-sare arruntean dituen erabiltzaile guztien % 63,9 dira eta gainerako % 36,1 Gipuzkoako lineako erabiltzaileei dagokie.

Bestalde, Renfek zabalera metrikoko trenbide-sarean, hau da Bilbotik Balmasedara arteko ibilbidea egiten duenean, % 36,2 egin du atzera aurreko urtearekin alderatuta. Hala, 865 mila bidaiari baino ez ditu izan; hau da, kopuru absolutuetan 491 mila joan-etorri gutxiago. Bilakaera horren ondorioz, Renferen (zabalera metrikoko sarea) parte-hartzea EAeko hiri arteko tren-garraioan % 2,2ra jaitsi da, Bilboko Metroa alde batera utzita.

EuskoTrenek garraiatuko bidaiarien zirkulazioa % 16,1 handitu zen 2018an. Hala, ekitaldiaren amaierarako, 22.344 erabiltzaile izan zituen (3,1 milioi joan-etorri gehiago 2017an baino). Bilboko Metroaren 3. lineak berekin ekarritako bidaiarien ondoriozkoa da hedapen hori, neurri handi batean. EuskoTrenek kudeatzen du linea hori eta 2017ko apirilaren 8an jarri zuen martxan (2018an 5.037 mila joan-etorri egin zituen). Bilakaera horrek berekin ekarriko du Euskotrenen EAeko hiri arteko trenbide-garraioaren % 56,5 lortzea.

4.3. grafikoa Hiriarteko garraio publikoak: tren-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1980-2018.



¹ Zerbitzu hauek sartzen dira: Bilboko aldirietako zerbitzua (C-1 linea, Abando eta Santurtzi artekoa; C-2 linea, Abando eta Muskiz artekoa; eta C-3 linea, Abando eta Urduña artekoa), eta Donostiako aldirietako zerbitzua (Irun eta Brinkola arteko linea).

² Bilbo eta Balmaseda arteko lineari buruzko datuak.

Iturria: Renfe eta Euskotren.

Kopuruak 1980ko hamarkadaren hasieran erregistratutakoekin alderatuz gero, hiriarteko trenbide-garraioak EAEn, Bilboko Metroa aintzat hartu gabe, 15,8 milioi pertsona galdu ditu. Horri dagokionez, berriz aipatu behar da garraio kolektiboaren bilakaeraren analisia egiteko, eremu geografiko bakoitzeko eskaintza betetzearen ikuspuntu orokorra beharrezkoa da. Hala, eta zehazki Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, erabiltzaileen eskura beste garraio publiko kolektibo batzuen eskaintza handiagoa jartzearen ondorioz etorri da jaitsiera hori. Hala nola Bilboko Metroak Renferen aldirietako zerbitzuaren bidaiari asko xurgatu ditu Bizkaiko hiriburuaren metropoli-eremuan.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak


4.2.3. Eskualde arteko garraioa

Renfek ematen du EAE abiapuntu eta/edo xede duen bidaiarien eskualde arteko garraio-zerbitzua. Renfek trenbide-sare arruntean nahiz zabalera metrikoko¹⁵ sarean egiten du lan.

Zabalera metrikoko sarean bidaiarien zirkulazioari buruzko azken informazio erabilgarria 2014koa da. 56 mila pertsona garraiatu ziren guztira.

Renferen distantzia luzeko bidaiarien garraioari dagokionez, azpimarratu behar da Madrilgo Erkidegoa dela EAEren¹⁶ abiapuntu eta xede nagusia, joan-etorri guztien herena baino gehiago biltzen baitu (2018an % 37,7) eta atzetik dituela Katalunia (% 30,6) eta Gaztela eta Leon (% 18,3). Renferen nazioarteko zirkulazioak, EAEren eta Frantziaren artekoak, ez du parte-hartze esanguratsurik izan 2018an. Amaitzeko, eskualde barneko zirkulazioa (abiapuntu eta xede EAE duena) Renfek EAEko distantzia luzeko lineetan barrena garraiatutako bidaiari guztien % 1,0ra jaitsi da.

4.4. grafikoa Bidaiarientzako Renferen distantzia luzeko garraio-zerbitzua. Abiapuntua eta/edo xedea (%). 2018.



¹Ez da kontuan hartu eskualde arteko zirkulazioa (EAE abiapuntu eta xede duena)
Iturria: Renfe

4.3. Tren bidezko salgaien zirkulazioa Euskadin

EAEEn operadore hauek ematen dute tren bidezko salgaiak zirkulatzeko zerbitzua: alde batetik, Renfe, 2016. urtetik aurrera trenbide-sare arrunteko zirkulazioari zabalera metrikoko sarea gehitu ziona eta EuskoTren. 2018an, salgaien guztizko bolumena 2.095,4 mila tonaraino jaitsi zen; kopuru erlatiboetan, aurreko urtean mobilizatutako kargaren % 7,2ko murrizketa izan zela esan nahi du.

¹⁵ 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, FEVE enpresa Renfe Operadora enpresan integratuta geratu da.

¹⁶ Eranskineko taulan eskura daitezke datuak: Bidaiarientzako Renferen distantzia luzeko garraio-zerbitzua. Abiapuntua eta/edo xedea. 2017-2018.

4.7. taula EAE abiapuntu eta/edo xede duten tren bidez garraiatutako salgaien bolumena. 2002-2018

(tona, milakotan)


Urteak	Renfe, tren-sare arrunta konbentzionala	Renfe, zabalera metrikoko sarea	EuskoTren	Guztira
2002	--	1.127,9	157,0	1.284,9
2003	5.475,9	1.041,6	154,2	6.671,7
2004	5.932,5	1.092,4	164,9	7.189,8
2005	4.441,9	1.054,4	148,0	5.644,3
2006	4.601,3	1.063,4	166,4	5.831,1
2007	4.479,3	1.088,4	173,6	5.741,3
2008	4.148,4	1.053,6	183,3	5.385,3
2009	2.767,5	823,7	121,4	3.712,6
2010	3.158,6	976,7	139,6	4.274,9
2011	2.953,8	948,7	138,9	4.041,5
2012	2.159,6	862,0	84,1	3.105,7
2013	2.375,6	816,9	0,5	3.193,0
2014	2.528,4	694,7	0,3	3.223,4
2015	2.384,2	745,4	8,3	3.137,9
2016		2.399,7	51,4	2.451,1
2017		2.211,2	46,7	2.257,9
2018		2.082,9	12,5	2.095,4

2016tik aurrera, Renferen datuak aintzat hartzen du Renfe Metrikoa

Iturria: Renfe eta Euskotren.

Renfek garraiatutako salgaien joan-etorria, trenbide-sare arrunta eta zabalera metrikoko sareak biak batera aintzat hartuta, 2.082,9 mila tonakoa izan da; horrek berekin ekarri du % 5,8ko jaitsiera 2017. urtearekin alderatuta (-128,3 mila tona). Renfe da operadore nagusia EAE abiapuntua eta/edo xedea duten trenbide bidezko salgaien trukean, zirkulazio osoaren % 99,4 biltzen baitu.

4.5. grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2016-2018.



2016tik aurrera, Renferen datuek aintzat hartzen dute Renfe Metrikoa

Iturria: Renfe


- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

EAEko salgaien guztizko zirkulazioaren lurralde historikoen arabera banaketari erreparatzen badiogu, ikusten da Gipuzkoak guztizko bolumenaren erdia baino gehiago (% 50,82) biltzen duela; Bizkaiak, % 45,24; eta Arabak, gainerako % 3,94.

2018an, Gipuzkoan eta Bizkaian, lurralde horiek abiapuntu eta/edo xede zuten garraiatutako salgaien bolumenek behera egin zuten. Lehen kasuan, % 10,7ko jaitsiera erregistratu zen (-127,2 mila tona), eta ekitaldiaren amaierarako 1.062,4 mila tonako fluxua izan zen. Bizkaiko lurraldean salgaien trukeak % 1,2 jaitsi ziren (-11,8 mila tona); hau da, 945,7 mila tonako zirkulazioa izan zen. Aitzitik, Araba abiapuntu eta/edo xede duten izakin-fluxua % 28,4 hazi zen (+18,2 mila tona); kopuru absolutuetan 82,3 mila tona garraiatu direla esan nahi du.

2018an, salgaien eskualde arteko zirkulazioa 2.074,1 mila tonakoa izan zen, EAEko guztizko bolumenaren % 99,6 bilduz. Autonomia-erkidegoaren arabera, Madrilgo Erkidegoa da oraindik EAEren merkataritza-bazkide nagusia, eskualde arteko fluxuaren % 22,8 biltzen baitu. Gaztela eta Leon eta Asturias ditu ondoren, parte-hartze berarekin (% 22,1). Atzetik daude, Aragoi (% 9,5) eta Katalunia (% 7,1). Hala, bost lurraldeek batera EAE abiapuntu eta/edo xede duten eskualde arteko zirkulazioaren % 83,7 biltzen dute. Informazioa osatzeko, eskualde arteko zirkulazioa (EAE abiapuntu eta xede duena) 8,8 mila tonakoa da, eta trukaturako¹⁷ guztizko salgaien % 0,4 xurgatzen du.

4.6. grafikoa Renfek EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean 2018an garraiatutako salgaiak (%)




Iturria: Renfe

Garraiatutako salgaien sailkapenean, azpimarragarria da zenbait ondasun jakin metatzen direla batez ere. Hala, Renfek garraiatutako izakinen bolumen erdia baino gehiago xurgatzen dute produktu siderurgikoak (% 50,5). Bigarren postuan daude lurreko Garraio Unitate Intermodalak (UTI)¹⁸, % 22,4 biltzen baitute. Parte-hartze txikiagoa dute autoek (% 11,6) eta produktu kimikoak (% 9).

¹⁷ Eranskineko taulan eskura daitezke datuak: Renferen salgaien garraioa. Autonomia-erkidegoak abiapuntu eta xede. 2018.

¹⁸ Garraio Intermodaleko Unitatea (UTI) garraio intermodalerako egokitutako edukiontzia, kutxa mugikorra edo erdi-atoia da.


4.7. grafikoa Renfek EAetik eta/edo EAera garraiatutako salgaien tipologia. 2018 (%).



Iturria: Renfe.

Euskadi abiapuntu eta/edo xede duten EuskoTrenek garraiatutako salgaien zirkulazioari dagokionez, 2018an % 73,2ko jaitsiera izan zen aurreko urtearekiko, eta hala, ekitaldiaren amaieran 12,5 mila tonako bolumena garraiatu zen. EuskoTrenen kanpoko operadoreak, Euskal Trenbide Sarearen konexio-punturaino garraioaren kudeaketa-arduradunak, izandako arazoan ondoriozkoa da murrizketa hori. Izan ere, arazo horiek direla eta, ezin izan da enpresa bezeroen eskaria ase.

4.8. grafikoa EuskoTrenek garraiatutako eta EAE abiapuntu eta/edo xede zuten salgaien bolumena. 2002-2018.



Iturria: Euskotren.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa**
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



Aire Bidezko Garraioa


5. Aireko garraioa

5.1. Aireko garraioaren eskaintza Euskadin

2018an, hegazkinez garraiatutako salgaien trafikoak goranzko joerari eutsi dio Euskadin; izan ere, autonomia-erkidegoko aireportu guztiak kontuan harturik, 61.230 eragiketa erregistratu ziren – termino erlatibotan, % 7,1eko igoera, 2017ko datuekin alderatuta–. Bereziki, Arabako terminalak urteak urterako % 15,8ko hazkundera izan du, eta Bizkaikoak, berriz, % 7,1 egin du gora. Aldiz, Donostiako aireportuak % 4,7ko beherakada izan du, iazko datuekin konparatuz gero.

Bilboko aireportuak biltzen du EAEko eragiketa-bolumen handiena (Euskadiko aireko trafiko guztiaren % 77,7); Gasteizko terminalak % 14,1, eta Donostiakoak, berriz, % 8,2.

5.1. grafikoa Aireko garraioa: Hegazkinen trafikoa¹ EAEko aireportuetan. 2000-2018




¹ Trafikoaren datuak hegazkinen merkataritza-trafikoari dagozkie. Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

5.2. Pertsonen mugikortasuna aireko garraio bidez Euskadin

2018ko ekitaldian, orotara 5.881 mila pertsonak bidaiatu zuten Euskadiko aireportuetara edo/eta aireportuetatik. Aurreko urteko datuekin alderatuta, % 10,4ko hazkundera izan zen. Euskadiko bidaiari kopuruak izandako gorakada hori Espainiako aireportu-sistemak izandakoa baino handiagoa da –aurreko urtearekin alderatuta, % 5,8koa izan gorakada hori Estatuan 2018an–.



5.2. grafikoa Bidaiarien aireko garraioa EAEn: bidaiarien bilakaera aireko zerbitzuetan. 1980-2018.



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

EAEko aireportu bakoitzaren jardura aztertzen badugu, Bilbokoak % 9,9ko hazkundera izan zuen 2018ko ekitaldian, 2017ko emaitzekin alderatuta; termino absolutuetan emanda, 5.455 mila pertsonak bidaiatu zuten Bizkaiko terminalera edo terminaletik 2018an. Hori hala, Loiu kontzentratzen da Euskadiko aireportuetako mugimenduaren % 92,8.

Bilboko aireportuko bidaiari-fluxuaren jatorriari eta norakoari dagokionez, trafiko nazionala ez ezik (+% 10,5) nazioartekoa ere igo da (+% 9,1); hori hala, 3.128 eta 2.327 mila bidaiari izan dira, hurrenez hurren.

Esparru nazionalari erreparatuta, Madrilgo Barajas Adolfo Suárez aireportuak 811,1 mila pertsona lotu zituen Euskadirekin (% 9,1 gehiago 2017an baino), eta Bartzelonako El Prat aireportuak, berriz, 632,8 mila bidaiari (% 16,6 gutxiago aurreko urtearekin alderatuta). Bi terminal horiek biltzen dute Estatuko jardueraren % 46,2, eta aireportuko bidaiari orokorren laurdena baino gehiago (% 26,4).

Bizkaiko aireportuarekin jardura handiena duten nazioarteko terminalak Municheko Franz Josef Strauss aireportua (302,8 mila pertsona, aurreko urtean baino % 15,2 gehiago) eta Frankfurtuko nazioarteko aireportua dira, 233 mila pertsona joaten baitira hara edo etortzen baitira handik (% 4 gutxiago 2017an baino).

Loiuko aireportuarekin trafiko handiena duten atzerriko hiriak kontuan harturik, Londres dago lehendabiziko postuan; izan ere, hiri hartako hiru aireportuak kontuan hartuta, nazioarteko zirkulazioaren % 17,3 biltzen dute. Atzetik dituzte Municheko, Parisko (Charles de Gaulle eta Orly) eta Frankfurtuko aireportuak (% 13,0, % 11,0 eta % 10,0eko pisuarekin, hurrenez hurren).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa**
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

5.1. taula Pertsonen zirkulazioa EAEko aireportuetan. Bidaiarien bilakaera aireportuaren arabera. 2000-2018.

Urteak	Bilbo		Donostia		Gasteiz		Guztira	
	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %
2000	2.527,8	--	283,8	--	123,4	--	2.935,0	--
2001	2.475,4	-2,1	281,1	-1,0	128,7	4,3	2.885,2	-1,7
2002	2.450,6	-1,0	271,2	-3,5	98,8	-23,2	2.820,6	-2,2
2003	2.842,4	16,0	283,8	4,7	101,9	3,1	3.228,1	14,4
2004	3.390,8	19,3	295,6	4,1	94,4	-7,3	3.780,8	17,1
2005	3.841,5	13,3	308,8	4,5	91,4	-3,2	4.241,7	12,2
2006	3.871,1	0,8	368,0	19,2	173,1	89,4	4.412,2	4,0
2007	4.280,7	10,6	466,5	26,8	173,2	0,1	4.920,4	11,5
2008	4.169,0	-2,6	403,2	-13,6	67,5	-61,0	4.639,7	-5,7
2009	3.652,0	-12,4	315,3	-21,8	39,9	-40,9	4.007,2	-13,6
2010	3.883,3	6,3	286,1	-9,3	41,8	4,8	4.211,2	5,1
2011	4.044,1	4,1	248,0	-13,3	28,0	-33,0	4.320,1	2,6
2012	4.167,2	3,0	262,4	5,8	24,1	-13,9	4.453,7	3,1
2013	3.794,2	-9,0	245,0	-6,6	6,8	-71,9	4.046,0	-9,2
2014	3.982,9	5,0	245,0	0,0	7,1	4,4	4.235,0	4,7
2015	4.258,9	6,9	255,1	4,1	11,2	57,7	4.525,2	6,9
2016	4.570,4	7,5	261,3	3,6	36,4	231,6	4.868,2	7,8
2017	4.964,3	8,6	279,4	6,9	81,6	124,0	5.325,2	9,4
2018	5.454,7	9,9	287,1	2,8	139,6	71,1	5.881,3	10,4

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

Oharra: jatorri-iturrian, datuak ez daude gehiago banakatuta eta eguneratuta. Esteka: www.aena.es

Donostiako aireportuko joan-etorriak % 2,8 ugartu ziren 2017ko datuekin alderatuta; termino absolutuetan, 287,1 mila joan-etorri.


Bidaien jatorria eta norakoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da % 99,7 nazionalak direla. Hartara, Madrilgo Barajas Adolfo Suárez aireportua da Donostiako terminalaren lehen aireko konexioa, eta 181,7 mila bezerora iritsi da (% 3,1 gehiago 2017an baino). Bigarren postuan, Bartzelonako El Prat aireportua ageri da, 104,7 mila erabiltzailerekin (% 4,2 gehiago). Bi terminal horietara edo horietatik egindako joan-etorriek hartzen dute Donostiako aireko trafikoaren % 98,7.

Aireportuaren nazioarteko jardura oso mugatua da, guztizkoaren % 0,3 baino ez. Zenbaki absolututan emanda, mila pertsona inguru.

Azkenik, Gasteizko aireportuak areagotze nabarmena izan zuen 2018an, eta bidaiak % 71,1 ugartu ziren 2017ko datuekin alderatuta; horrek esan nahi du ekitaldiaren amaieran 139,6 mila pertsonak baliatu zutela azpiegitura hori aireko joan-etorrietarako. Azkeneko ekitaldian izandako igotzerak neurri handi batean berreskuratzen du 2007tik hona izandako beherakada.



5.3. grafikoa Bidaiarien jatorria eta norakoa, aireportuaren arabera. 2018.



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

2018an, Arabako aireportuko jardueraren erdia nazionala da, eta beste erdia, berriz, nazioartekoa.

Jatorria edo jomuga Espainiako aireportuetan duten hegaldiei dagokienez, Sevilla da Gasteizko aireportuaren konexio nagusia (33,6 mila bidaiari, % 433,2 gehiago 2017ko datuen aldean), eta Arabako aireko trafikoaren % 23,9 osatzen du. Atzetik, Tenerife ageri da (25,9 mila bidaiari, % 1.654,6 gehiago), trafikoaren % 18,4rekin.


Arabako terminalaren nazioarteko zirkulazioari dagokionez, hauek dira trafiko handiena duten hiriak: Milano, 35,4 mila pertsonarekin (% 32,3 gehiago 2017an baino), eta Kolonia, 27,1 mila joan-etorrirekin (% 393,9 gehiago aurreko urtearekin alderatuta). Bi hiri horiek bidaiarien % 25,1 eta % 19,2 hartzen dute, hurrenez hurren.

5.3. Salgaien aireko zirkulazioa Euskadin

EAEko hiru aireportuetan garraiatutako salgaien bolumena % 1,5 handitu da 2017ko datuekin alderatuta; termino absolututan emanda, 63,4 mila tona salgai igaro dira. Euskadiko aireportu-sistemak izandako bilakaera apalagoa da Estatukoak izandakoa baino, zeinaren hazkundea % 9,9koa izan baitzen aurreko urtearen aldean.



5.4. grafikoa Salgaien aireko zirkulazioa EAEn. 1980-2018 arteko bilakaera.



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

Euskadiko aireportu-sistemak izandako aurrerabidearen arrazoi nagusia Gasteizko aireportuan salgaien zirkulazioa ugartu izana da (% 2,8ko igoera 2018an). Horrekin azalduko litzateke Arabako terminaleko produktu-trukeak 62,2 mila tona gaintitzea. Urte horretan, Gasteizkoa Estatu osoko laugarren aireportua izan da salgaien bolumenari dagokionez (Estatuko zirkulazio osoaren % 6,1 hartzen du). Aurretik ditu Madrilgo Barajas Adolfo Suárez aireportua (Espainiako salgaien aireko garraioaren % 51,3), Bartzelonako El Prat (% 17,1) eta Zaragozako (% 16,5).

Arabako aireportuaren bi konexio nagusiak Leipzigezkoa eta Bruselakoa dira. 2018an, 20,1 mila tona trukatu ziren Alemaniako terminalerantz edo terminaletik (% 2,1 gehiago 2017an baino), eta 6,2 mila tona Belgikako hiriarekin (% 2,5 gutxiago aurreko urtean baino).

Bestalde, Bilboko aireportuan murriztu egin da trukaturako salgaien bolumena, eta ekitaldia 1,2 mila tonarekin amaitu du (% 37,8 gutxiago 2017an baino).

Bilboko aireportuarekin diren konexioetako trafikoa aztertuz, Frankfurtoko nazioarteko terminala da loturarik garrantzitsuen: 493 tona trukatu ziren 2018an (% 6,5 gehiago 2017an baino). Atzetik du Madrilgo Barajas aireportua, zeinak utzi egin baitio Bizkaiko terminalaren merkataritza-sozio nagusia izateari (% 75,5 murriztu da 2017an garraiatutako bolumena, 238,9 tonara iritsi arte).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

5.2. taula Salgaien trafikoa aireportuaren arabera¹. 1980-2018.

Urteak	Bilbo		Donostia		Gasteiz		Guztira	
	Tona	Δ urtekoa aldia (%)	Tona	Δ urtekoa aldia (%)	Tona	Δ urtekoa aldia (%)	Tona	Δ urtekoa aldia (%)
1980	3.376,5	-	428,3	-	0,3	-	3.805,1	-
1985	4.080,5	3,9	466,6	1,7	703,1	372,0	5.250,2	6,7
1990	2.805,0	-7,2	366,0	-4,7	533,8	-5,4	3.704,8	-6,7
1995	3.879,4	6,7	292,6	-4,4	13.782,1	91,6	17.954,1	37,1
2000	4.038,7	0,8	176,1	-9,7	35.609,7	20,9	39.824,5	17,3
2001	3.674,5	-9,0	154,1	-12,5	36.309,5	2,0	40.138,0	0,8
2002	3.699,2	0,7	127,1	-17,5	42.425,2	16,8	46.251,5	15,2
2003	3.813,6	3,1	96,6	-24,0	40.155,9	-5,3	44.066,0	-4,7
2004	4.152,8	8,9	325,2	236,6	43.683,4	8,8	48.161,4	9,3
2005	3.956,7	-4,7	415,2	27,7	34.785,8	-20,4	39.157,8	-18,7
2006	3.417,7	-13,6	282,2	-32,0	31.575,7	-9,2	35.275,6	-9,9
2007	3.230,9	-5,5	245,9	-12,9	31.359,3	-0,7	34.836,1	-1,2
2008	3.178,8	-1,6	63,8	-74,1	34.989,7	11,6	38.232,3	9,7
2009	2.691,5	-15,3	31,1	-51,3	27.388,0	-21,7	30.110,6	-21,2
2010	2.548,0	-5,3	18,8	-39,5	27.960,6	2,1	30.527,4	1,4
2011	2.633,5	3,4	32,0	70,2	34.692,3	24,1	37.357,8	22,4
2012	2.262,8	-14,1	35,6	11,3	34.652,3	-0,1	36.950,7	-1,1
2013	2.538,4	12,2	20,4	-42,7	37.482,5	8,2	40.041,3	8,4
2014	2.855,6	12,5	30,7	50,5	42.160,7	12,5	45.047,0	12,5
2015	2.871,7	0,6	3,3	-89,2	46.371,9	10,0	49.246,9	9,3
2016	2.974,3	3,6	4,6	37,6	52.134,7	12,4	55.113,6	11,9
2017	1.956,4	-34,2	3,2	-28,8	60.479,4	16,0	62.439,0	13,3
2018	1.216,4	-37,8	6,7	106,4	62.156,2	2,8	63.379,3	1,5

¹ Ez ditu biltzen iragaitzak salgaiak.


Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

Gipuzkoako aireportuaren kasuan, salgaien garraioa oso hondar-jarduera da. 2018an, 6,7 tona trukatu ziren; termino erlatibotan emanda, % 106,4 handitu zen 2017ko datuekin alderatuta. Ekitaldi honetan, zerbitzu erregularrek jarraitu dute Madrilgo Barajas Adolfo Suárez aireportuarekin (4,4 tona) eta Bartzelonako El Pratekin (2,3 tona).

Euskadiko aireportu bakoitzak EAE osoan mobilizatutako kargaren gainean izandako partaidetza kontuan izanik, Gasteizko terminala da nagusi; izan ere, Euskadiko salgaien aireko zirkulazioaren % 98,1 hartzen du. Bilbotik edo Bilbora bideratutako salgaien fluxua % 1,9raino murriztu zen, eta Donostiaren kasuan, berriz, ez du pisu esanguratsurik EAEko hiru aireportuak kontuan hartuta.




5.5. grafikoa Salgaien jatorria eta norakoa, aireportuaren arabera. 2018.



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

Euskadiko aireportuetan trukaturako salgaien norakoa eta jatorria aztertuz, nazioarteko trafikoa hartzen du guztiaren % 72,3. Gasteizko aireportuari dagokionez, atzerriko herrialdeekin trukaturako kargak terminaleko fluxuaren % 72,4 hartzen du. Bilboren kasuan, salgaien nazioarteko trafikoa guztizkoaren % 71,4 izan zen. Azkenik, Donostiako aireportuan ez zen izan salgaien nazioarteko trafikorik 2018an.

5.6. grafikoa Salgaien nazioarteko trafikoa, eremu geografikoen arabera. 2018 (%).



¹ EB-28, Errusiako Federazioa, Norvegia, Serbia eta Montenegro, Suitza, Turkia, Ukraina eta Bielorrusia.

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa (AENA).

Garraiatutako eremu geografikoei erreparaturaz, Europa da nagusi gainerako lurraldeen gainetik (Euskadira edo Euskaditik bidalitako salgaien % 99,8). Gainerako trukeei dagokienez, % 0,2 Afrikarekin eta % 0,01 Amerikarekin izan ziren. 2018an, EAEko aireportuetako bazkide komertzial garrantzitsuenak Alemania eta Espainia izan ziren: % 36,6 eta % 27,7, hurrenez hurren. Atzetik dituzte Portugal (% 13,2), Belgika (% 11) eta Erresuma Batua (% 5,6). Bost herrialde horiek hartzen dute EAEko salgaien aireko garraioaren % 94,1.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa**
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



6

Itsaso Bidezko Garraioa

6. Itsasoko garraioa

6.1. Itsasoko garraioaren eskaintza Euskadin

Euskadiko itsas sistema Anavas (Asociación de Navieros Vascos) elkarteko merkataritza-ontzidiak osatzen du. 2018. urtean, elkarte horretan sartuta zeuden 13 ontzi-enpresa, eta enpresa horiek, guztira, 87 ontzi zituzten, aurreko urtean bezala. Guztizko karga-bolumenak % +10,7ko aldakuntza izan du 2017. urtearekiko: kopuru absolututan, 752,8 mila tona gordin dira horiek. Pisu hila % 12,2 hazi zen 2018an, eta horrenbestez, 1,2 miloi tona pisu hil baino gehiago izan ziren.

6.1. taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren ezaugarriak. 1995-2018

Urtea ³	Enpresen kopurua	Itsasontzien kopurua	TG ¹	PHT ²
1995	13	62	344.397	577.850
2000	11	56	328.937	543.033
2001	10	52	322.295	519.898
2002	12	53	321.193	532.790
2003	12	55	332.021	546.588
2004	11	50	455.803	796.813
2005	11	67	524.523	917.116
2006	11	71	542.901	938.900
2007	14	68	535.720	927.707
2008	14	80	574.292	970.421
2009	13	73	393.275	631.405
2010	13	69	365.719	590.947
2011	12	66	396.280	663.302
2012	12	65	396.128	663.013
2013	11	55	336.059	592.931
2014	11	54	331.535	584.104
2015	11	54	332.746	585.042
2016	13	57	349.645	607.848
2017	13	87	679.769	1.110.279
2018	13	87	752.809	1.245.610

¹ Tona gordin.

² Pisu hilaren tonak.

³ "n+1" urtearen urtarilaren 1eko datuak.

Iturria: Anavas.

Ontzien tipologiari dagokionez, aldaketa txikiak izan dira aurreko urtearekin alderatuta. Atoiontzien eta barne-zirkulazioko itsasontziek osatzen dute ontzidiaren talderik ugariena. 31 ontzi dituzte (2017. urtean baino ontzi bat gutxiago) eta guztizkoaren % 35,6 dira. P.G.L. (Petrolio-gas likidotuak) garraiatzeko ontziak daude atzetik: 30 unitate daude (2017an 31 ziren) eta guztizkoaren % 34,5 biltzen dute. Haien atzetik daude Bulk Carrier motakoak eta edukiontzia garraiatzeko itsasontziak (12 unitate; guztizkoaren % 13,8); tanke-ontziak, 2 unitate gehiago baitituzte (guztizkoaren % 12,6) eta, azkenik, hozkailu-ontziak (3 ontzi, ontzidi osoaren % 3,4).

Euskal merkataritza-ontzidiaren batez besteko adina 11 urtekoa da, Espainiako pabiloi osoaren adinaren azpitik, 16,8 urtekoa¹⁹ baita, eta munduko ontzidiaren adinaren azpitik, batez bestean 18,3 urtekoa baita.

¹⁹ 2018ko urtarilaren 1ean

6.2. taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren tipologia. 2015-2018


Ontzi mota	Itsasontzien kopurua			
	2015	2016	2017	2018
Atoiontzia eta barne-trafikoak	33	32	32	31
Tanke-ontzia	6	6	9	11
P.G.L. (Petrolio-gas likidotuak)	2	2	31	30
Bulk Carrier motako ontziak eta edukiontziak garraiatzekoak	11	14	12	12
Hozkailu-ontziak	2	2	3	3
GUZTIRA	54	57	87	87

Iturria: Anavas.

6.2. Pertsonen mugikortasuna Euskadiko itsasoko garraioan

Bilboko Portua, EAEko itsasoko azpiegituraren baitan, bidaiarien itsas zirkulazio erregularra duen interes orokorreko portutzat jotzen da. Izan ere, Pasaiaiko Portua salgaien trafikoan egiten du lan soilik.

6.1. grafikoa Bidaiarien zirkulazioa Bilboko Portuan. 2003-2018



Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak (Linea erregularra eta Gurutzontziak).

Bilboko Portu Agintaritzak emandako informazioaren arabera, Bizkaiko Portuan bidaiarien kopurua % 7,6 handitu da 2017. urtearekin alderatuta; hau da, 200,6 mila pertsona baino gehiago mugitu zituen, zifra errekorra Bilboko Portuarentzat.

Bilboren eta Britainia Handiko Portsmoutheko portuaren arteko linea erregularren zerbitzuak 114,2 mila bidaiari garraiatu ditu; kopuru erlatibotan, pasa den urtearekin alderatuta, % 11,6 hazi da. Ontziratutako pertsona kopuruaren (% +13,3) nahiz lehorreratutako bidaiarien kopuruaren (% +10) ugartizeak eragin du hazkunde hori.



6.3. taula Pertsonen itsas garraioa Bilboko Portuan. 2012-2018.

(Pertsona kop.)

Portua	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Linea erregularra	76.801	85.975	81.036	94.981	104.028	102.337	114.173	11,6
▪ Ontziratutakoak	39.038	42.957	40.455	47.171	51.703	49.322	55.864	13,3
▪ Lehorreratutakoak	37.763	43.018	40.581	47.810	52.325	53.015	58.309	10,0
Gurutzontziak	65.953	56.004	80.206	70.542	86.598	84.209	86.458	2,7
▪ Linearen hasiera	6.243	5.814	1.749	2.156	1.203	2.303	1.562	-32,2
▪ Linearen amaiera	6.394	5.866	1.728	1.877	2.503	3.959	1.629	-58,9
▪ Bidean	53.316	44.324	76.729	66.509	82.892	77.947	83.267	6,8
Guztira	142.754	141.979	161.242	165.523	190.626	186.546	200.631	7,6


Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

2018an, Getxora iritsitako 59 gurutzontzietan (2017. urtean baino 2 gutxiago) 86,5 mila pertsona garraiatu dira. Beraz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gurutzontzietako bidaiarien kopurua % 2,7 handitu da, bidean dauden turistaren ugartzearen ondorioz (2017an baino % +6,8). Ekitaldiaren amaieran, 83,3 mila bidaiari izan ziren.

6.3. Salgaien itsas zirkulazioa Euskadin

Euskadiko bi merkataritza-portu nagusien, Bilbokoaren eta Pasaikoaren, zirkulazioa aintzat hartzen badugu, jarduera % 4,3 handitu da. Beraz, euskal portuetan 38,8 milioi tona salgai baino gehiago trukatu dira.

6.2. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiko portuetan. 1980-2018 bilakaera.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiko Portuko Agintaritza.

Zehazki, Bilboko Portuko salgaien zirkulazioa 35,7 milioi tonakoa izan zen. Kopuru erlatiboetan, aurreko urtearekin alderatuta, % 4ko hobekuntza izan zen.

Estatuko portu-azpiegituren sailkapenean Bilboko Portua laugarrena da, Cartagenaren aurretik (33,8 milioi tona). Estatuko portuen lehen hiru postuetan daude Algeciras (107,9 milioi tona), Valentzia (76,6 milioi tona) eta Bartzelona (67,9 milioi tona). Hala, Bizkaiko portu-instalazioak bere lehiakortasunari eusten dio Estatuko portu-egituran % 6,3ko parte-hartzearen bidez.



6.3. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan. 1985-2018 bilakaera.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Bizkaiko portuaren mugimendu-tipologiari erreparaturik, deskargatutako salgaien zirkulazioak % 3,1 egin du gora; hau da, kopuru absolututan, 22,3 milioi tonako zirkulazioa izan da. 13,3 milioi tona produktu kargatu dira, aurreko urtearekin alderatuta, % 5,6ko hobekuntza izan da beraz. Hala, Bilboko portu-jardueraren % 62,5 deskargen bolumenak biltzen du, eta % 37,2, berriz, zamatutako produktuek.

Azkenik, hornidurak eta tokiko trafikoak portuko jardueran gutxieneko parte-hartzea dute: lehenak % 0,3koa, eta bigarrenak ez du pisu adierazgarririk.

6.4. taula Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, mugimenduaren arabera. 2014-2018.

Kontzeptua	Bilbo					Pasaia				
	2014	2015	2016	2017	2018	2014	2015	2016	2017	2018
Deskargak	19.421,2	20.464,3	19.766,1	21.637,3	22.314,2	1.990,3	2.316,1	1.947,6	1.664,2	1.733,2
Kargak	11.399,2	11.935,6	12.182,6	12.567,7	13.269,3	1.461,9	1.422,4	1.446,2	1.255,5	1.355,4
Tokiko zirkulazioa	60,6	359,0	0,9	0,0	0,2	--	--	--	--	--
Hornidurak	126,4	115,9	109,4	111,7	111,7	28,3	31,6	33,3	29,1	25,1
Arrantza	--	--	--	--	--	22,7	23,2	27,6	26,0	24,6
Guztira	31.007,4	32.874,7	32.067,3	34.306,7	35.695,4	3.503,2	3.793,4	3.454,7	2.974,8	3.138,3

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Bilboko Portuan trukaturako produktuen kategoriak aztertuz, erreparatu da talde guztiek aldakuntza positiboa izan zutela 2018an. Zehazki, salgai likidoak % 3,6 ugaitu dira 2017. urtearekin alderatuta (% +0,8 petrolio-produktuak, % +8,4 gas naturala eta % +26,2 beste salgai likido batzuk). Produktu taldeek Bizkaiko portuko salgaien zirkulazioan zer parte-hartze duten kontuan izanda, hauteman da truke guztien % 57,4 salgai likidoei dagozkiena (% 45,9 petrolio-produktuak, % 6,0 gas naturala eta % 5,5 beste salgai likido batzuk); % 29,0 salgaiei oro har; eta % 13,3 salgai solidoei.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

6.5. taula Bilboko eta Pasaiaiko portuetako zirkulazioa, produktu motaren arabera. 2015-2018.

(Tonak, milakotan)

Kontzeptua	Bilbo				Pasaia			
	2015	2016	2017	2018	2015	2016	2017	2018
Salgai likidoak	18.199,8	18.087,2	19.783,8	20.490,5	--	--	--	
Petrolio-produktuak	15.319,1	15.614,7	16.236,4	16.367,3	--	--	--	
Gas naturala	1.206,3	1.178,2	1.989,0	2.156,1	--	--	--	
Beste salgai likido batzuk	1.674,4	1.294,4	1.558,5	1.967,2	--	--	--	
Salgai solidoak	4.528,2	4.362,1	4.543,2	4.757,9	1.694,3	1.099,2	834,4	1.003,0
Salgaiak oro har	9.671,8	9.499,5	9.868,0	10.335,1	2.044,2	2.294,7	2.085,3	2.085,6
Edukiontzietan	6.462,6	6.373,0	6.464,6	6.807,7	--	--	--	--
Beste salgai batzuk oro har	3.209,2	3.126,5	3.403,4	3.527,4	--	--	--	--
Gainerakoak	474,9	118,5	111,7	111,9	54,9	60,8	55,1	49,7
Guztira	32.874,8	32.067,3	34.306,7	35.695,4	3.793,4	3.454,7	2.974,8	3.138,3


Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Bilboko Portuan jatorria eta/edo helmuga duten salgaien zirkulazioaren esparru geografikoa aztertuz, Europa Atlantikoa da merkatu nagusia, zirkulazioaren % 32 xurgatzen baitu. Herrialdeak aztertzen baditugu, Erresuma Batua da oraindik Bizkaiko Portuaren merkataritza-bazkide garrantzitsuena, 3,7 milioi tona elkar trukatzeko baitzituzten, nahiz eta 2017. urtearekin alderatuta % 19,5eko beherakada izan. Hala, herrialde anglosaxoiaren parte-hartzea jaitsi egin da, Bizkaiko guztizko itsas zirkulazioaren % 10,4koa izateraino. Bigarren postuan Espainia dago. 2018an, salgaien fluxua % 26,2 handitu zen. Hala, guztizko zirkulazioan % 6,8ko pisua du.

Azterketa ozeanoz bestaldeko salgaietara hedatuz, azpimarragarria da bigarren eremu geografikoa, portuarekin trukatzeko diren salgaien bolumenari dagokionez, Ipar Amerika dela: zirkulazio osoaren % 17,3 metatzen du. Herrialde bakoitza aztertuz gero, Estatu Batuak bigarren postura itzuli dira portuaren bazkide gisa. 2018an trukaturako salgaien kopurua % 22,9 handitu zen, eta guztizko zirkulazioaren % 8,2ko parte-hartzea izan zuen. Hirugarren postuan dago Mexiko, 2,8 milioi tona trukatu baititu (2017arekin alderatuta, % +11,8). Hau da, Bilboko Portuaren salgai-fluxuaren % 7,9.



6.4. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan: Salgaien tipologia. 2018 (%)



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Bestalde, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak argitaratutako informazioaren arabera, 2018an portuko merkataritza-jarduera hedatu egin zen. 2017. urtearekin alderatuta, salgaien zirkulazioa % 5,5 handitu zen, eta horri esker, guztira 3,1 milioi tonako bolumena manipulatu ahal izan da.


Lehorreratutako salgaien ugartzeak (% +4,1) nahiz kargatzearen ugartzeak (% +8,0) eragin dute Pasaiaiko itsas negozioaren bolumenaren handitzea. Bilakaera hori dela eta, Pasaiaiko Portuak gutxiago inportatu du. Inportazioak guztizko zirkulazioaren % 55,2 dira, eta pleitatutako salgaiak, % 43,2.

Pasaiaiko Portuko salgaien zirkulazioa, funtsean, bi kategoriez osatuta dago: salgaiak oro har eta salgai solidoak (% 66,5 eta % 32, hurrenez hurren), eta biek batera zirkulazio osoaren % 98,5 biltzen dute.

2018an, garraiatutako salgai solidoen fluxua handitu egin zen (% +20,2), eta salgai orokorren kantitateak bere horretan jarraitu zuen.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraio-bide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

6.5. grafikoa Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, herrialdearen arabera. 2018.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Pasaiaiko Portuaren merkatu nagusiei dagokienez, lehen postuan Erresuma Batua dago, guztizko trukeen % 22,6ko parte-hartzearekin. Herrialde anglosaxoiak, funtsean, esportazio-jarduera egiten du, eta trukaturako produktuen % 82 biltzen du. Bigarrena Belgika da oraindik, guztizko kantitatearen % 14,2 bilduz; eta hirugarrena, Suedia, portuko guztizko zirkulazioaren % 8,8ko pisuarekin, eta funtsean, herrialde horretatik inportaturako produktuak izaten dira (% 97,9).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

6.6. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan. 1990-2018 bilakaera.




Iturria: Eusko Jaurlaritza

Bermeoko Portuan, erregistratutako salgaien zirkulazioa 239,7 mila tonakoa da, hau da, kopuru erlatibotan, 2017. urtearekin alderatuta % 8,9ko jaitsiera izan zuela adierazten du.

Eragiketen jatorriari dagokionez, azpimarragarria da kargatutako salgaiak % 25,2 murriztu direla; hau da, kargatzen kopurua jaitsi egin da 99,6 mila tonakoa izateraino, eta lehorreratutako bolumenak % 8,7 egin du gora, 139,4 mila tonakoa izateraino. Azpimarratu behar da Bermeoko Portua esportatzaile peto-petoa izan zela 2018an, lehorreratutako produktuen bolumenak azpiegitura horren guztizko jardueraren % 58,2 bildu baitzuen.

6.7. grafikoa Salgaien zirkulazioa Bermeoko Portuan: Salgaien tipologia. 2018. (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Bermeoko Portuan trukaturako produktuen sailkapenari dagokionez, portuaren zirkulazioan pisu handiena siderurgia-produktuek biltzen dute, hala nola metalezko plakek eta bobinek, portuko mugimendu osoaren % 54 biltzen baitute. Bigarren postuan zuraren, oholen eta taulen merkataritza daude, guztizko bolumenaren % 19,2 biltzen baitute. Atzetik dago produktu kimikoen zirkulazioa, zehazki ongarriena, hala nola sodio sulfatoa, soda kaustikoa eta potasa, 2018an portuko jarduera osoaren % 17,1 bildu baitzuten.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



**Beste
Garraiobide
Batzuk eta
Intermodalitatea**

7. Beste Garraiobide Batzuk eta Intermodalitatea

7.1. Beste garraiobide batzuk

7.1.1. Kable bidezko garraioa

Ondoko lerroetan, Euskadiko hodi bidezko garraioaren alderdirik esanguratsuenak azalduko dira. Pertsonak soilik erabiltzekoa den kable bidezko garraioa Artxanda, Larreineta eta Igeldoko funikularrez eta Arangoiti, La Salve, Solokoetxe, Begoña eta Ereagako igogailuez osatua dago. Guztiak Bizkaian daude, Igeldoko funikularra izan ezik, Donostian baitago.

7.1. taula EAEko funikularren azpiegituren ezaugarriak.

	Igeldoko f.	Artxandako f.	Larreinetako f.	Mamarigako f.
Bidaiari kopurua ibilgailuko	65	70	70	45
Ibilbidearen iraupena	3,2 min	3,18 min	10 min	1,6 min
Abiadura linean	1,5 m/s	5 m/s	2 m/s	6 m/s
Desnibela	151 m	226,49 m	342 m	44,43 m
Batez besteko malda	% 45	% 22,9	% 35	% 12,6

Iturria: Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS).

Aipatzekoa da modu independentean baloratu behar dela kable bidezko bi garraio-sistemen bilakaera jarraitua; izan ere, Solokoetxe eta Begoñako igogailuetarako ez dago nahikoa informazio (Begoñako igogailuak 2014ko uztailan utzi zion zerbitzua eskaintzeari) eta horrek aurreko urteekin datuak alderatzea eragozten du.

Funikularrei dagokienez, informazioa dugun kasuak kontuan hartuta, % 5,5eko hazkundera izan dute garraiatutako pertsonen kopuruan, 2017ko datuekin alderatuta. Azpimarragarria da funikular guztien bidaiari kopuruak hobekuntzak erregistratu zituztela. Artxandako funikularreko % 12,3ko hazkunderarekin, eta Mamarigako funikularreko % 3,6 hazkunderarekin, bidaiari kopuruak hazi ziren gehien.



7.2. taula Pertsonen kable bidezko garraioa. 2012-2018.

(bidaiariak, milakotan)

Modua	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Artxandako funikularra	522	565	614	729	773	830	932	12,3
Larreinetako funikularra	156	156	146	165	149	139	140	0,7
Igeldoko funikularra	415	420	482	564	706	775	788	1,7
Mamarigako funikularra ¹	679	821	1.015	590	975	1.036	1.073	3,6
FUNIKULARRAK GUZTIRA	1.772	1.962	2.257	2.048	2.603	2.780	2.933	5,5
Arangoitiko igogailua ²	--	--	--	--	--	--	--	--
Salveko igogailua ³	--	--	--	--	--	--	--	--
Solokoetxeko igogailua ⁴	586	--	--	--	--	--	--	--
Begoñako igogailua ⁴	388	--	--	--	--	--	--	--
Ereagako igogailua	274	312	345	362	363	359	358	-0,3
GUZTIRA IGOGAILUAK⁵	1.248	312	345	362	363	359	358	-0,3
GUZTIRA⁵	3.020	2.274	2.602	2.410	2.966	3.139	3.291	4,8

¹ Mamarigako funikularra 2010eko irailean zabaldu zen, eta horrenbestez, urte horretako datuak irailetik abendura bitartekoak dira. 2013ko ekainetik aurrera doakoa da metroaren erabiltzaileentzat.

² 2008az geroztik, ez dugu Arangoitiko igogailuari buruzko daturik. Igogailu hori geldirik dago 2010eko abendutik.

³ La Salveko igogailua doakoa da 2008ko maiatzaren 1etik, eta pertsona kopurua zenbatzeari utzi diote.

⁴ 2013an eta 2014an, Solokoetxe eta Begoñako igogailuei buruzko datuak ez daude eskura. Begoñako igogailuak 2014ko uztailean utzi zion zerbitzua eskaintzeari.

⁵ Ez dira sartu ez Arangoitiko, ez La Salveko, ez Solokoetxeko, ez Begoñako igogailuen datuak, ez baitaude eskuragarri.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa; Eusko Jaurlaritzak; EuskoTren, eta Artxandako funikularra.

Igogailuetako bidaiarien bilakaerari dagokionez, 2013. urtetik Ereaga igogailurako informazioa soilik dugu. Gainerako igogailuei dagokionez, Arangoitiko igogailuak geldirik jarraitzen du 2010eko abendutik, La Salveko igogailua doakoa izatera pasatu zen 2008an; beraz, data horretatik ez du erabiltzaileen erregistrorik; Begoñako igogailuak 2014ko uztailean utzi zion zerbitzuak eskaintzeari eta ez da lehen seihilekoko informaziorik. Solokoetxeko igogailuaren kasuan berriz, ez da ekitaldi honetarako datu publikorik. Horren ondorioz, Ereagako igogailuaren bidaiarien kopuruak % 0,3ko beherakada arina izan zuen 2018. urtean.

7.1.2. Bizikleta


EAEko bide-sistemako bizikletaz ibiltzeko sareak ingurumena kaltetzen ez duen garraiobide bat sustatzea eta mugikortasun jasangarria sustatzea du helburu. Horren haritik, foru-aldundiak eta udaletxeak lan handia egiten ari dira, hiru lurraldeetan, azpiegitura horiek garatzeko, bat etorritik gero eta herritar gehiagok duten kezkarerkin: ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den gizartea lortu beharra.

Hiru euskal hiriburuen bizikleta-sareari dagokionez, Gasteizek du luzera handieneko bizikleta-bideen sarea hirigunean: 145 km zituen gaituta 2018an, aurreko ekitaldian bezala. Gasteizen atzetik, Donostia dago. Eskura izandako azken informazioaren arabera, 2017an 56,5 kilometro bidegorri zituen (prestatutako bideen % 1,4ko igoera, 2016. urtearekin alderatuta). Azkenik, Bilbok 32 kilometro bidegorri zituen prestatuta 2017an (%2,2 gehiago 2016ko ekitaldian baino).

2018an prestatutako bidegorriak planifikatutako sarearen % 78 ziren, Gasteizen kasuan (186 kilometro aurreikusita). 2017an, eskura izan dugun azken datua, Donostian % 71koa izatera iritsi zen (planifikatutako 80 km) eta % 33,7koa Bilbon (aurreikusitako 95 kilometro).



7.1. grafikoa Bizikleta-sarearen kilometro-kopurua EAEko hiru hiriburuetan (bizikleta-sareen egoera 2018ko abenduan)



¹ 2017koa da eskura dugun azken datua. Euskadin Garraioaren PanoramiKa lanaren edizio hau amaitzear zegoenean, ez zen datu eguneratuagorik eskura.

Iturria: Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.


Azterketa zabalduz gero, EAE osoan bidegorri-sare osoak ia 767 kilometro zituen 2017an (eskura izandako azken datua). 2018an Gipuzkoan prestatutako tarreek 221,6 kilometro zituzten guztira; % 2,7 handitu ziren. Eskura izan dugun azken datuaren arabera, Bizkaiak ditu biderik luzeenak: 2017an 328 kilometro bidegorri zeuden eginda; urtetik urtera % 4,5 hazi ziren. Arabako bizikletaz ibiltzeko bide-sareak, berriz, 2011n²⁰ 222,2 kilometro zituen, eta kilometro horietatik 103 km Gasteizko txirindulariek soilik erabiltzen zituzten.

²⁰ Euskadin Garraioaren PanoramiKa lanaren edizio hau amaitzear zegoenean, ez zen datu eguneratuagorik eskura.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

7.2. grafikoa Bizikleta-sarearen kilometroak hiru lurralde historikoetan. 2018

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk**
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



■ Guztira ■ Egokitutakoak ■ Abian direnak ■ Planifikatutakoak

¹ 2011koa da eskura dugun azken datua. Euskadin Garraioaren Panoramiak lanaren edizio hau amaitzeaz zegoenean, ez zen datu eguneratugorik eskura.

Arabako ibilbide berdeen 119,195 kilometroak ere sartuta daude.

² Aurreikusitako sare osoaren eta egindako zatien mapako datuak Oinarrizko Foru Sarearen eta Oinarrizko Tokiko Sarearen batura dira. Gipuzkoako Foru Aldundia


³ 2011koa da eskura dugun azken datua. Euskadin Garraioaren Panoramiak lanaren edizio hau amaitzeaz zegoenean, ez zen datu eguneratuagorik eskura.

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

7.1.3. Bizkaiko Zubi Esekia

Azken hamarkadan, Bilboko Metroko zerbitzuak ezkerreko udalerrietara pixkanaka hedatzeak Bilboko itsasadarra gurutzatzeko Bizkaiko Zubi Esekia erabiltzen duten pertsona kopuruak behera egitea eragin du. 2018an 3.480 mila bidaiarik erabili zuten ehun urtetik gorako azpiegitura, eta kopuru erlatiboetan, % 2,4ko hobekuntza izan zen 2017. urtearekin alderatuta. Bilakaera aztertuz, pasa den hamarkada hasi zenetik (2001), 2,5 milioi pertsonak utzi diote Bizkaiko itsasadarra zeharkatzeko Bizkaiko Zubi Esekia erabiltzeari.

7.3. grafikoa Bizkaia Zubiko zirkulazioa. 2001-2018.



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa .

7.1.4. Bilboko Itsasadarreko bidaiariontzia

2017ko ekitaldiari dagozkion txalupen zirkulazioari buruz eskura dauden azken datuen arabera, Portugalete eta Areeta artean itsasadarra zeharkatzen duten txalupen joan-etorriak % 2,4 murriztu ziren; balio absolutuetan, 11,3 mila bidaiari gutxiago izan ziren 2016an baino.

7.3. taula Bidaiariontzien zirkulazioa. 2008-2017.

	(bidaiariak, milakotan)											
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Urteko % Δ 16/15	Urteko % Δ 17/16
Portugalete-Areeta	550,7	554,8	579,4	619,9	620,5	514,9	486,7	415,8	477,0	465,7	14,7%	-2,4%
Erandio-Barakaldo	--	74,8	76,8	86,3	81,6	75,9	78,9	72,0	57,7	19,2	-19,8%	-66,7%
GUZTIRA	550,7	629,5	656,1	706,2	702,1	590,8	565,6	487,8	534,7	484,9	9,6%	-9,3%

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Eskura dauden 2017ko azken datuen arabera, Erandio eta Barakaldo artean itsasadarra zeharkatzen duten txalupetako erabiltzaileen kopurua nabarmen murriztu da, 2016. urtearekin alderatuta % 66,7. Kopuru absolutuetan, 19,2 mila pertsona lekualdatu ziren 2017an, gutxieneko kopurua 2009tik.



7.2. Logistika-plataformak eta plataforma intermodalak

Logistika-zentroek salgaien garraioaren kudeaketan irtenbide integralak ematen dituzte. Euskadin hauek daude: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Arasur, Araban; Aparkabisa, Bizkaian; eta Zaisa, Gipuzkoan. Ezaugarri nagusi hauek dituzte:

7.4. taula EAEko logistika-plataforma handien magnitude nagusiak. 2018

2018	Instalatutako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak Furgonetak	Ibilgailu indust. zirkulazioa aparkaleku-kopurua	Ibilgailu indust. zirkulazioa aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu indust. zirkulazioa aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira
	CTVi	67	1.547	---	1.176 498	1	23.821	182
arasur	12	130	420.000	130 75	1	20.000	197	35%
apar kabisa	55	45	4.064	1.609 309	4	192.050	1.235	95%
ZAISA	143	1.745	3.200.000	1.800 3.000	2	45.000	375	88,9%

Iturria: Aparkabisa, Arasur, Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Zaisa logistika-plataformak.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

7.2.1. Gasteizko Garraiobideak (CTVi)

Gasteizko Garraio Zentroa Jundizko industrialdean dago, Gasteiztik hurbil, eta eragile dinamizatzailea da: logistika-jarduerak egiteko asmoa duten enpresak sustatzea du helburu. Plataforma horrek 718.141 m²-ko azalera du guztira, eta horietatik, 238.929 m² nabeek hartzen duten azalera da, eraikitako azalera, alegia. Nabeetan garraioarekin eta logistikarekin zerikusi zuzena duten jarduerak egiten dira: biltegitratzea, banaketa, aduanak eta stockak kudeatzea, zama zatitzea eta finkatzea, eta garraio motaz aldatzea.

Horren haritik, honela banatuta dago jarduera horiek egiteko azalera: garraio motaz aldatzeko jardueretarako (tren bidezko garraiotik errepide bidezkoa eta alderantziz) azalera 122.587 m²-koa da, banaketa-jardueretarako, 110.336 m²-koa, eta biltegitratze-eta garraio-jardueretarako, berriz, 109.312 m²-koa. Logistika-jarduerarako azalera 190.441 m²-koa da, zerbitzuen zonak 28.214 m² hartzen ditu, eta ibilgailu industrialentzako aparkalekurako azalera, berriz, 23.821 m²-koa da.

7.5. taula Gasteizko Garraio Zentroaren jardueraren bilakaera. 2016-2018

	Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko	Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuaren azalera, guztira (m ²)	Ibilgailu industrialentzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira	
2016	70	1.474		1.040	430			84,1%	
2017	69	1.551	---	1.118	501	1	23.821	182	96,7%
2018	67	1.547		1.176	498				98,9%

Iturria: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

Zentroaren jarduerari dagokionez, garrantzitsua da adieraztea ez dagoela daturik plataformak 2014. urtetik aurrera erabilitako salgaiei buruz, trenbide-zirkulaziorako lur-zati intermodala kudeatzen zuten enpresaren jarduera-ezaren ondorioz.

2018an zentroan kokaturako enpresak gutxitu egin ziren (2 konpainia gutxiago; hau da, % -2,9). Horrenbestez, enpleguak % 0,3ko beherakada arina izan zuen (4 langile gutxiago). Industria-ibilgailuen zirkulazioak % 3,4 egin zuen gora, batez ere, kamioien zirkulazioa handitzearen ondorioz (% +5,2). Ibilgailu industrialen aparkalekuaren erabilera ehuneko 2,2 puntu ugaritu zen, erabilgarri dauden 182 plazen % 98,9 betetzea lortu zen.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

7.2.2. Arasur

Arasur plataforma logistiko multimodala Miranda de Ebrotik hurbil dago, 1.500.000 m² lur urbanizagarriz osatutako eremua da eta 85.000 m² inguru ditu urbanizatuta. Honako alor hauetan jarduten du, batez ere: portuetako eta aireko jardueri laguntzeko arloan, biltegitratzean, arautzean eta banatzean, garraio-mota batetik besterako aldaketan, flotisten garraioan, nazioarteko zirkulazioan, eta administrazio- eta merkataritza-zentroari dagozkion jardueretan. Plataformak zentroko nabeetara trenez sartzeko zerbitzua du eta, beraz, salgaiak trenen eta kamioien artean alda daitezke.

7.6. taula Arasurreko jardueraren bilakaera. 2016-2018



Iturria: Arasur.

2018an logistika-plataformaren jarduerak hedatze handia erregistratu zuen bertan kokatutako enpresei dagokienez. Beste 4 konpainia (% +50) instalatu ziren eta enpleguak % 30 egin zuen gora (30 enplegatu gehiago). Salgaien zirkulazioak % 13,5eko igoera esanguratsua (+50 mila tona) izan zuen, bai eta industria-ibilgailuen zirkulazioak ere, bai kamioiei dagokienez (130 ibilgailu egunean, % +73,3), bai furgonetei dagokienez (25 ibilgailu gehiago egunean, % +50). Azkenik, aparkalekuaren batez besteko okupazioa % 35ekoa izan zen (% 2 puntu gehiago 2017an baino).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

7.2.3. Aparkabisa

Aparkabisa -Bizkaiko Garraio Gunea zentro logistikoaren jardueraren xedea da salgaiez eta ibilgailu industrialen aparkalekuz osatutako zentralak sustatzea, prestatzea eta ustiatzea. Azpiegitura oso ongi komunikatuta dago Bilboko portuan dituen instalazioei esker. Gainera, Loiu aireportutik gertu dago, bai eta Espainiako estatua Europarekin lotzen duten errepede-eta tren-sare nagusietatik gertu ere.

Gaur egun, Aparkabisak bi eremutan jarduten du: Ugarteko garraio-zentroan (Barakaldo eta Trapagaran artean dago, eta 200.000 m²-ko azalera eraikia hartzen du) eta Zierbenan (Bilboko portuaren lurretan dago eta 112.560 m²-ko azalera du).

7.7. taula Aparkabisako jardueraren bilakaera. 2016-2018



Iturria: Aparkabisa. Bizkaiko Garraio Gunea, A.B. - Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.

2018rako plataformari buruz eskura zeuden datuen arabera, enpresa kopurua 55 sozietatekoa da oraindik. Salgaien zirkulazioa % 38 handitu da, 4.000 tona baino gehiago mobilizatuz. Furgonetan zirkulazioari dagokionez, % 9,1 uzkurto da (31 ibilgailu gutxiago egunean). Azkenik, aparkaleku industrialen batez besteko okupazioa aurreko urteetakoaren parekoa izan da (% 95).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

7.2.4. Zaisa

Zaisa (Irungo Garraio Zentroa) Gipuzkoako logistika-zentroa da eta Europako errepedeko zirkulazioaren leku estrategiko batean dago, Frantziaren eta Espainiaren arteko mugan, A-8 eta A-68 autobideen ondoan, Madril eta Paris arteko ardatzean; gainera, Donostiako eta Biarrizko aireportuetatik gertu dago, eta Pasaiako portutik hurbil. 400.000 m² hartzen ditu zentroak, eta 126.608 m² eraikitako azalera da, garraio-eta logistika-jarduerak egiteko. Jakina, non kokatuta dagoen ikusita, nazioarteko garraioa eta logistika dira nagusi. Biltegitzeko nabeetarako 8.500 m², bulego eta lokal komertzialetarako 7.000 m², harrera-zentroa eta ZAISA III-ko gasolina-zerbitzugunearen orubea ditu plataformak. Instalazio horietan jarduten duten enpresek hainbat jarduera egiten dituzte: garraio nazionala eta nazioarteko garraioa, karga zatitua, karga osoa, salgai arriskutsuen garraioa, logistika eta biltegitzea, hozkailu-ibilgailuen bidezko banaketa eta aduanetako jarduerak.

7.8. taula ZAISAren jardueraren bilakaera. 2016-2018



Iturria: Zaisa

Plataforman lan egiten duten enpresen kopuruak % 3,6 egin du gora (5 konpainia gehiago), eta enpleguak % 1,5 egin zuen hobera 2017. urtearekin alderatuta. 1.745 langile kontratatu ziren. Mobilizatutako salgaien bolumena aurreko ekitaldikoaren parekoa izan zen, 3,2 milioi tona.

Kamioien zirkulazioa % 1,7 handitu zen 2018. urtean, egunean 1.800 kamioi ibili ziren. Furgonetan zirkulazioari dagokionez, egunean 3.000 ibilgailu izaten jarraitu zuen, 2017an bezala.

Bestalde, zentroaren aparkalekuak 3 handitze-fase izan ditu. Hala, gaur egun, Zaisak ibilgailu industrialentzat egokitutako bi aparkaleku ditu. 375 plaza dituzte 45.400 m²-ko azalera batean. Aparkaleku horien batez besteko okupazioa % 88,9koa izan zen; hau da, ehuneko 0,5 puntu muriztu zen 2017. urtearekin alderatuta.

7.2.5. Geltoki intermodalak

Eusko Jaurlaritzak trenbide bidezko salgaien garraioaren garapena laguntzea du xede. 2011n lankidetzeta-protokolo bat sinatu zuen Sustapen Ministerioarekin Jundizko (Araba) eta Lezoko

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

(Gipuzkoa) terminal logistiko intermodalak garatzeko. Biak Sustapen Ministerioak Salgaien Trenbide Garraioa Sustatzeko Plan Estrategikoko terminal logistiko intermodalen oinarritzko sarean sartuta daude.

2018an Erdialdeko Arabako Lurralde Plana aldatzeko dekretua onartu zen, esparru horretan proiektatutako Jundiz-Villodaseko Salgaien Transferentziarako Terminal Intermodala kokatzea aztertzeko. Dekretuaren helburua da azpiegitura hori Iruña Oka eta Gasteiz udalerrien lurretan kokatuko dela berariaz aintzat hartzea. Aldaketak 45 hektarea inguruko azalerari eragingo lioke, eta esparru hori "lurraldea eraldatzeko lurzorutzat" kalifikatu zuen, kontuan izanda proiektuaren ingurumen- eta gizarte-bateragarritasuna.

2017an Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko exekutiboaren arteko aurrekontu-hitzarmena sinatu zen, Estatuko aurrekontuei buruzkoa. Hitzarmenak bere baitan hartzen du plataforma intermodalaren proiektua sustatzea, trenbide-azpiegituren eta inbertsioen esparruan. Zehazki, sinatutako hitzarmenak ezartzen du plataforma multimodala "instalazio intermodal eta logistiko nagusietako bat dela, eta nazioarteko salgaien tokialdatzeko gako estrategiko bat. Bilboko Portuarekin, zentro logistikoekin eta Forondako aireportuarekin konektatuta egongo da". Horretarako, hitzarmenak bere baitan hartzen du 2018ko Aurrekontuetan 600.000 euroko hasierako partida bat. Partida horien helburua oinarritzko proiektua egitea eta plataformaren ustiapen-azterlana egitea izango da.

Pasaia-Irun plataforma logistikoari dagokionez, 2017an, aurrekontu-hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Gobernuaren artean, 2018an 450.000 euro inbertitzeko intermodalaren proiektuaren idazketan. Ondoko eraikuntza-garapenaren aurretiko urratsa da.





Garraio- Jarduerak Sortutako Ondorio eta Joera Nagusiak

8. Garraio-jarduerak sortutako ondorio eta joera nagusiak

8.1. Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Ondoren garraio-sektoreak pertsonen osasunean eta ingurumenean eragindako ondorioen alderdietako batzuk azalduko dira. Ondorio horiek direla eta, beharrezkoa da garraio-jarduera iraunkortasunaren ikuspegitik planifikatzea eta ahalik eta gehien murrizten saiatzea pertsonen mugikortasuna eta salgaien zirkulazioa errazten dituzten azpiegiturek, inputek, zerbitzuek eta prozesuek eragindako kostuak.

8.1.1. Istripuak

Ekartzen dituen kalteak eta gizartean eragiten dituen ondorioak direla eta, istripuak dira garraioaren arazo larrienetako bat. Horrekin lotuta, nabarmendu behar da “Bideko Segurtasuneko eta Mugigarritasun Seguru eta Iraunkorreko 2015-2020 Plan Estrategikoa” izeneko dokumentuak 2014an Euskadin bideko segurtasunaren eta mugigarritasun seguruaren eta iraunkorraren egoeraren inguruan egindako hausnarketa-prozesuaren emaitzak jasotzen eta ikuspegi estrategiko hau ezartzen duela:

“Euskadi mugigarritasun seguruaren eta iraunkorraren arloan erreferente bibeartzea bideko segurtasunari eta zirkulazioaren kudeaketari dagokienez eragingarriak diren estrategien bidez. Bertan, herritarrek portaera arduratsua dute eta erakunde publikoek, eragile pribatuekin elkarlanean, modu koordinatuan eta eragingarrian egiten dute lan zirkulazio-istripuen kopurua eta larritasuna gutxitzen”.


Istripuak

- 2018. urtean, 42²¹ pertsona hil ziren zirkulazio-istripuetan Euskadiko errepideetan, aurreko ekitaldian baino 3 hildako gehiago (% +7,7).

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2018an biktimadun 4.751 istripu izan ziren EAEn¹; beraz, % 2,4ko jaitsiera izan zen, eta 6.155 pertsona izan ziren kaltetuak (% -1,1 gutxiago 2017an baino). Lesioen irismenari dagokionez, zaurituen % 92,3 zauritu arinak izan ziren; % 7k lesio larriak izan zituen; eta % 0,7 istripuan bertan hil zen edo hurrengo 24 orduetan. Aurreko urtearekin alderatuta, zauritu larrien kopuruak (% -5,9) nahiz zauritu arinenak (% -0,7) behera egin du, baina hildakoenak gora (% +7,7).

²¹ Ertzaintzak eta Udaltzaingoak erregistratutako istripuak hartzen ditu aintzat, biktimak eragin dituztenak (2005era arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingoak adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuetakoak, Irungoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Basaurikoak; 2007 euskal hiriburuetakoak, Irungoak, Beasaingoak eta Basaurikoak; 2008 euskal hiriburuetakoak, Irungoak, Santurtzikoak eta Sestaokoak; 2009 euskal hiriburuetakoak, Irungoak, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak, Lezokoak eta Zarautzekoak; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuetakoak, Irungoak, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Zarautzekoak; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuetakoak, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Zarautzekoak; 2018 euskal hiriburuetakoak, Barakaldokoak eta Santurtzikoak). Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Istripuen Urtekari Estatistikoak.

8.1. grafikoa Ertzaintzak eta Udaltzaingoak¹ 2000 eta 2018 artean EAEko bide-azpiegituretan erregistratutako biktimadun istripuak eta biktimak.




¹ 2005 arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingoak adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi, Sestao eta Basauri; 2007 euskal hiriburuak, Irun, Beasain eta Basauri; 2008 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi eta Sestao; 2009 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao, Lezo eta Zarautz; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2018 euskal hiriburuak, Barakaldo eta Santurtzi.

Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

EB-28ko herrialdeekin alderaketa-analisi bat eginuz gero, 2016an (urte horretakoa da EBri buruzko azken informazio eskuragarria) Euskadi lehenengo postuan finkatzen da erkidegokoaren baitan bide-segurtasunari dagokionez, milioi bat biztanleko errepidean hildako kopuru txikiena erregistratu baitzuen (21 hildako). Atzetik ditu, distantzia batera, Suedia (27), Erresuma Batua (28), Herbehereak (31) eta distantzia handiagoa, Danimarka (37) eta Espainia (39). EB-28 osoaren batezbestekoa (50) kontuan hartuz gero, EAEkoa baino askoz handiagoa da.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

8.2. grafikoa Bide-istripuetan hildakoen kopurua milioi bat biztanleko EB-28n. 2016.



Iturria: EU Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2018 Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza; EIN.

Lurralde historiko bakoitza aztertzen badugu, Ertzaintzak soilik erregistratutako istripuak kontuan izanda, Arabak EAEko biktimadun istripuen % 16,2 erregistratu zituen. Lesioen larritasunari dagokionez, zirkulazio-istripuan hildakoen % 27 biltzen du, eta zauritu larriek dagokienez, EAEko guztizkoaren laurdena. Arabako biktimen % 14,2k zauri larriak ditu.

Bizkaiak biktimadun istripuen % 45,8 biltzen du; hau da, EAEn guztira lesionatutakoen % 46,8. Hildakoak Euskadiko guztizkoaren % 40,5 dira, eta zauritu larriak, berriz, % 31,1.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

8.1. taula Ertzaintzak erregistratutako biktimadun trafiko-istripuak, lurralde historikoaren arabera. 2018.

Lurraldea	Biktimadun istripuak		Biktimak							
			Guztira		Hildakoak		Zauritu larriak		Zauritu arinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Araba	422	16,2	603	16,9	10	27,0	75	25,0	518	16,0
Bizkaia	1.191	45,8	1.674	46,8	15	40,5	94	31,3	1.565	48,3
Gipuzkoa	988	38,0	1.299	36,3	12	32,4	131	43,7	1.156	35,7
EAE, guztira	2.601	100	3.576	100	37	100	300	100	3.239	100

Oharra: 24 ordu baino lehen hildakoak.


Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

Gipuzkoan, EAEn gertatutako biktimadun istripuen % 38 metatzen dira. Lesionatuak, euskal lurralde osoko lesionatuen % 36,3 dira. Gipuzkoako errepideetan hildakoak guztizko hildakoen % 32,4 dira. Zauritu larriak Euskadiko guztizkoaren % 43,7 dira.

8.1.2. Bide-pilaketa

Gauza jakina da ibilgailu pribatuen mugitzeko eskaria dela Euskadin bide-pilaketa sortzen duen faktoreetako bat. Horrez gainera, motorizazio-indizeak goranzko joera izan du 1990eko hamarkadaren amaieratik, urte zehatzetan beherakadak izan baditu ere. 2018an, motorizazio-maila 1.000 biztanleko 461,9 ibilgailu izateraino hazi zen, ibilgailu-parkea handitzearen ondorioz (2017. urtearekin alderatuta, % +1,2). Horrekin lotuta, gogoan izan behar da zenbat eta ibilgailu gehiago izan euskal errepideetan ibiltzen, orduan eta handiagoak direla bide-pilaketa arazoak.

8.3. grafikoa Turismo-parkea eta motorizazioa. 1998-2018 bilakaera.



Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN. GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).



Laburpen
Exekutiboa

Testuinguru
Orokorra

Bilakaera
Orokorra

Errepide
Bidezko
Garraioa

Tren
Bidezko
Garraioa

Aire
Bidezko
Garraioa

Itsaso
Bidezko
Garraioa

Beste
Garraibide
Batzuk

Ondorio eta
Joera
Nagusiak

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

Funtsezko
Adierazleak

Eranskinak

EAEn bideko pilaketen arazoak zein diren jakiteko, "Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan"²² (Bizkaiko Foru Aldundiak egina) eta "Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa"²³ (Gipuzkoako Foru Aldundiak egina) argitalpenetan jasotako informazioa aztertuko da.

Bizkaiari dagokionez, zirkulazio-ahalmen handiko bide-sarea kontrolatzeko zenbait gunetan eman den zerbitzu-mailaren arabera urtean banatu diren orduak hartu dira kontuan azterketa egiteko. Horri dagokionez, gogoratu behar da zerbitzu-maila A-tik F-ra bitartean sailkatu dugula: A-k ona adierazten du, eta F-k, berriz, pilaketa askokoa. Horrenbestez, azterketa honetan, E mailatik gora, errepidean pilaketak daudela ulertuko dugu.

Bizkaian, 2018an, aztertutako bideen % 1,56k E gisa katalogatutako zerbitzu-maila dute, eta % 0,23k, F gisa katalogatutako zerbitzu-maila; hau da, edukiera handiko bide-sareak funtzionamenduan emandako urteko ordu guztien % 1,79tan bide-pilaketako arazoak izan dira.

8.2. taula Funtzionamenduan emandako orduak, zerbitzu-mailaren arabera.

Gunea		Zerbitzu-maila							Orduak, guztira
		Errepidea	A	b	C	D	E	F	
21a1	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (BI-S)	A-8	3.095	1.135	2.290	2.217	22	1	8.760
21a2	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (S-BI)	A-8	3.338	1.135	2.267	1.803	215	1	8.760
45a1	Arrontegiko zubia (BI-Getxo)	N-637	3.363	1.451	2.286	1.485	149	26	8.760
45a2	Arrontegiko zubia (Getxo-BI)	N-6370	3.558	1.388	2.021	1.482	213	97	8.760
81a1	Erandio G. -Unibertsitate G. (BI-Getxo)	BI-637	4.661	1.618	1.826	626	28	1	8.760
81a2	Erandio G. -Unibertsitate G. (Getxo-BI)	BI-637	4.068	1.206	1.908	1.326	218	34	8.760
99a1	Enekuri G. -Artxandako tunelak	N-637	4.273	2.075	1.824	470	118	1	8.760
99a2	Artxandako tunelak -Enekuri G.	N-637	4.383	1.584	1.696	877	219	2	8.760
179a1	Sestao G. -Trapagaran G. (BI-S)	A-8	3.236	1.365	2.833	1.162	152	12	8.760
179a2	Trapagaran G. -Sestao G. (S-BI)	A-8	3.329	1.153	2.435	1.625	173	45	8.760
183A	Areeta -L.P. Santander	A-8	3.971	2.866	1.823	99	0	1	8.760
Orduak, guztira			41.275	16.976	23.209	13.172	1.507	221	96.360
Guztizko orduak zerbitzu-mailaren arabera banatuta, ehunekotan			42,83	17,62	24,09	13,67	1,56	0,23	100
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan			--	--	--	--	1,79	--	--

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Denbora-epe luzeago bat aztertuta (2010-2018 aldian), bideko pilaketak 2014. urtetik hona handitzen joan direla ikusten da.

8.3. taula Errepideko pilaketen bilakaera. 2010-2018.

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan	1,85	1,59	1,16	1,02	1,13	1,15	1,44	1,45	1,79

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Gipuzkoan, bide-sareko zenbait tartetan batez beste erabilitako abiadurak hartzen ditu oinarritzat azterketak. Auto higikorren metodoaren bidez lotu dira abiadura horiek, eta zenbat eta txikiagoa izan batez besteko abiadura, orduan eta pilaketa handiagoak daudela uler daiteke.

²² Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6322&Idioma=CA

²³ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DWIBideAzpiegiturakWEB/listaDocumentos.do?lista=5&apart=5&js=S&anti_cache=1418142005274

(Metodo horretan, neurtzeko autoak edo auto higikorrek abiadura hau izango du, aztertutako bideetan: auto higikorrek aurreratzen dituen ibilgailuen kopurua auto higikorra bera aurreratzen dutenenaren berdina izateko moduko).

Gipuzkoako interes nagusiko sarean, 2018an, N-1 eta A-15 errepideetan, AP-8ko 7 tartetako 5etan eta N-634 errepideko 6 tartetako 4tan, batez besteko abiadura murriztu egin zen, eta horrek pilaketa handiagoak izatea ekarri zuen. Aitzitik, AP-1, N-121-A eta N-638 errepideetan batez besteko abiadura handiagoa erregistratu zen, eta horrek adierazten du bide-pilaketak txikiagoak direla.

8.4. taula Batez besteko abiaduren bilakaera, tarteka, Gipuzkoako interes nagusiko sarean 2017-2018.

Errepidea	Hasierako kilometro-puntua	Amaierako kilometro-puntua	Luzera (Km)	Batez besteko abiadura (Km/h)	
				2017	2018
A-15	139,8	156,6	16,8	87,0	87
	159,9	164,4	5,5	98,5	93
	164,4	167,2	2,9	101,5	98
	167,2	169,3	2,1	93	91
AP-1	114,3	133,0	18,8	104,5	106
	133,0	146,2	13,2	106,5	106,5
AP-8	0,0	7,4	7,4	89	84,5
	7,4	15,5	8,1	96	88,5
	15,5	25,5	10,0	107	103
	25,5	38,2	12,7	102,5	99,5
	38,2	54,6	16,4	98	99
	54,6	69,7	15,1	99	95,5
N-121-A	69,7	74,9	5,2	94	94,5
	68,5	75,1	6,6	65	67,5
N-1	405,3	416,0	10,7	82,5	81
	416,0	436,8	20,8	92	90,5
	436,8	447,7	10,9	90,5	87
	447,7	454,4	6,8	79	76,5
N-634	0,0	4,0	4,0	58,5	57,5
	4,0	19,1	15,1	48,5	47
	19,1	29,9	10,8	50	47
	29,9	44,3	14,4	51,5	49,5
	44,3	57,8	13,5	57	58
	57,8	66,0	8,2	56	56
N-638	0,0	2,5	2,5	44	45

Iturria: Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa.

Gipuzkoako oinarritzko sarean aztertutako tarte gehienetan, handitu egin da batez besteko abiadura; pilaketa txikiagoaren seinale. Salbuespena izan da GI-631 errepidea, 4 tartetako 3 tartetan batez besteko abiadura txikiagoa erregistratu baita; eta GI-40 eta GI-638 errepideetan, abiadura txikitu zaien tarteak abiadura handitu zaien parekoak dira.



8.5. taula Batez besteko abiaduraren bilakaera oinarriko sarean (km/orduko). 2017-2018.

Errepidea	Hasierako kilometro-puntua	Amaierako kilometro-puntua	Luzera (Km)	Batez besteko abiadura (Km/h)	
				2017	2018
GI-11	0,0	2,3	2,3	75,5	75,5
GI-20	0,0	5,5	5,5	91	97,5
	5,5	7,2	1,7	77,5	79
	7,2	11,0	3,8	77	78
	11,0	15,7	4,7	84	85
GI-40	0,0	1,9	1,9	48,5	47,5
	1,8	3,8	1,9	65	67
GI-41	0,0	3,0	3,0	56,5	56,5
GI-627	18,0	27,2	9,2	49,5	50
	27,2	36,0	8,8	67	67,5
	36,0	44,5	8,5	55	56,5
	44,5	56,3	11,8	64,5	64,5
GI-631	0,0	3,8	3,8	61,5	65,5
	3,8	13,6	9,8	58,5	57
	13,6	19,1	5,5	45,5	44
	19,1	34,5	15,5	53	50,5
GI-632	0,0	11,2	11,2	95	95
	11,2	22,1	10,9	52	53,5
	22,1	24,6	2,5	61,5	63,5
	29,8	35,2	5,4	69,5	68
GI-636	0,0	17,2	17,2	54	55,5
GI-638	0,0	4,7	4,7	45	44,5
	4,7	7,9	3,2	49,5	53

Iturria: Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa.

Amaitzeko, beste behin adierazi behar da, Europako Batzordearen “Garraioa 2050”²⁴ estrategia globalaren arabera, pilaketek barne-produktu gordinaren % 1 inguruko kostua dakarkiotela Europari urtero, eta horrek kezka handia sortzen duela. Gainera, aurreikuspenek diote salgaien garraio-jarduerak, 2005eko datuen aldean, % 40 inguru gehiago izango direla 2030ean (eta % 80 baino gehiago 2050ean). Bidaiarien garraioa ere % 34 gehituko dela aurreikusi da (% 51, 2050ean).

8.1.3. Ingurumena

a) Zarata

Garraio-jarduerak kutsadura akustikoa sortzen du, eta horrek biztanleriaren osasunean eta bizikaltatean ondorio kaltegarriak ditu. Zentzu horretan, kutsadura akustiko horrek sortzen dituen ondorio kaltegarrien artean, hauek dira azpimarragarrienak: interferentziak loan, ahozko komunikazioan eta eguneroko jardueran, bai eta ondorio psikologiko eta fisiologiko kaltegarriak ere.

Ondoren, EAEko²⁵ hiru hiriburuei eragiten dieten ingurumen-zaratako fokuen Zarataren Mapa Estrategikoetan lortutako emaitza nagusiak aurkeztuko dira. Mapak lortzeko foku hauek aztertu

²⁴ MEMO Garraioa 2050: http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf;


²⁵ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistemaren webgunea: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>

dira: kaleetako eta errepedeetako bide-zirkulazioa, tren-zirkulazioa eta industria-jarduera²⁶. Erabili den kaltetutako biztanleriaren adierazleak kontuan hartzen ditu zarataren mapak 4 metroko altuerako fatxadetan.

Hiru euskal hiriburuetan gauze eragiten du gehien zaratak. Hala, kalitate-helburutik (Ln=55 dBa) gaineko zarata-mailen eraginpean dagoen biztanleria % 30ekoa da Bilbon, % 12koa Donostian eta % 10ekoa Gasteizen.

Kaleetako bide-zirkulazioa da zarataren foku nagusia hiru udalerrietan. Bide-zirkulazioak eragindako zarataren emaitzak guztizko zaratak lortutakoaren antzekoak dira. Bilbon, zirkulazio handieneko bideek zarata-maila handiak dituzte, eta hiritik ateratzeko eta hirira sartzeko bideak nabarmentzen dira. Gipuzkoako hiriburuko bideko zarata-fokuek biztanleriaren % 7ri eragiten diote, 4 metrora kaltetutako biztanleriaren adierazlearen arabera. Arabako hiriburuan, bideko zirkulazioak biztanleriaren % 9ri eragiten dio. Udalerri honetan, tranbiak eragin akustikoa du tranbiari begira dauden eraikinen fatxadetan, batez ere goizez eta arratsaldez.

8.4. grafikoa EAEko¹ hiru hiriburuetan bide-zirkulazioak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleria. 2017



¹ 4 metroko altuerara zarataren eraginpean dagoen biztanleria, 5 dB(A)-ko tartetan.

* Donostian kaltetutako biztanleria dago, baina 51 pertsona baino gutxiago dira. 0 balioak kaltetutako biztanleriadun egoerak adieraz ditzake, baina 1 baliora iristen ez direnak ehunekotan biribilduz.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.


²⁶ Gasteizen, bideko zirkulazioan aintzat hartzen dira kaleak eta tranbia. Bilbon, tranbiako lineek sortutako zarata tren-zirkulazioaren baitan aintzat hartzen da. http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf



Tren bidezko zirkulazioak eragindako zarataren eraginpean dagoen biztanle kopurua oso txikia da, minimoa. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Basurto/Zorrotza esparruan biltzen da, eta neurri txikiagoan, Ibaiondon eta Abandon. Donostian, foku horren eragina handiagoa da arratsalde gauez baino. Gauez %1ekoa baino ez da. Gasteizen, batez ere salgai-trenen ondorioz dago jendea zarataren eraginpean.

Bestalde, ez dago industria-jarduerak eta portu-jarduerak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleriarik. Gipuzkoako aglomerazioan, mailarik kaltegarrienak zarata-fokuetatik gertu dauden etxebizitza bakartuetan aurkitu dira.

8.5. grafikoa EAEko¹ hiru hiriburuetan tren-zirkulazioak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleria. 2017



¹ 4 metroko altuerara zarataren eraginpean dagoen biztanleria, 5 dB(A)-ko tartetan.


* Donostian kaltetutako biztanleria dago, baina 51 pertsona baino gutxiago dira. 0 balioak kaltetutako biztanleriadun egoerak adieraz ditzake, baina 1 baliora iristen ez direnak ehunikotan biribilduz.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Bilbon, zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren analisia aditzera ematen du hauek direla esparrurik kaltetuenak, mapan ikus daitekeen bezala: Deustu, Abando eta Basurto/Zorrotza eta Errekalde. Aitzitik, zarataren eraginik txikiena Otxarkoaga/Txurdinaga eta Uribarri esparruetan dute.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

8.6. grafikoa Bilboko erdiguneko bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Bilboko Udala.

Donostian, gauez maila akustiko altuenak (kaltegarriena, 60 eta 65 dB(A) artean) bide hauetan daude: Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea, Zarautz, Lugaritz, Kontxa pasealekua, Zubieta, Askatasuna hiribidea, San Martin, Boulevard Zumardia, Hernani, Urbietta, Easo, Prim, Gernikako Arbolarren pasealekua, Karlos I.aren hiribidea, Antso Jakitunaren hiribidea, Izoztegi-Pedro Manuel Kollado pasealekua, Madril hiribidea, Zorroaga pasealekua, Loiolako Erribera pasealekua, Zurriola hiribidea, Federico García Lorca pasealekua, Frantzia pasealekua, Kolon pasealekua, Nafarroa hiribidea, Galtzada Nagusia, Mirakruz, Ategorrieta hiribidea, Jose Elosegi Alkatearen hiribidea, Pasai San Pedro hiribidea, Otxoki pasealekua eta Buenavista hiribidea.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

8.7. grafikoa Donostiako bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017


- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak**
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak



Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Donostiako Udala.

Gasteizen, hauek dira kaleetako bide-zirkulazioaren ondoriozko zaratak gehien kaltetutako eremuak: Salburua bulebarra, Zaramaga-Madril-Aragoi-Jacinto Benavente, Zabalgana hiribidea-Euskal Herria bulebarra-Juan Garai, Mariturri bulebarra-Antonio Machado eta Bremen.

8.8. grafikoa Gasteizko bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017



Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Gasteizko Udala.

Eustatek 2016an argitaratutako “Ingurumenari eta Familiei buruzko Inkesta”²⁷ izeneko txostenetik ateratako informazioaren arabera, EAEko etxebizitzaren % 8,3k lehorreko garraioarekin lotutako zarata-arazoak zituen 2015ean; arazoa zertxobait handiagoa zen Bizkaian (etxebizitzaren % 9,3k), haren atzetik Gipuzkoan (etxebizitzaren % 8,4k) eta arinagoa Araban (etxebizitzaren % 4,9k).

Zarata
<ul style="list-style-type: none"> Hiru euskal hiriburuetan gauez eragiten du gehien zaratak. Hala, kalitate-helburutik (Ln=55 dBa) gaineko zarata-mailen eraginpean dagoen biztanleria % 30ekoa da Bilbon, % 12koa Donostian eta % 10ekoa Gasteizen. Kaleetako bide-zirkulazioa da zarataren foku nagusia. Tren bidezko zirkulazioak eragindako zarataren eraginpean dagoen biztanle kopurua oso txikia da, minimoa.

b) *Klima-aldaketa*

Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko herrialde guztien lankidetzaren beharrezkoa da, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko eta Kyotoko Protokolo aldeek egiten dituzten urteko bileren bitartez, hain zuzen ere.

²⁷ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu: http://es.eustat.eus/estadisticas/tema_456/opt_0/ti_Medio_ambiente_-_Familias/temas.html

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

2018ko abenduan, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko alderdien hogeita hirugarren konferentzia izan zen Polonian, eta Kyotoko Protokoloroko aldean konferentziako hamalagarren saioa bilera gisa.

Hauek dira Konbentzioan aldeek izandako lorpenik azpimarragarrienak:

- Berotegi efektua duten gasen igorpenak murrizteko hitzarmena, munduko tenperaturaren batez besteko igoera 2 °C-tik behera jaisteko eta 1,5 °C-tik ahalik eta gertuen egoteko mendearen amaierarako.
- Erregelen Liburuaren zati garrantzitsu bat ezartzeko hitzarmena, Parisko Hitzarmena abian jartzeko esparru tekniko.
- Diagnostiko globala, 2023an egingo dena, egiteko arauari buruzko hitzarmena.
- 2025. urtean munduko klima-finantzaketarako helburu berri bat onartzeko prozesua abiatzea.
- Klima-aldaketari buruzko informazio hobea emateko neurriak eta klima-aldaketara egokitzeko jarduketak onartzea.
- Parisko Hitzarmenaren Betetze Batzordearen sorrera.
- Bidezko trantsizioari, mugikortasun elektrikoari eta basoei buruzko hiru adierazpen garrantzitsuren onarpena.

Berotegi-efektua duten gasen igorpenak

- 2017an, garraio-sektoreko CO₂-ren igorpenak % 6,3 igo ziren 2016. urtearekin alderatuta. Sektorerik EAEen produktutako guztizko igorpenen % 31,7 sortu zuen.
- Garraio-sektorearen igorpenen % 95,5 inguru errepide bidezko garraioarekin lotuta daude. % 60 turismoek sortzen dituzte, eta gainerako ia % 40 osoa salgaien garraioak.

2018an, EAEen klima-aldaketaren aurkako borrokan ekimen hauek jarri ziren abian:


- UHINAK 2018n, Klima Aldaketari eta Itsasertzari buruzko Mugaz gaindiko Biltzarrean, parte hartu zen. Bertan, klima-aldaketaren erronkei, kanpoko kostaldeko fenomenoari, ekonomia urdinari eta arintzeari buruz eztabaidatu zen.
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak diru-laguntzen deialdia egiten du, natura-ondarearen zainketari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat. Proiektuek Natura 2000 Sareari, habitat naturalei eta erdinaturalei, mehatxatutako flora eta fauna basatien espeziei edo natura-ondareko beste elementu batzuei buruzkoak izan behar dute.
- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskadiko Klima Aldaketari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura abiatu zuen.

Berotegi-efektuko gasen guztizko igorpenari buruz eskura dugun 2017ko azken datuaren arabera, 20 milioi baino gehiago izan ziren; hau da, 2016. urtearekin alderatuta, % 5,5eko hazkunde. Igoera hori ekonomia-jardueraren hazkunde-testuinguruan gertatu da (euskal BPGd-ren % 3,1eko igoera 2017an).

Kyotoko Protokolorako erreferentziako indizea ehuneko 3,6 puntua da, 2017an Kyotoko Protokoloraren oinarritzko urtearen azpitik.



8.9. grafikoa Berotegi-efektuko gasen igorpenak EAEn, sektorearen arabera. 2017 (%)




*Energia-sektorean inportatutako energia elektrikoa sartzen da.

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017. Eusko Jaurlaritza.

Arlokako sailkapenak nabarmentzen du energia-sektorea (inportatutako energia elektrikoa aintzat hartzen du) dela oraindik berotegi-efektuko gasen igorle nagusia (guztizkoaren % 33,4). Atzetik du, nahiko gertu, garraioa, guztizkoaren % 31,7 biltzen baitu eta atzerago, industria, % 21,1ekin. Garraio-sektoreari erreparatuz gero, igorpen-maila 6,4 milioi tona CO₂ baliokide baino handiagoa izan zen, 2016arekin alderatuta % 6,3 gehiago.

8.10. grafikoa Berotegi-efektuko gasen igorpena EAEn, sektorearen arabera. 1990-2017 (%)




* Energia-sektorearen igorpen zuzenak (inportatutako energia elektrikoa gabe). *Energia-sektorearen igorpenak, inportatutako energia elektrikoa aintzat hartuta.

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017. Eusko Jaurlaritza.

Egungo datuak oinarri-urtekoarekin (Kyotoko Protokoloa) alderatuz, garraioaren igorpenak % 134,1 handitu ziren; igoera handieneko sektorea izan zen. Atzetik dago zerbitzuen sektorea, % 95,9ko handitzearekin; eta pixka bat atzerago, energia-sektorean izandako hazkundera, inportatutako elektrizitatearen ondoriozko igorpenak aintzat hartu gabe (% 36,8); eta askoz ere atzerago, bizitokiaren sektorea (% 23,3). Energia-sektorean inportatutako elektrizitatearen ondoriozko igorpenak aintzat hartzen baditugu, igorpenak % -13,8 murrizten dira.



8.11. grafikoa Garraio-sektoreko berotegi-efektuko gasen igorpenen bilakaera EAEn. 1990-2017.



Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2017. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko ekitaldian bezala, honako jarduera hauek nabarmendu behar dira garraio-sektoreak klima-aldaketan duen eragina murrizteko egin diren jardueren artean: ibilgailu industrial arinen eta autoen gaineko zergak haiek isurtzen dituzten CO₂ igorpenen arabera modulatzeko, ibilgailu elektrikoetarako laguntzak ematea, bioerregaien erabilera hedatzea eta ibilgailu hibrido edo elektrikoena.

2018an, EAEn, Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak sustatzeko, laguntzen programa onartu zen. Garraiobide jasangarriagoak, energia berriztagarrien erabilera, energetikoki eraginkorrak diren teknologien erabilera, eta birkarga elektrikorako beharrezko azpiegituren erabilgarritasuna eta erregai alternatiboen hornidura sustatzen dituen plan horrek. Planaren indarraldia 2018ko urriaren 31ra artekoa da.


c) Energiaren kontsumoa²⁸

Euskadin 5.146 mila tona (ktep) kontsumitu ziren 2018an. Kopuru erlatiboetan, esan nahi du % 2,6ko beherakada izan zela aurreko urtearekin alderatuta. Azken hamarkadan, 2008tik 2018ra, garraio-sektorearen azken energia-gastua gehiago hazi da beste sektoreak baino (% +14,3), funtsean, errepede bidezko mugikortasun-eskaria handitzearen ondorioz.

²⁸ 2011n, Eurostat metodologiaren arabera, elektrizitatearen ekoizpenerako baterako sorkuntzarako instalazioetan erabiltzen den energiaren zatia eraldaketa-sarreretan erregai-kontsumo gisa kontabilizatu zen. Beroa ekoizteko erabilitako erregaiaren zatia, berriz, kontsumitzailearen sektorean zuzenean kontabilizatu zen, hark baliatzen du eta. Horrez gainera, energia-ereldaketako kontsumo horiek azken kontsumora eskualdatze horretan, beroa ez zen kontabilizatu eraldaketa-irteeratzat deribatutako energia gisa, ez eta azken sektoreetako kontsumo-energia ere. Edonola ere, energia-kontsumoaren urtetik urterako analisia homogeneoa da, kopuruak berriz kalkulatu baitziren 2010etik hona, metodologia berriaren arabera.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak


8.12. grafikoa Energiaren guztizko kontsumoa, sektorearen arabera. 2008-2018 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2018. EEE.

2018an, garraio-sektorearen azken energia-kontsumoa 2.178 ktep-koa izan zen. % 2,3ko hazkundea izan zen; beraz, 7 urtez jarraian hazkundeak izan dira. Sektoreen arabeko kontsumoaren banaketak adierazten du garraioak biltzen duela euskal energia-kontsumo osoaren kuota handiena (% 42,3).

8.13. grafikoa EAEko energia-kontsumoaren banaketa, sektorearen arabera. 2018 (%).




Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2018. EEE.

Garraio-sektorearen azpisektorearen arabeko kontsumoaren banaketari erreparatuz gero, 2018an errepide bidezko garraioak (publikoa eta pribatua) sektorearen energia-gastu handiena biltzen du, guztizkoaren % 95,2 kontsumitzen baitu (1990. urtean % 91,3). Atzetik, nabarmen parte-hartze txikiagoarekin, aireko garraioa dago, sektorearen guztizko energia-kontsumoaren % 3,9 bilduz. Oro har, tren bidezko eta itsasoko garraioak garraio-sektorearen energi-gastuaren % 0,9 xurgatzen du.

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

8.14. grafikoa Energia-kontsumoaren banaketa garraio-sektorean. 2018.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2018. EEE.

2018an, garraio-sektoreak oraindik petrolioz egindako produktuekiko mendekotasun handia zuen. Izan ere, gasolioak, gasolinak, kerosenoak eta GLP kontuan hartuz gero, sektorearen energia-kontsumoaren % 92,8 dagozkie. Bestalde, bioerregaiak kontsumo osoaren % 6,5 baino ez dira. Hala ere, azken urteetan haien pisua handitzen ari dela azpimarratu behar da. Sektorearen baitan energia-iturrien desoreka hori egoteak CO₂-ren igorpen masiboa eragin du, petrolioaren deribatuen errekuntzaz sortua; hori dela eta, berotegi-efektuko gasen emisio gehien isurtzen duten sektoreen artean bigarrena da garraioa.


Energia-kontsumoaren adierazleak

- Garraio-sektoreak EAEko energia-kontsumo osoaren % 42,3 hartu zuen.
- Azken hamarkadan, garraio-sektorearen guztizko energia-kontsumoa % 14,3 igo zen, EAEko guztizko energia-kontsumoa ez bezala, % 10,6 jaitsi baitzen.
- 2018an, garraio-sektoreari dagokion energia-kostua 3.052 milioi eurokoa izan zen; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 11,6ko hazkundera izan zuen.

2008-2018 aldian, Araban energia-kontsumoak % 41,1 egin zuen gora, garraio-sektorearen guztizkoaren % 22,9 xurgatuz. Bizkaian, % 5,6ko beherakada erregistratu zen, eta sektorearen kontsumoaren % 35,8 bildu zuen. Azkenik, Gipuzkoan, % 23,6 igo zen kontsumoa 2008. urtetik hona, eta sektoreko kontsumo osoaren % 41,3 hartu zuen.




8.15. grafikoa Energia-kontsumoa garraio-sektorean, lurraldearen arabera. 2008-2018.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2018. EEE.

Garraioaren energia-faktura 3.052 milioi eurokoa izan zen 2018an, aurreko urtearekiko % 11,6 igoera izan zuen.

8.16. grafikoa Garraio-sektorearen energia-fakturaren bilakaera EAEn: 2008-2018 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2018. EEE.

2018an, bioerregaien kontsumoa igo egin zen petrolioaren baliokide diren 140,7 mila tona izateraino, eta igoera handia da hori (% +47,1). Aldakuntza horrek 2020. urterako Euskadiko Estrategia Energetikoko jarduketako ildoan finkatutako ibilbideari jarraitzen dio. Estrategia horren helburua da garraio-sektorean petrolioaren energia-mendekotasuna murriztea.

Errepide bidezko hiriko garraio publikoan, Gasteizko Transportes Urbanos de Vitoria-Gasteiz konpainia biodieselarekin funtzionatzen duten 81 ibilgailuz eta 5 unitate hibrido osatuta dago. Bilbobusen autobusen % 96k erabiltzen duten erregaia biodiesela darama nahastuta % 5etik gorako proportzioan. Horrez gain, 4 ibilgailu % 100 elektriko ditu eta 1 autobus hibrido. Dbusen ontzidiari dagokionez, 30 autobus elektrikoak edo hibridoak dira (% 22,7) eta 102 arruntak (gasolio bidez ibiltzen direnak).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

Azkenik, administrazio publikoek garraioaren arloan energia modu eraginkorrean erabiltzeko hartu dituzten neurrien artean, beste urte batez, aipatzekoak dira prestatu diren hiri-mugikortasuneko planak eta modu eraginkorrean gidatzeko profesionalentzako nahiz profesionalak ez direnentzako ikastaroak, EEEK (Energiaren Euskal Erakundea) eta IDAEk (Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundea) sustatuak. Era berean, aipatu beharrekoa da CIC energiGUNEk bioerregaiak garatzeko ikerketaren inguruan egindako lana.

8.2. Garraio jardueraren joerak EAEn

Gure autonomia-erkidegoari erreparatuz eta zenbait aldagairen bilakaerari behatuz, EAEn buruzko joera hauek identifikatu ditzakegu mugikortasunaren esparruan eta garraioaren jasangarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk:

Mugikortasuna

- EAEn mugikortasuna handitu egin da, baina moteltzen ari da: 2007tik 2011ra % 1,9ko hazkunde arina izan zen, baina garraibide jasangarriek (oinezkoak, bizikleta...) neurri handi batean xurgatu zuten hazkunde arin hori.
- Autoa gero eta gehiago erabiltzen da, nahiz eta azken urteetan behera egin duen: ibilgailu pribatuen eguneroko lekualdatzeak 2003an guztizkoaren % 34,6 ziren; 2011n, % 35,7.
- Parke mugikorra etengabe hazi da. Hala ere, krisiaren garaian EAEnko biztanleriaren motorizazio-mailak gelditzearen zantzuak izan ziren. Bestalde, azken urteetan, motorizazio-indizea igo egin da, 2018an gehieneko motorizazio-kota lortu arte.
- Bide-azpiegituren aurrerapena. 2000-2017 aldian, edukiera handiko bideak % 25,9 hazi dira. 2017an, bide horien ehuneko bide-sare osoaren % 15 zen, eta 2000. urtean, aldiz, % 11,4 baino ez.
- Hiri-esparruan garraio kolektiboko zerbitzuaren (autobusa eta trenbidea) eskaria etengabe handitzea; 2000-2018 aldian % 47,4 igo zen.
- Edukiera handiko hiri-garraio-publikoen ugartze jarraitua. Bilboko Metroaren kasuan, eskaria % 66 handitu da 2000tik 2018ra, nahiz eta azken urteetan, zerbitzu horren erabiltzaileen bolumena nahiko konstantea izan den. Era berean, azpimarratu behar da Bilboko eta Gasteizko tranbia-zerbitzuak ugartu egin direla.
- EAE xede edo helmuga duten pertsonen aireko zirkulazioa nabarmen handitu da; 2000tik 2018ra % 100,4 handitu da. Azken urteetan gorakada izan da, 2018an urtetik urterako % 10,4ko aldakuntza izan zen aurreko urtearekiko.
- Itsasoko zirkulazioak EAEnko salgaien guztizko bolumenean parte-hartze handiagoa izan zuen, 2003tik 2018ra % 16,2ko kuota izatetik % 25,3koa izatera igaro zen.

Jasangarritasuna: garraioaren jasangarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk

- 2008tik 2018ra, garraio-sektorearen energia-kontsumoa % 14,3 handitu zen. Urtetik urterako igoera % 2,3koa izan zen 2018an 2017. urtearekiko.
- Erregai fosilen mendekotasun txikiagoa duten energia-ereduetarantz bilakatzea, garraio-sektorean gero eta bioerregai gehiago erabiliz. 2018an, bioerregaien kontsumoa % 47,1 handitu zen aurreko urtearekiko.





Garraioaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Esparruko Helburuak

9. Garraioaren eta mugikortasun jasangarriaren esparruko helburuak

Eusko Jaurlaritzak Euskadin garraio-eredu iraunkor bat lortzeko bidean aurrera egitea du helburu. Horregatik, Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana²⁹ egin du.

Plan berriak jarraipena ematen dio “Garraio Iraunkorraren 2002-2012 Gidaplanari”³⁰ eta bat dator liburu honetan zehaztutako europar irizpideekin: Liburu Zuria – Europako Garraio Politika 2010erako³¹. Halaber, bat dator hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile baterako Estrategia-Europa 2020 izeneko estrategiarekin. Era berean, garapen jasangarriko 2030 Agendak osatzen du. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Ebazpen bidez onartu zen 2015eko irailaren 25ean.

Kapitulu honetan, Europar Batasunak egindako “Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea”³² izeneko lanean ezarritako helburuen laburpena eskaintzen da. Era berean, Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplanean jasotako helburu eta estrategia nagusiak aipatuko ditugu.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak, Euskadin garraio-eredu gero eta jasangarriago bat planifikatzeko bidean, 2018ko ekitaldian zehar gauzatutako jarduerak zehazten dira.

9.1. Europar Batasunaren Liburu Zuriaren helburu nagusiak

“Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea” liburua, 2011ko martxoan argitaratua, Europako Batzordeak Europar Batasuneko garraio-sistemaren etorkizunari dagokionez zer ikuspegi duen azaltzen duen dokumentu estrategiko berria da, eta orobat, hurrengo hamar urteetarako agenda politikoa zehazten du.

Ildo horretan, liburuan hamar helburu zehaztu dira, ekintza politikoak orientatzeko eta Europako garraio-sistema lehiakor eta iraunkor baterako bidea neurtzeko diseinatu direnak.

Erregai eta propulzio-sistema iraunkor berriak garatzea eta erabiltzea

- 2030. urterako, hiriko garraioan propulzio-sistema arrunta duten autoen erabilera erdira jaitea; 2050erako, pixkanaka-pixkanaka desagerraraztea; 2030erako, hirigune nagusietako logistika-elementuek CO₂-ren igorpenik egin ez dezaten lortzea.
- 2050erako, aireko garraioaren sektorean, erregai iraunkor hipokarbonikoen erabilera % 40ko mailara iristea; 2050erako, Europar Batasuneko CO₂ igorpenak, itsas garraioaren sektorean erabiltzen diren galdaren fuel-olioak eragindakoak, % 40 gutxitzea (eta ahal bada, % 50).

²⁹ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

<http://www.euskadi.eus/plan-director-del-transporte-sostenible/web01-a2kudeak/es/>;

³⁰ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/07/Mediateka/3_Plan%20Director%20Transporte%20Sostenible%202002-2012_cas.pdf?hash=64add5a4cb06a627466a2075a8a59c32

³¹ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

Liburu Zuria - Europako Garraio Politika 2010erako

³² Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu: Garraioaren Liburu Zuria - Europan garraioan esparru bakarrera iristeko ibilbide-orria





Kate logistiko multimodalen errendimendua optimizatzea, baita energiaren ikuspegitik, erabilera eraginkorragoak bultzatuz ere

- Gaurtik 2030era bitartean, errepide bidezko garraioaren % 30 beste modu batzuetara aldatzen saiatzea (adibidez, tren bidezko garraioa edo itsas nabigazio bidezkoa), salgaiak garraiatzeko korridore eraginkorrak eta ekologikoak baliatuz; 2050erako, % 50etik gora finkatu da helburua. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa izango da azpiegitura egokia garatzea.
- 2050erako, Europako abiadura handiko trenen sarea osatzea. 2030erako, abiadura handiko trenbideen sarearen luzera hirukoiztea, eta estatu kide guztietan trenbide-sare trinkoari eustea. 2050ean, bidaiarien distantzia ertaineko garraioaren zatirik handiena trenez egin beharko litzateke.
- 2030erako, Europako oinarritzko garraio-sarea izatea, Europar Batasuneko eremu guztia hartuko duena, multimodala eta guztiz operatiboa. Garraio-sare horrek goi-mailako kalitatea eta ahalmena izan behar ditu 2050erako, eta dagozkion informazio-zerbitzuak.
- Gaurtik 2050era bitartean, oinarritzko sareko aireportu guztiak trenbide-sarearekin lotzea, ahal dela abiadura handiko trenbide-sarearekin; itsas portu nagusiek salgaiak garraiatzeko trenbide-sistemarekin behar bezalako lotura dutela bermatzea, eta ahal denean, baita barruko bide nabigagarrien sistemarekin ere.

Garraioaren eta azpiegitura-erabileraren eraginkortasuna handitzea, informazio-sistemak eta merkatuan oinarritutako pizgarriak baliatuz

- 2020rako aireko zirkulazioa kudeatzeko belaunaldi berriko Europako sistema (SESAR)³³ ezartzea, eta Abiaziorako Europako Eremu Bateratua eraikitzen amaitzea. Garraioa kudeatzeko sistema baliokideak ezartzea errepide, itsas eta ibai bidezko garraioetarako (ERTMS³⁴, ITS³⁵, SSN eta LRIT³⁶, RIS³⁷). Europako satellite bidezko nabigazio-sistema orokorra ezartzea (Galileo).
- 2020rako, garraio multimodalaren informaziorako, kudeaketarako eta ordainketarako Europako sistema baten esparrua ezartzea.
- Gaurtik 2050era bitartean, errepide bidezko garraioan hildakorik ez ("zero hildako") izateko helburura hurbiltzea. Xede horren ildotik, 2020rako, errepideko biktimak erdira jaisteko helburua finkatu du Europar Batasunak. Horrez gain, garraibide guztietako garraioaren segurtasunari eta babesari dagokienez, Europar Batasuna munduan aitzindari dela bermatzea.
- "Erabiltzaile ordaintzailea" eta "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioak bere osotasunean betetzeko bidean aurrera egitea, eta sektore pribatuak konpromisoa hartzea desorekak kentzeko (diru-laguntza kaltegarriak barne), diru-sarrerak sortzeko eta etorkizunean garraioan inbertsioak egitea bermatzeko.

³³ Europako ATM Gidaplanari jarraiki: https://ec.europa.eu/transport/modes/air/sesar/deployment_en

³⁴ ERTMSrako Europako ezarpen-planari jarraiki: Ikusi Batzordearen C 561 Erabakia (2009).

³⁵ EasyWay 2 gauzatzeko planari jarraiki: Ikusi Batzordearen C 9675 Erabakia (2010).

³⁶ 2002/59/EE Zuzentaraua, itsasoko trafikoaren jarraipenerako eta informaziorako Erkidegoko sistema bat ezartzeari buruzkoa (EBren Aldizkari Ofiziala, L 208, 2002-08-05ekoa), 2009/17/EE Zuzentarauak aldatua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 131, 2009-05-28koa).

³⁷ Ikusi 2005/44/EE Direktiba.

9.2. GARRAIO IRAUNKORRAREN GIDAPLANAREN helburuak eta estrategiak

Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana

2017ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko “Garraio iraunkorraren 2030 Gidaplana” onartu zen. Planak jarraipena ematen dio 2002-2012 aldirako egin zen aurreko planari eta bat dator Europako Batzordeak 2011n egindako Garraioaren Liburu Zurian zehaztutako europar ildoekin, bai eta Europako hazkunde adimendu, jasangarri eta barneratzailerako 2020 Estrategiarekin ere. Era berean, garapen jasangarrirako 2030 Agendak osatzen du. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Ebazpen bidez onartu zen 2015eko irailaren 25ean. Garraio Iraunkorraren Gidaplanak xede du garraio-eredu jasangarri eta integratzaile bat lortzea, Euskadiko gizarte-kohesiorako eta gizarte- eta ekonomia-garapenerako tresna gisa.

Sei helburu nagusi zehaztu dira, eta bakoitza behar bezala mugaturik dago. Estrategiak, bestalde, helburu bat baino gehiago lortzeko erabil daitezke.

1. helburua. Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea

Europako politikaren ildoei jarraituz, helburu hau ekonomia-hazkundera sustatzean datza, eta garraioaren eragin kaltegarriak murriztean, ekonomia-garapenaren eta garraioaren eskariaren handitzearen arteko lotura deseginez. Horretarako, ongi planikatutako eta antolatutako garraio-sare jasangarri bat garatu behar da, eta sare horrek administrazioen, enpresen eta, oro har, euskal gizartearen lankidetzeta eta koordinazioa izan behar ditu.

Estrategiak:

- 1) Gizarte- eta ekonomia-garapeneko kultura jasangarria sustatzea, administrazioen, enpresen eta gizartearen bidez garraioa koordinatuta planifikatuz eta antolatuz: Euskadiko Garraio Agintaritzaren bidez, Garraio Politika Amankomuna garatzean eta garraio jasangarri bat lortzean plangintza, antolaketa eta koordinazioa sustatzea, eta lurreko, errepide eta trenbide bidezko, itsasoko, aireko eta kable bidezko garraio-zerbitzuen antolaketarako eta koordinaziorako dagokion araudia egitea.
- 2) Euskadin garraioaren lehiakortasuna sustatzea: sektoreko enpresen eskura komunikazio-sare bat jartzea, kokapen estrategikoa oinarri hartuta, Euskadiren lehiakortasunaren alde egingo duena eta konektibitatea indartuko duena; programak egitea, zerbitzuak lehia askea eta leiala oinarri hartuta egiteko behar adina berme ezartze aldera, prestakuntza-, hedapen- eta ikuskaritza-ekintzen bidez; eta Garraioa Modernizatzeko Programak sustatzea, globalizazio-prozesuari eta sektoreko lehiaren handitzeari aurre egitea bideratuko dutenak.
- 3) Garraio-sistema aurreratu eta kostuak barneratzeko irizpideak oinarrituta kudeatutako bat sustatzea: kostuak barneratzeko neurriak identifikatzea eta ezartzea, agintari eskumendunekin koordinatuta; eta agintari eskumendunekin batera, beharrezko estrategiak, publikoak nahiz pribatuak, motibatuzko eta pizteko zerga-politika bat bideratzea, garraioan jasangarritasuna txertatzea xede izango dutenak.



2. helburua. Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

Irisgarritasunak datozen urteetan gero eta protagonismo gehiago eskuratzen joango da. Batez ere biztanleriaren zahartzeak baldintzatuko du joera hori, mugikortasunari dagokionez. Horregatik, garraio-sistema irisgarria eta lurralde-plangintza egokia izatea funtsezko helburuak dira. Pertsonen nahiz salgaien mugikortasun-beharrak ase beharko dira, baina hurrengo belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Estrategiak:

- 1) Garraio jasangarria sustatzea irisgarritasuna bermatuz, lurralde-plangintza jasangarriarekin koordinatuta: hiri-garapen jasangarria, eta horren ondorioz, garraio jasangarria lurralde-irizpideetan barneratzea; lurzorua erabileren eta mugikortasunaren plangintza osatua sustatzea, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunaren irizpideen mende; eta gizartearen eta garraioaren profesionalen gizarte- eta osasun-baldintzak hobetzeko ekintzak sustatzea.
- 2) Mugikortasunaren eskaria garraio jasangarriko alternatiben bidez kudeatzea: pausoak ematea ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-baldintzei dagokienez jasangarriagoa den eta bizi-kalitatea hobea sustatzen duen garraio-eredu bat lortzeko bidean; prebentzio-ekimenen proposamenak egitea, Euskadiko Garraio Behatokiaren diagnostikoekin bat. Euskadiko Garraio Agintaritzari dagokion ekintzak hautatzea eta programatzea; lurraldeko eremu guztietan irisgarritasun-maila egokia izateko joera izatea, jarduketak batez ere hornidura aldetik okerren daudenetan edo ekonomia-hedapen handia dutenetan eginez; garraioaren kostuen eta tarifen urteko jarraipena egitea zenbait alternatiba erabiltzeak eragindako emaitzen simulazioak eginez; hirigune nagusien sarbideetan ibilgailu pribatuen zirkulazioaren presioa murrizteko disuasio-neurriak ezartzea; disuasio-neurriak ezartzea ibilgailu pribatuaren banakako erabileraren inguruan, besteak beste; errei, bide eta ibilbide berezien eta/edo eksklusiboen erabilera sustatzea, behin betiko zirkulazioa nahiz aldi baterakoa kudeatzeko, eta batez ere hirien sarbideetan; Garraio Sistema Adimendunak sustatzea garraioaren jardueraren garapenerako, eta eskualdeko, metropoliko eta hiriko esparruetan zirkulazioa antolatzeke eta kudeatzeko. Azpiegiturak zentzu eta eraginkortasun handiagoz erabiltzea, eta EAEn bidaiarien Garraio Publikoaren Informazio Sistema sustatzea, EAEn barruan edozein abiapuntu eta xederen arteko ibilbideei, operadoreei eta tarifei buruzko informazio eguneratua lortu ahal izateko haren bidez.
- 3) Jarduera sortzen duten gune nagusietan aurrera egitea irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria lortzeko: hirietan hiri-eremuetatik ibilgailuen zirkulazioa kentzen laguntzea, oinezkoen, bizikletaren eta garraio publikoko zerbitzuen erabilerarako utziz ekonomia-baldintza egokietan; landa-ingurunera irisgarritasuna bermatzea, garraio-sistema eraginkorra eta kalitatekoa, landa-garapenaren alde egingo duena, eskainiz; hiri-banaketaren zerbitzuen inguruko udal irizpideen egokitzapena eta homogeneizazioa laguntzea; Euskadiko zenbait jarduera-gunetan garraio planetan garapena sustatzea eta planak zehaztu eta ezartzea, geltokietan eta lehentasunezko garraio-nodoetan irisgarritasuna hobetzeko.



3. helburua. Garraio-moduen arteko beste oreka bat sustatzea

Helburu hau Euskadiko garraio-moduen erabilera beste oreka jasangarriago bat ezartzean datza. Horretarako, intermodalitatea sustatuko da pertsonen nahiz salgaien garraiorako, eta ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoak diren garraio-moduak sustatuko dira, hala nola itsasoko garraioa eta trenbide bidezkoa. Hala, isuriak murriztuko dira, eta Euskadiren ingurumen-helburuak eta -betebeharrak betetzen lagunduko da. Zehazki, Euskadiko trenbide-sarea, dentsitate handia izan arren, XIX. mendean diseinatutako trazadurekin eta funtzionalitateekin bat dator. Beraz, modernizazioa behar du, trenbidea garraibide gisa gehiago erabiltzea lortzeko.

Estrategiak:

- 1) Intermodalitatearen garapena sustatzea, pertsonen garraioan nahiz salgaienean, bidaiarien garraio-sare publikoa koordinatua eta barneratua garatuz, bai eta azpiegitura logistiko multimodalaren sare bat ere: garraioan “intermodala” kontzeptua barneratzen laguntzeko programak sustatzea enpresa mailan nahiz gizartean oro har, eta garraio konbinatuen garapena bideratzeko neurriak sustatzea.
- 2) Garraio-jasangarriagoen erabilera sustatzea, batez ere trenbide-sistemarena: trenbide-sistema lehiakortasunari eta irisgarritasunari dagokionez hobetzea, azpiegiturak hobetuz eta funtzionalitatea optimizatuz, eta beharrezko erakunde-jarduerak garatzea, besteak beste, besterendu gabeko eskumenak besterentzen aurrera egiteko.
- 3) Garraioaren petrolioaren ordeztasunaren energia alternatiboaren erabilera sustatzea, ingurumen-inkaktu eta etorkizuneko energia horren gabeziak eragin dezakeen zaurgarritasuna murriztuz: Garraio-sektorearen petrolioarenganako mendekotasuna murriztea.

4. helburua. Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea European

Euskadik kokapen estrategikoa du European eta haren balioa azpimarratu behar du, joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa ez ezik, kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere. Abantaila hori ustiatzeko, kalitateko azpiegitura logistiko bat behar da, lehiakorra eta intermodala, eta erakunde publikoek eta pribatuek azpiegitura horretan lagundu behar dute.

Estrategiak:

- 1) Euskadik European duen kokapen estrategikoari garrantzia ematea, ez joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa soilik, baizik baita kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere: garraio intermodala pizteko estrategia zehaztea; azpiegitura intermodalaren sarearen kalitatea bermatzea; Euskadik, Europak eta Estatuak proposatutako jarduketak koordinatu eta barneratzea, eta aurrera egitea Plataforma Logistiko Intermodaletan erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzan.
- 2) Basque Country Logistics eredia ezartzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren bidez, gure enpresek gero eta merkatu globalizatuago batean lehiatu ahal izan dezaten: Basque Country Logistics eredia garatzea; Euskadin salgaien garraio jasangarriaren sustapen-politikak zehazten laguntzea; Euskadin Plataforma Logistiko Intermodalaren Sarea planifikatzen eta garatzen laguntzea; eta sistema logistikoaren lehiakortasuna sustatzea.
- 3) Aireportu-garraio irisgarriagoa, barneratuagoa eta lehiakorragoa lortzeko bidean: etorkizuneko Euskadiren beharrak oinarri hartuta, aireportu-plangintza aztertzea eta egokitzea; Euskadiko aireportu-sistemaren kudeaketa- eta eragiketa-eredua egokitzea, interlotura eta intermodalitate kontzeptuen inguruan; merkataritza-jarduerak garatzea,



Euskadiko aireportu-sistemaren lehiakortasuna eta lehiakortasun horrek berekin ekarriko duen aberastasunen sorrera sustatuko baitute; eta aireportu-eredu berriari beharrezko finantza-gaitasuna ematea.

5. helburua. Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

Gero eta beharrezkoagoa da garraio-sistema eraginkor, barneratu eta koordinatu bat izatea, eta gizartean garraio-sistemaren erabilera arduratsuen kontzientzia sortzea. Ildo horretan, gero eta herrialde gehiago ari dira beriz antolatzen garraio publikoaren finantzazio-eredua, Europako ildoei jarraiki, eta zerbitzuak eta azpiegiturak epe luzearako eraginkortasuna eta jasangarritasuna abiapuntutzat hartuz kudeatzen dituzte.

Estrategiak:

- 1) Gizartean, erakundeetan eta enpresetan kontzientzia sortzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den garraio baten beharri buruz. Beste erakunde edo herrialde batzuekin harremanetan jartzea eta esperientziak trukatzeko, garraio jasangarriaren esparruan arrakastazko ekimenak egiteagatik bereizi badira eta mugikortasun jasangarriari eta seguruari buruzko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, pertsonengan portaera-ohiturak egokitzen saiatuz eta salgaien garraioan prebentzioa landuz.
- 2) Garraio-sistema jasangarri bat sustatzea, eraginkortasuna xede hartuta garraio-zerbitzuak, azpiegiturak eta loturak eraikiz, bermatuz eta mantenduz: egungo azpiegituren mantentze-lanei lehentasuna ematea azpiegitura berrien inbertsioaren aurretik, eta jarduketa handiak garraioaren erabilera jasangarria bermatzen duten lekuetan soilik ezartzea.
- 3) Garraio publikoaren finantzazio-sistema bat diseinatzea, garraioaren jasangarritasuna bermatu eta eraginkortasuna maximizatuko duena. Garraio publikoko "erabiltzearen fidelizatzea" sustatzea eta babestea, eta Euskadin garraioaren finantzazio-eredua ezartzea eta arautzea.

6. helburua. Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Beharrezkoa da garraio-sistema bateratu eta koordinatu bat garatzea, intermodalitatea sustatuz, eskaintza koordinatuz, tarifen bateratzea garatuz eta garraio publikora irisgarritasuna erraztuz ordainketa-sistema modernoan eta errazen bidez. Tarifen bateratzea gaketat jotzen da garraio-sistema bateratu bat izateko, intermodalitatea sustatuko duena, eta horren ondorioz, jasangarriagoa izango dena. Garraio publikoaren sistema bateratzeko eta kohesionatzeko, agintari eskumendunek koordinatu eta lerrokatu egin beharko dute.

Estrategiak:

- 1) Garraio publikoaren erabilera sustatzea: eskaintzaren plangintza koordinatuaren bidez, eta erreferentziazko esparru xede bat prestatuz, kosteen egiturari, estaldura-ratioei eta tarifa-sistemari dagokionez.
- 2) Ekonomikoki jasangarria den garraio publiko bateratuaren eredu bat garatzea: garraio publikoaren eskaintza arrazionalizatzea; tarifa-eredu amankomuna ezartzea, garraio publikoa erabiltzeko errazagoa eta erakargarriagoa, eta txartel bakar bat egitea garraio publiko guztientzat.



9.3. Euskadirako garraio-eredu jasangarri baterantz

XI. legegintzaldirako gobernu-programak Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplan hau jasotzen du bere konpromisoen artean. Gidaplaneko ekimenak jasotzen ditu eta gidaplanean ezarritako helburuen lorpenari laguntzen dio, batez ere, berotegi-efektuko gas isuriaren % 20 murrizteari dagokionez.

Garraio Iraunkorraren Gidaplanak xede du garraio-eredu jasangarri eta integratzaile bat lortzea, Euskadiko gizarte-kohesiorako eta gizarte- eta ekonomia-garapenerako tresna gisa. Garraioak zeharkako izaera duenez, gidaplan hau aplikatzean, aintzat izan behar dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, eta zehazki, Garraio Sailburuordetza partaide izan dituzten 15 plan estrategikoak nahiz sail arteko 54 plan osagarriak.

Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplan berria 2017ko ekainaren 13an onartu zen.

9.4. 2018ko jarduerak

Garraioaren plangintzari eta garapenari dagokionez, Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplanean aurreikusitako ekintzekin jarraitzen da. Era berean, Euskadiko Errepideen hirugarren Plan Nagusiaren Aurrerapena eta Mugikortasun Elektriakoaren Plan Zuzentzailea amaitu dira. *Euskadiko Garraio Agintaritzak* 2018an bilera hauek izan ditu: osoko bilkuraren bilera martxoan; Goi Ikuskaritzako Sekzioaren bilera irailean; “Euskadiko errepide bidezko salgaien garraiorako karga estibatzeko gida egiteko” batzorde txostengilea (maiatza eta iraila); irisgarritasunaren batzorde txostengilea (maiatza eta iraila); taxiaren sektorearen egungo analisiari, gakoeri eta aukerei buruzko batzorde txostengilea (maiatza, ekaina, iraila).

Bi jardunaldiren bidez, Arabako Garraio Agintaritzaren eraketa gauzatzeko eta sektorearen kalitatea eta eraginkortasuna sustatzeko erakunde arteko zenbait koordinazio-ekintza egin dira: ekainean logistikari buruzkoa egin zen; eta abenduan, garraio sektoreko emakumeari buruzkoa. Prestakuntzari dagokionez, logistikaren eta 4.0. mugikortasunaren esparruko beharrezko prestakuntza- eta gaitasun-premiei buruzko azterlan bat egin da. Halaber, Moveuskadi plataforma gailu mugikorretan modernizatzeko aukera planteatu da.

Euskadiko Garraio Behatokiak lanean jarraitu du tresnak eta organismoak sustatzen, garraio iraunkorreko politika garatzeko. Bestalde, 2018an, Euskadiko Garraio Behatokiak bere funtzioak garatu zituen Euskadin garraioaren oinarriko informazioa sortzen, Garraioaren Informazio Sistemari eutsiz eta Euskadiko Garraioaren Panoramika urteko txostena ginez.

Plangintzan, "Garraio Iraunkorraren Gidaplanari" dagokionez, 2018an aurreikusitako ekintzak egiten jarraitzen da.

Plangintzaren arloko beste ekimen batzuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2017-2028 aldirako hirugarren Errepideen Plan Orokorraren Aurrerapena amaitu da.
- Mugikortasun Elektriakoaren Plan Zuzentzailea egin eta onartu da.

Paragrafo hauetan, Eusko Jaurlaritzak 2018an garraioaren esparruan egindako jarduera nagusiak jasotzen dira, egungo Garraio Iraunkorraren Gidaplanean zehaztutako helburuen arabeko egiturari jarraituz:





1. helburua	
Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea.	
Garraio-sektorea modernizatzeko programa	
<ul style="list-style-type: none"> Salgaien eta bidaiarien garraio-sektorean kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko helburuak faktore horiek handitzeko joera duten hainbat jarduera biltzen ditu. 2018an, laguntza-programak garatu dira, gai hauen ingurukoak: jarduera uztea, elkartegintza sustatzea, kalitate- eta ingurumen-sistemak ezartzea, eta sektorea zenbait esparrutan modernizatzea, hala nola teknologia berrien ezarpenean (lokalizazio- eta kontrol-sistemak, segurtasun-elementuak, haurrak lotzeko sistemak). 	
Prestakuntza sustatzea eta indartzea	
<ul style="list-style-type: none"> 2018an, itsas sektorean profesionalak eta graduatu ondoko ikasleak trebatzeko jardueri dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatu da, eta Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketa eta Itsas Zuzenbidea Masterra azpimarragarria da. Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatu da, <i>El Saltillo</i> itsasontziaren kudeaketarekin lagunduz eta udan euskal portuetan haren presentzia areagotuz. Revista de Derecho del Transporte aldizkariaren 21. eta 22. aleak editatu dira. Nautikako ikasleen praktiketan prestakuntzaren programazioaren eta <i>Short Shipping</i>-aren sustapenarekin jarraitu da. Horren ondorioz, praktiketako ikasleen kopurua eta ontzian igarotzen duten hilabeteen kopurua nabarmen igo dira. Bi lerroek praktiketako ikasleen prestakuntzan bat egiten dutenez, Euskal Untzijabeen Elkartearekin aztertu da bi ildoak “Nautikako ikasleen praktikak” ekintzapean bateratzea. Uniportekin eta Bilbao Exhibition Centrekin batera lankidetzaz, besteak beste, 2019ko otsaileko World Maritime Week prestatzeko. Sektoreko elkarte profesionalentzako diru-laguntza izendunen kudeaketak hasi ziren, Juan Sebastian Elkanok munduari lehen aldiz itzuli eman izanaren 500. urteurrenaren oroitzapenezko ekitaldiak prestatzeko, 2019an egin baitira. Sektorearen prestakuntzaren eta profesionalizazioaren esparruan jarduketak egin dira, kontuan izanda prestakuntza sektoreko lehiakortasuna hobetzeko gakoa dela. Harremanak izan dira garraioaren alorreko prestakuntza eskaintzen duten hainbat erakunderekin eta Euskal Institutuaren Logistika eta Mugikortasun Jasangarriko Logistika masterrari babesia ematen jarraituko da. Salgai arriskutsuen errepide bidezko garraioko Segurtasun Sailburu izateko hautaprotetarako deialdi bat egin da, titulua lortzeko nahiz hura berritzeko, eta 2018ko azaroaren 23ean egin dira probak. Deialdi bat egin zen errepide bidezko salgaien eta bidaiarien nazioko eta nazioarteko garraiorako gaitasun profesionalaren titulua lortzeko. Eskaerak izapidetu ziren eta tituluak eman, eta probak 2018ko urriaren 1ean egin ziren. 	

Laburpen
Exekutiboa

Testuinguru
Orokorra

Bilakaera
Orokorra

Errepide
Bidezko
Garraioa

Tren
Bidezko
Garraioa

Aire
Bidezko
Garraioa

Itsaso
Bidezko
Garraioa

Beste
Garraiobide
Batzuk

Ondorio eta
Joera
Nagusiak

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasagarria

Funtsezko
Adierazleak

Eranskinak

2. helburua
Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

Errepide plana

- 2017-2028 aldirako hirugarren Euskadiko Errepide Plan Orokorra amaitu da. Euskadiko Errepide Plan Orokorren Batzordeak Donostian pasa den uztailearen 2an egindako Osoko Bilkuran onartu zuen. 2018ko abuztuaren 30eko Aginduaren, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuarenaren, bidez, aurrerapen hori jendaurrean jarri zen, bai eta ofizialki jakinarazi ere. Jendaurrean jartzeko prozesua 2018ko azken hiruhilekoan egin zen.
- Bide plangintzaren esparru berean, eta aurreko jarduketari estaldura juridikoa emanez, 5/2018 Legea, azaroaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea hirugarren aldiz aldatzen duena, izapidetu eta onartu da. Legeak, besteak beste, Planaren xede den sarearen katalogoa eguneratzen du.
- Errepideentzat aplikagarriak diren bide-zoruei buruzko araudiaren esparruan, zoladuretarako nahaste berrien ezaugarrien bereizketari buruzko indarreko araudia berrikusten eta eguneratzen jarraitu zen; bide-zoruaren ezaugarriak aztertzeak irizpideak zehazten, bidearen iraunkortasuna eta segurtasuna hobetzeko; egindako bide-zoruen jokabideari jarraipena egin zitzaion; eta material alternatiboak eta diseinu jasagarriagoak aztertu ziren.
- 2018an, azaleko zaharberritze-lanen eta egiturazko zaharberritze-lanen esparruan araudi-proposamen bana egin da. Bide-zoruen Mahaiak jakinarazi ondoren, laster onartuak izango dira.
- Beste gai batzuekin lotutako araudian aurrerapenak egin ziren, hala nola hotzean irekitako nahaste bituminosoak, nahaste epelak, fresaketak erabiltzea eta iraunkortasun handiko bide-zoruek.
- 2018an, 2018ko urriaren 22ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak instalatzeko instrukzio teknikoa arautzeko dena, onartu zen. Errepideen eta bide-segurtasunaren alorrean eskumena duten erakundeekin lankidetzan garatu zen.

3. helburua
Garraio-moduen arteko beste oreka bat sustatzea

Trena indartzea

Eusko Tren XXI. Plana

- 2018an, Bizkaian Ermuko saihebidetaren eraikuntza-obrek jarraitu zuten, bai eta Derioko eta Kurtzeako geltokiak egokitzeko obrek ere.
- Horrez gainera, Durangoko lurperatze-lanen ondoriozko eremuko urbanizazio-obrak egin ziren eta Lasarmintegiko (Galdakao) trenbide-pasagunea kendu zen.
- Gipuzkoan, Zarautzen Santa Klara trenbide-pasagunea kentzeko obrak amaitu ziren, eta Txikiardiren (Usurbil) pareko trenbide-pasagunearen babes-maila hobetu zen.
- Era berean, Hendaiaiko geltoki berriko obrak hasi ziren, SNCFrekin adostuak zeudenak. Halaber, Pasaiako Portu Agintaritzarekin hitzartutako obrak amaitu ziren Trintxerpeko eremuan.
- Azkenik, Topoaren Donostiako lurpeko pasabidearen (Lugaritz-Easo) obrek jarraitu zuten.

Laburpen
Exekutiboa

Testuinguru
Orokorra

Bilakaera
Orokorra

Errepide
Bidezko
Garraioa

Tren
Bidezko
Garraioa

Aire
Bidezko
Garraioa

Itsaso
Bidezko
Garraioa

Beste
Garraiobide
Batzuk

Ondorio eta
Joera
Nagusiak

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

Funtsezko
Adierazleak

Eranskinak

Euskal Trenbide Sare berria

- 2006ko apirilaren 24an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, Estatuko Administrazio Orokorrek eta Adifek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Trenbide Sare Berria eraikitzeko (2017ko abenduaren 27an aldatu zen hitzarmen hori). Hitzarmen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen “Euskal Y” sarearen Bergaratik Irunera bitarteko Gipuzkoako adarra (Donostiara sartzen den tarte barne) eraikitzeko proiektuak idaztea, lan horiek zuzentzea, kontratatzea eta gauzatzea, bai eta adar horretako desjabetze-espeditenteen kudeaketa administratiboan laguntzea ere.
- Hortaz, Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundeak, maiatzaren 21eko 6/2004 Legeak esleitzen dizkion eginkizunak betetz, bere gain hartu zituen eraikuntza-proiektuek, desjabetzeen kudeaketak eta lanen eskumeneko zuzendaritzak eragindako gastuak eta Gipuzkoako adarra eraikitzeko sortutako beste gastu batzuk.
- 2018an tarte hauetako obrek jarraitu zuten: Antzuola-Ezkio/Itsaso (mendebaldea), Urnieta-Hernani, Hernialde-Zizurkil eta Zizurkil-Andoain eta Hernani-Astigarraga tarteak ebatzi zen.

Bilboko Hiri Trenbidea

- Bilboko Hiri Trenbidearen 1. lineari dagokionez, Ibarbengoako aparkalekuko obrek jarraitu zuten.
- Hainbat azterlan eta proiektu egin ziren Bilboko Hiri Trenbidearen 4. eta 5. lineei buruz.
- Bilboko Hiri Trenbidea (1. eta 2. lineak) finantzatu ahal izateko, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Finantza Planean ezarritakoari jarraituz —plan horretan zehaztu baitira tokiko erakunde horrek Metro Bilbao SA sozietateari egin behar dizkion ekarpenak—, 39.000.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion Bizkaiko Garraio Partzuergoari; Bizkaiko Foru Aldundiak eman zion diru-kopuru bera, hain zuzen.
- Azkenik, maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez sortutako Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Bilboko Hiri Trenbidearen gaineko eraikuntzako eta ekipamenduko proiektuetarako kudeaketak egin zituen, bai eta lanen eta instalazioen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol teknikoko lanak ere.

Bilboko Portuko salgaien joan-etorria erraztea

- 2018an, I. Fasearen (Serantes-Olabeaga tunela) informazioa-azterlanaren aldaketa egiten hasi zen, 2017ko uztailaren 12an Bilboko Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeko Sustapen Ministerioarekin, Ogasuna eta Funtzio Publiko Ministerioarekin eta ADIFekin sinatutako Lankidetzeta Hitzarmenaren arabera.

Kable bidezko garraioa

- Garraio publikoari ematen zaion babesaren baitan dago Igeldoko Funikularra. 2014an Kultura Ondare izendatu zuten, maiatzaren 27ko 84/2014 Dekretuaren bidez. 2018an, Monte Igueldo enpresa prestatzen jarraitu da, zerbitzua emakida-pleguan ezarritako baldintzetan ematen jarrai dezan, zerbitzuaren jarraipena bermatze aldera. Azpiegituraren jabeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanari eragiten dioten ebazpen judizialak egiteko daude.

Intermodalitatea eta elkarreragingarritasuna

- Euskadiko garraio publikoaren antolaketarekin lotuta eta garraio Txartel Bakarra lortzeko helburuaren baitan Euskadin aldi berean dauden hiru garraio-txartelen Elkarreragingarritasuna martxan jartzeko prozesuan aurrera egin zen: Bat, Barik eta Mugi. Tartean sartutako erakundeek hartzen zuten parte proiektu honetan: Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Euskotrenek eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Plangintza Zuzendaritzak.
- Euskal Autonomia Erkidego osorako txartel bakarra ezartzea, era berean, lehentasuneko helburu bat da legegintzaldi honetarako.



- 2018an, Mugi txartelaren elkarreragingarritasun-garapenekin jarraitu zen 1. eta 2. lineetarako. Gasteizko hiri-garraio operadorearen, Tuvisaren, elkarreragingarritasuna ezarri eta abian jarri zen.
- Era berean, hiru lurralde historikoetako konpentsazio-zentroak koordinatzeko eta eguneratzeko lan egin zen.
- EAEko Plataforma Logistiko Intermodalen sustapenerako eta garapenerako estrategiaren baitan Basque Country Logistics marka txertatu zen. Helburutzat du plataforma logistiko multimodal eta multipolar bat iberiar penintsularen eta Europar Batasunaren arteko salgaien joan-etorriak egituratzeko nodo nagusi gisa. 2018an, hainbat jarduketa eta aurkezpen egin zituen autonomia-erkidegoan, estatuan eta Europan.
- Dagoeneko abian den zentro logistikoei babesa ematea ekarpen ekonomikoan gauzatu zen, horietan sozietateko partaidetza izatearekin batera.

Inbertsioak egitea portu-azpiegiturretan, eta gaur egungo azpiegitura mantentzea EAEn eskumeneko portuetan

- Portu-azpiegiturretako inbertsioan bi obra nabarmen daitezke batez ere:
 - “Lekeitioko Portuko Estalpearen moilako zimendatzearen azpi-berritzea” amaitu zen
 - “Donostiako portuko itsasarteko hegoaldeko dikearen muturra egonkortzeko” presazko obra egin zen. Urtearen hasieran egitura hori erabateko ezegonkortasun egoeran zegoela hauteman zen, eta horrek berekin ekarri zuen 2018ko apirilaren 3an Larrialdia Adierazpena ematea. Obra hauek egin beharko dira: alde batetik, hegoaldeko dikearen muturraren behealdean 31 pibote egin behar dira, egituraren egonkortasun osoa ziurtatzeko. Halaber, piboteen trabaketa-habe bat ere egin beharko da, dikea haren gainean bermatu ahal izan dadin, bai eta pantailarenak egin ditzan ere, zimendatzean higadura-prozesuak jarraitzea saihesteko. Eta beste aldetik, itsasarteko inguruneke itsas hondoa babestea, harri-lubeten geruza bikoitzeko mantua isuriz.
- Obra handienak horiek izan badira ere, gure portuetan nabigagarritasun- eta ainguratze-baldintza egokiei eusteko, beste hauek egin dira:
 - Orioko portuan dragatzea 100.000 m³ inguruko bolumenekin.
 - Zumaiako portuko itsasarteko nabigazio-kanala dragatzea, 5.000 m³ inguruko bolumenarekin.
- Ondarroako portuan dragatze-kontratua esleitzea eta gauzatzea. Datorren urtean egingo da, 50.000 m³ inguruko bolumenekin.
- Ondarroan Nasa Kaleko egoitza-erakinen fatxadak eta barrualdeak konpontzeko obrak amaitu dira. 2006. urtean ingurune horretan egin ziren portuko obrek kaltetu zituzten, eta horrek berekin ekarri zuen ondare-erantzukizuneko espediente bat egitea.
- Bi funtsezko obra lizitatu eta esleitu dira:
 - Xixili moilaren konponketa eta indartzea; bai eta Bermeoko portuko merkataritza-moiletako zerbitzuen zolatzea eta birjartzea ere.
 - Hondarribiko Portuko moilaren egitura birgaitzea.
- Orioko Udalarekin lankidetzat-hitzarmena gauzatu zen, “Orioko Herriko Plazako moila handitzeko” obrak kontratatzeke eta egiteke. Proiektua ekitaldi honetan idatzi du udalbatzak.
- Hauek lizitatu, esleitu eta gauzatu dira:
 - EAEko portuetan instalazio elektrikoaren, argiteriaren eta balizajearen mantentze-lanak egiteko kontratua.
 - Mantentze- eta kontserbazio-lanetarako obra zibilak eta itsas obrak kontratatzeke Esparru Hitzarmenak.
- Proiektu ugari idatzi dira: Armintzako portuko eremurako eta kofradia berrirako sarbideen berrantolaketa, Donostiako portuko dikeak konpontzeko proiektua, Mutrikuko Kofradia Zaharraren eraikinaren erabilerak egokitzeko azterlana eta EAEko portuen lau urtez behingo mantentzerako dragatze-proiektua.
- Hirigintza-plangintzaren arloan, Bermeoko Portuko Plan Bereziaren 2. aldaketa zehatza behin betiko onartu zen; Getariako eta Elantxobeko portuen Plan Berezien izapidetzeekin jarraitu da; eta Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. aldaketa zehatza izapidetzeari ekin zaio.



- Itsas kiroletako instalazioen mantentze-lanei eta kudeaketari dagokionez, azpimarragarria da “Lekeitioko portuan pantalanen handitzea” proiektua idatzi zela. Obra hori Euskadiko Kirol Portuak (EKP) egingo du 2019an.
- Hauek dira jarduketa azpimarragarrienak EKPk kudeatutako dartsenetan:
 - Donostiako lonjaren eraikina, Portaaviones esaten zaiona, erabilera berrietara egokitzea. Obra hori 2018an esleitu eta hasi zen.
 - Hondarribiko zubi-garabiaren edo *travellift* delakoaren zuloa handitzeko proiektuaren idazketa, eta obra horren lizitazioa. Helburua da zuloa egokitzea ontziek goititzeko eta uretaratzeko operazioetan irisgarritasun- eta segurtasun-baldintza hobek izan ditzaten.
 - Pantalan, zoladura eta beren beste elementu batzuk berriz jartzea, azpilak ordezkatzeko eta finger berriak jartzea zenbait portu eta instalaziotan, hala nola Donostian, Hondarribian, Plentzian eta Bermeon.
 - Debako, Mutrikuko eta Plentziako ontzitegi-eremuak ixtea, segurtasun-baldintzak bermatzeko pertsonentzat nahiz ontzientzat ontzitegiko eragiketetan eta lanetan. Bermeoko eta Plentziako ontzitegiak berrantolatzea eta hobetzea.
 - Bermeoko portuko gurdi-ontzitegiak konpontzea eta egokitzea.

- 2018ko ekitaldian, Bizkaiko portuetan ur-laminak eta lurreko gainazalak garbitzeko indarrean zegoen kontratua gauzatzen jarraitu zen: Mundakan, Bermeon, Armintzan eta Plentzian, hain zuzen. Ondarroako, Lekeitioko, Eako eta Elantxobeko portuetan zerbitzu hori emateko beste kontratu bat esleitu eta abiatu da.
- Ez da lortu Gipuzkoako portuetarako 2017an abiatutako garbiketa-lizitazioa ongi bukatzea, kontratua 2018ko lehen hilabeteetan amaitzen baitzen. Zerbitzua ondo eman zen eta amaitu zenetik unean-unean ordaindu zen. Aurreikusita dago 2019ko lehen hiruhilekoan beste kontratazio-espeditente bat abian jartzea.
- EAeko eskumeneoak diren portuen segurtasun- eta zaintza-zerbitzuari dagokionez, 2018an Bermeoko, Ondarroako eta Lekeitioko portuetan udan zerbitzu hori emateko zegoen kontratua amaitu zen. Horregatik, urtearen erdialdean, beste kontratazio bat jarri zen abian, baina administrazio-helegite bat zela eta, prozedura atzera bota behar izan zen. Horregatik, kontratazio-espeditente berria 2018aren amaieran jarri zen abian.
- Donostiako portuko segurtasun- eta zaintza-zerbitzuari dagokionez, datozen ekitaldietan zerbitzu horren prestazioa garatzeko kontratu berria esleitu eta gauzatu zen.
- Baliabide pertsonal urriak zeudenez, ekitaldian zehar ezin izan da portuaren kalitatea eta ingurumena ziurtatzeko lanetan aurrera egin.

Aireko garraioaren plangintza eta garapena

- EAeko Aireportuak Kudeatzeko Plana amaitu zenetik (2014) eta horretan zein EAeko lurralde historikoetan kokatutako aireportuen Marketin plan irekietan oinarrituta (Loiu, Foronda eta Hondarribiko aireportuak), Aireportuak Koordinatzeko Batzordea eratu zen. Era berean, horrek Aireportuetako Lantalde Teknikoa sortzea bultzatu zuen eta haren eginkizunak ezarri zituen, aireportu bakoitzak (beraien eremuan eta EAeren baitan) sustatzen laguntzen duten ekimen teknikoak ekarri, aztertu eta aukeratzeko, negozio-bolumena igo dadin epe motz zein luzera.
- Hiru aireportuetan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak lan-mahaia eratu zuen Aena, SA enpresarekin eta aireportuak sustatzeko hiru sozietarekin, lankidetz-egoera berriak identifikatze aldera, hiru aireportuen arteko lotura naturala sustatuz "aireportu bat, hiru terminal" lelopean.
- Basquetourrekin batera egin zen lan Routes 2018 Europako Biltzarra antolatzen, 2018ko apirilean Euskadin egin baitzen.
- Hondarribi-Donostiako Aireportua Sustatzeko Sozietatea (Ortizibia, SL) birdefinitu eta bultzatu egin zen, eta, aldiz, Gasteizko Aireportua Sustatzeko Sozietateari (VIA, SA) eta Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea SL enpresari laguntzen jarraitu zitzaion.



4. helburua
Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea European

Ardatz atlantikoa indartzea komunikazio-ardatz gisa

- Eusko Jaurlaritzak Arku Atlantikoko eskualdeen artean sustapen-ekintzen lidergoarekin jarraitu du, lehenetsitako Europaz gaindiko garraio-sareetan ardatz atlantikoaren behin betiko txertaketaren ostean. Era berean, Eusko Jaurlaritza buru zuen CFA-EFFIPLAT proiektua amaitu ondoren, 2018an Eusko Jaurlaritzak, taldeburu den aldetik, dagozkion ardura-ekintzak egin zituen, hala nola alde batetik, komunikazio- eta hedapen-zereginak, eta bestetik, proiektuaren koordinazioa, justifikazioa eta kontrola.
- Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren baitako Arku Atlantikoaren Batzordean (AAB) parte hartu zuten, Europako beste eskualde batzuekin batera, garraio arloan politika bateratuak sustatze aldera. Ildo horretan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak parte hartzen du Arku Atlantikoaren Garraiorako Taldean.
- Akitania-Euskadi euroeskualdearen alorrean, Transfermuga proiektuari jarraikortasuna emateko lan egin da, hau da, Baiona-Donostia eurohirian tren-konexioak hobetzeko.

5. helburua
Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana onartu zen. Gidaplanaren helburua da barneratze multimodala erreferentziatzeko esparru izatea eta garraioa lurralde-politikaren zatitzat hartzea oinarri dituen garraio-politika bat ezartzeko.
- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana abiapuntutzat harturik eta Eusko Jaurlaritzak jada idatzitako edo idazten ari den beste plan estrategiko eta sektorial batzuekin osatuz, 2018an Planean aurreikusitako ekintzak egiten jarraitu zen.
- Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzan aritu ginen, Mugikortasun Elektroaren Plan Zuzentzailea egiten. Eusko Jaurlaritzak 2018an onartu zuen plan hori.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektua izapidetzeari ekin zitzaion. Lege horri esker, tarifen diseinurako eta operadoreak koordinatzeko berdinak diren elementu guztiak barneratu ahal izango dira, eta hala, zerbitzuen prestazioa bermatuko da, operadoreen ekonomia- eta teknologia-lankidetzako mekanismoak egingo dira, eta ingurumenerako jasangarriagoak diren garraiobideak eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duten energia garbien erabilera sustatuko dira.

6. helburua
Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Hiriko garraioan tren-eskaintza hobetzea

- Hiri-bilbean tranbiak proiektatu ziren, garraioaren sistema osoan txertatu behar den beste hiriko garraiobide baten eskaintza gisa, hala, eskaintza eskarira egokituko baita. Beraz, erakunde guztietako langile teknikoak osatutako mahaien esparruan egin behar dira mugikortasunaren inguruko analisiak. Premisa horiek oinarri hartuta, Gasteizen tranbia Salburuara eta Zabalganara handitzeko azterlanak eta proiektuak idazten ari dira.
- Era berean, tranbia Gasteizko unibertsitateraino handitzeko obrek jarraitu zuten.
- Gasteizen autobus elektriko adimendun bat ezartzeko azterlanak eta proiektuak amaitu ziren, eta autobus elektriko adimendunaren kotxe-tokiaren eraikuntza-proiektua idazteko lanak eta Latinoamerika plazaren inguruan bide-sistema egokitzeko lanak abiatu ziren.



EAEko Garraio Sektorearen Funtsezko Adierazleak

10. EAEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak

Laburpen
Exekutiboa

Testuinguru
Orokorra

Bilakaera
Orokorra

Errepide
Bidezko
Garraioa

Tren
Bidezko
Garraioa

Aire
Bidezko
Garraioa

Itsaso
Bidezko
Garraioa

Beste
Garraibide
Batzuk

Ondorio eta
Joera
Nagusiak

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

Funtsezko
Adierazleak

Eranskinak

1. adierazlea	2003 (EJSN-1993, 1. Berrik.)	2016 ³⁸ (EJSN-2009 eta EKS- 10)	2017 ¹ (EJSN-2009 eta EKS- 10)	2018 (a) ¹ (EJSN-2009 eta EKS-10)	Aurrerapen maila	
					18-03	18-17
Garraioaren produktibitatea (BEGd/Enplegua)	55,3 mila euro lanean ari den pertsonako	75,1 mila euro lanean ari den pertsonako	74,5 mila euro lanean ari den pertsonako	76,3 mila euro lanean ari den pertsonako	% 37,8	% +2,4

2018an garraioaren produktibitatea 76,3 mila eurokoa izan zen lanean ari den pertsona bakoitzeko; ekonomia osoaren produktibitatea, berriz, 77,6 mila eurokoa izan zen.

Bilakaerari begiratzenean badiogu, garraioaren produktibitatea % 37,8 hazi da 2003tik, eta % 2,4 handitu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ekonomia osoa kontuan hartzen badugu, urtetik urterako % +2,2ko aldakuntza positiboa erregistratu zen.

2. adierazlea	2003 (EJSN-1993, 1. Berrik.)	2016 ¹ (EJSN-2009 eta EKS- 10)	2017 ¹ (EJSN-2009 eta EKS- 10)	2018 (a) ¹ (EJSN-2009 eta EKS-10)	Aurrerapen maila	
					18-03	18-17
Garraioaren sektorearen parte-hartzea EAEko BEGd-n (BEGd garraioa/BEGd ekonomia)	% 4,80	% 4,62	% 4,66	% 4,65	-0,15	-0,01

2018an garraio sektoreak EAEko BEGd-n % 4,65eko parte-hartzea zuen.

Garraioaren BEGd-k euskal ekonomia osoan duen parte-hartzearen eboluzioak ehuneko 0,15 puntu egin du behera 2003. urtetik hona, eta aurreko ekitalditik ehuneko 0,01 puntu jaitsi da.

3. adierazlea		2005	2016	2017	2018	Aurrerapen maila	
						18-05	18-17
Salgaien garraioa, garraibidearen arabera	Errepidea	% 80,8	% 73,9	% 74,2	% 73,3	-7,5	-0,9
	Trenbidea	% 3,0	% 1,7	% 1,5	% 1,4	-1,6	-0,1
	Airekoa	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,0	0,0
	Itsasokoa	% 16,2	% 24,4	% 24,3	% 25,3	+9,1	+1,0

2018an errepide bidezko salgaien garraioak zuen pisu handiena (% 73,3), eta ondoren, itsasoko garraioak (% 25,3). Atzetik, trenbidea zegoen, % 1,4ko parte-hartzearekin.

2017. urteari dagokionez, errepide bidezko salgaien garraioaren parte-hartzea 0,9 puntu jaitsi zen, eta trenbide bidezkoak ehuneko 0,1 puntu egin zuen behera. Itsasoko garraioaren pisua, aldiz, ehuneko 1 puntu handitu zen. 2005etik, errepide bidezko trukeen kuota 7,5 puntu txikitu da, eta itsasoko joan-etorrien parte-hartzea, berriz, 9,1 puntu handitu.

³⁸ EKS-10ean ezarritako metodologiaren arabera lortutako datuak. Beste batzuen artean, hauek biltzen ditu: I+Gko eta ekoizpenerako gastuak, norbere azken kontsumorako. 2010-2013 urteen artean, batez besteko urteko % 1,3ko igoera eragin zuen garraioaren eta biltegiatzearen azpisektorean, eta % 4,5ekoa EAEko ekonomia orokorrean, legez kanpoko jardueren estimazioa barneratzearen aparteko efektuarengatik.

4. adierazlea		2003	2016	2017	2018	Aurrerapen maila	
		(Bidaiariak, milakotan)				18-03	18-17
Pertsonen mugikortasuna, garraiobidearen arabera	Errepidea	116.380	121.130	121.334	123.434	% +6,1	% +1,7
	Trenbidea	126.453	130.627	135.916	139.740	% +10,5	% +2,8
	Airekoa	3.228	4.868	5.325	5.881	% +82,2	% +10,4
	Itsasokoa	119	191	187	201	% +68,9	% +7,5

2018an errepide bidezko pertsonen garraio kolektiboa 123,4 milioi bidaiarikoan izan zen; trenbide bidezko pertsonen zirkulazioa 139,7 milioi pertsonakoa izan zen; euskal aireportuek 5,9 milioi erabiltzaile izan zituzten eta bidaiarien bolumena 201 mila pertsonakoa izan zen.

2003-2018 aldian bidaiarien kopuruaren bilakaera positiboa izan zen garraiobide guztietan: % 82,2 hazi zen aireko zirkulazioan; % 68,9 itsasokoa; % 10,5 trenbidekoan eta % 6,1 errepidean.

Aurreko urtearekiko, pertsonen lekualdatzeak % 10,4 ugaritu dira euskal aireportuetan; % 7,5 Bilboko Portuan; % 2,8 trenbide bidezko garraioan eta % 1,7 autobus bidezko joan-etorrietan.

5. adierazlea		2006		2016		2017		2018		Aurrerapen maila			
		X	M	X	M	X	M	X	M	18-06		18-17	
Kanpoko merkataritza, garraiobidearen arabera	Errepidea	%63,0	%38,1	%60,5	%51,9	%59,0	%47,2	%57,6	%45,7	-5,4	+7,6	-1,4	-1,5
	Trenbidea	%0,0	%0,4	%0,1	%1,2	%0,2	%1,2	%0,1	%1,0	+0,1	+0,6	-0,1	-0,2
	Airekoa	%1,9	%1,7	%3,3	%3,7	%3,5	%3,2	%3,2	%2,6	+1,3	+0,9	-0,3	-0,6
	Itsasokoa	%29,2	%56,1	%36,1	%43,2	%37,3	%48,2	%39,1	%50,6	+9,9	-5,5	1,8	2,4
Beste batzuk	%0,0	%0,0	%0,0	%0,1	%0,1	%0,2	%0,0	%0,0	0,1	0,0	0,0	-0,2	

2018an errepide bidezko garraioaren esportazioek % 57,6 biltzen zuten, eta inportazioek, % 45,7. Itsasoko garraioaren esportazioak, berriz, % 39,1 ziren, eta inportazioak, % 50,6.

2006tik honako bilakaerari dagokionez, itsasoko zirkulazioaren esportazioen parte-hartzea % 9,9 puntu hazi da, eta errepide bidezko inportazioen kuotak 7,6 puntu egin du gora.

2018an trenbide bidezko esportazioen pisuak 0,1 puntu egin zuen behera, eta inportazioei dagokionez, itsasoko garraioaren pisua ehuneko 2,4 puntu hazi zen.

6. adierazlea	2002	2014	2015	2016	2017	Aurrerapen maila	
						17-02	17-16
Energia-kontsumoa garraio-sektorean	1.590 ktep	1.862 ktep	1.925 ktep	2.013 ktep	2.130 ktep	% 34,0	% 5,8

2015-2020 Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoen arabera, baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatu behar dira.

Garraioaren energia-kontsumoa % 34 handitu zen 2002-2017 aldian; bilakaera hori aipatutako helburu estrategikoen guztiz aurkakoa da. 2017an garraioaren energia-kontsumoa % 5,8 igo zen aurreko urtearekin alderatua, gure erkidegoko jarduera ekonomikoak egin zuen bezala (BPGd-a % 3,1 hazi zen 2017an; 2016an berriz % 2,9 hazi zen).

Laburpen
Exekutiboa

7. adierazlea	1990	2008	2015	2016	2017	Aurrerapen maila	
						17-90	17-16
Berotegi-efektuko gasen igorpenak garraio-sektorean	2.717 mila tona CO ₂ baliokide	5.713 mila tona CO ₂ baliokide	5.722 mila tona CO ₂ baliokide	5.983 mila tona CO ₂ baliokide	6.360 mila tona CO ₂ baliokide	% 134,1	% 6,3

Kyoto Protokoloaren helburua berotegi-efektuko gasen igorpenak % 8 murriztea da 2008-2012 aldirako, 1990. urteko igorpenak oinarritzat hartuta.

1990etik 2017ra bitartean, berotegi-efektuko gasen igorpenak % 134,1 handitu ziren garraio-sektorean, Kyoto Protokoloan hitzartutakoaren kontra. Hala, 2017an, kopuru erlatiboetan, garraioak eragindako berotegi-efektuko gasen igorpenak % 6,3 handitu ziren. Igoera hori gertatzearekin batera, jarduera ekonomikoak gora egin du (BPGd-aren % +3,1ko igoera 2017an).

Testuinguru Orokorra

Bilakaera Orokorra

Errepide Bidezko Garraioa

8. adierazlea		2004	2008	Aurrerapen maila	
				08-04	
Garraioaren kanpoko kostuak	Errepidea Trenbidea	1.905.459 mila euro 46.447 mila euro	1.654.450 mila euro 45.811 mila euro	% -13,2	% -1,4

Eskura dauden azken datuen arabera, 2018an garraioaren kanpoko kostuak 1.700 milioi euro ingurukoak izan ziren.

2004. urteari dagokionez, errepide bidezko garraioaren kanpoko kostuak % 13,2 murriztu ziren, eta trenbide bidezko garraioarenak % 1,4 jaitsi dira.

Tren Bidezko Garraioa

Aire Bidezko Garraioa

Itsaso Bidezko Garraioa

9. adierazlea	2006	2016	2017	2018	Aurrerapen maila	
					18-06	18-17
Batez besteko gastua pertsonako, batez besteko gastua familiako eta gastu osoa garraioan	Pertsona: 12.687 € Familia: 33.183 € Guztira: 26.822.197 €	Pertsona: 14.168 € Familia: 33.691 € Guztira: 30.311.924 €	Pertsona: 14.175 € Familia: 33.709 € Guztira: 30.410.050 €	Pertsona: 14.403 € Familia: 34.212 € Guztira: 30.980.831 €	Pertsona: % +13,5 Familia: % +3,1 Guztira: % +15,5	Pertsona: % 1,6 Familia: % 1,5 Guztira: % 1,9

2018an pertsona bakoitzak garraioan 14.403 euroko gastua egin zuen; familiako gastua 34.212 eurokoa izan zen eta guztizko gastua, 31 milioi € ingurukoa.

Denbora-tarte zabalagoan (2006-2018 aldia), pertsona bakoitzaren batez besteko gastua % 13,5 handitu zen; etxearena % 3,1 handitu zen eta garraio osoarena EAEn % 15,5 handitu zen.

Urteetik urterako aldakuntzaren arabera, pertsona bakoitzaren gastua % 1,6 handitu zen; etxearena, % 1,5 eta garraio sektore osoarena EAEn, % 1,9.

Beste Garraibide Batzuk

Ondorio eta Joera Nagusiak

Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria

Funtsezko Adierazleak

Eranskinak

10. adierazlea	1998	2016	2017	2018	Aurrerapen maila	
					18-98	18-17
Motorizazio-indizea	467,0 turismo 1.000 biztanleko	448,8 turismo 1.000 biztanleko	456,6 turismo 1.000 biztanleko	461,9 turismo 1.000 biztanleko	% -1,1	% +1,2
2018an EAEko motorizazio-indizea 1.000 biztanleko 461,9 turismokoa izan zen. Motorizazio-indizea % 1,1 jaitsi da 1998tik. 2018an motorizazio-maila % 1,2 handitu zen, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.						

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak**
- Eranskinak



Eranskinak

11. Eranskinak

11.1. Legediaren berrikuntzak 2018an: Europakoak, estatukoak eta EAEkoak

11.1.1. Europako legediaren berrikuntzak

a) *Zuzentarauak*

Errepide bidezko garraioa

- Europako Batzordearen 2018/217 Zuzentaraua (EB), 2018ko urtarrilaren 31koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/68/EE Zuzentaraua, salgai arriskutsuen lehorreko garraioari buruzkoa, aldatzen duena I. eranskineko I.1. atala aurrerapen zientifikora eta teknikora egokituz (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 42, 2018/2/15ekoa, 52. eta 53. orrialdeak).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/645 Zuzentaraua (EB), 2018ko apirilaren 18koa. Zuzentarau horren bidez, 2003/59/EE Zuzentaraua, errepide bidez salgaiak edo bidaiariak garraiatzeko zenbait gidariren hasierako prestakuntzari eta etengabeko prestakuntzari buruzkoa, eta 2006/126/EE Zuzentaraua, gida-baimenari buruzkoa, aldatzen dira (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 112, 2018/5/2koa, 29./41. or.).
- Europako Batzordearen 2018/1846 Zuzentaraua (EB), 2018ko azaroaren 23koa. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/68/EE Zuzentaruaren, salgai arriskutsuen lehorreko garraioari buruzkoaren, eranskinak aldatzen dira, aurrerapen zientifikora eta teknikora egokitzeko (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 299, 2018/11/26koa, 58. eta 59. orrialdeak).

Itsasoko eta ibaietako garraioa

- Kontseiluaren 2018/131 Zuzentaraua (EB), 2018ko urtarrilaren 23koa. Horren bidez, Europako Erkidegoko Ontzi-jabeen Elkarteen eta Garraio Langileen Europako Federazioaren arteko Hitzarmena aplikatzen da, 2009/13/EE Zuzentaraua Itsasoko Lanari buruzko Hitzarmenari 2014an egindako zuzenketen, Laneko Nazioarteko Konferentziak 2014ko ekainaren 11n onartutakoan, arabera aldatzeko (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 22, 2018/1/26koa, 28./33. or.).
- Batzordearen 2018/970 Zuzentarau Eskuordetua (EB), 2018ko apirilaren 18koa. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/1629 Zuzentaruaren (EB), barneko nabigazioko ontzien preskripzio teknikoak ezartzen dituenaren, II., III. eta V. eranskinak aldatzen dira (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 174, 2018/07/10ekoa, 15./19. or.).

Iturria: Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala.



b) Erregelamenduak



Errepide bidezko garraioa	
	<ul style="list-style-type: none"> Batzordearen 2018/502 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko otsailaren 28koa. Horren bidez, 2016/799 Exekuzio Erregelamendua (EB), takografoak eta haien osagaiak, eraikitzeko, entsatzeko, instalatzeko, funtzionatzeko eta konpontzeko betekizunak ezartzen dituen, aldatzen da (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 85, 2018/3/28ko, 1./71. or.).
Tren garraioa	
	<ul style="list-style-type: none"> Batzordearen 2018/278 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko otsailaren 23koa. Horren bidez, 1305/2014 Erregelamenduaren (EB) eranskina aldatzen da, mezuen egiturari, datuen eta mezuen ereduari eta bagoien eta unitate intermodalen datu-base operatiboari dagokionez, eta interfaze amankomunerako komunikazio-geruzarako informazio-teknologiaren arau bat onartzeko (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 54, 2018/2/24koa, 11./13. or.). Batzordearen 2018/545 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko apirilaren 4koa. Horren bidez, tren-ibilgailuen baimentzeari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/797 Zuzentarauaren (EB) arabera tren-ibilgailu motak baimentzeko prozesuari buruzko xedapen praktikoak ezartzen dira (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 90, 2018/4/6koa, 66./104. or.). Batzordearen 2018/763 Exekuzio Erregelamendua, 2018ko apirilaren 9koa. Horren bidez, tren-enpresei segurtasun-ziurtagiri bakarrak egiteko modalitate praktikoak ezartzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/798 Zuzentarauaren (EB) arabera; eta Batzordearen 653/2007 Erregelamendua (EE) indargabetzen da (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 129, 2018/5/25ekoa, 49./67. or.). Batzordearen 2018/761 Erregelamendu Eskuordetua, 2018ko otsailaren 16koa. Horren bidez, segurtasun-metodo amankomunak ezartzen dira, segurtasun-agintari nazionalak, segurtasun-ziurtagiri bakar bat edo segurtasun-baimen bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/798 (EB) Zuzentarauaren arabera egin ondoren, gainbegiratzeko; eta horrez gainera, Batzordearen 1077/2012 Erregelamendua (EB) indargabetzen du (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 129, 2018/5/25ekoa, 16./25. or.). Batzordearen 2018/867 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Europar Batasuneko Tren Agentziaren Baliabide Aretoaren/Aretoen barne-erregelamendua ezartzen da (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 149, 2018/6/14koa, 3./15. or.). Batzordearen 2018/1795 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko azaroaren 20koa. Horren bidez, prozedura eta irizpideak ezartzen dira, oreka ekonomikoko proba aplikatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/34/EB Zuzentarauaren 11. artikulua arabera (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 294, 2018/11/21ekoa, 5./14. or.).
Itsasoko garraioa	
	<ul style="list-style-type: none"> Batzordearen 2018/414 Erregelamendu Eskuordetua (EB), 2018ko urtarrilaren 9koa. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/90/EB Zuzentaraua osatzen da, etiketatze elektronikoi etekina atera diezaioketen itsas ekipamenduen berariazko elementuen zehaztapenari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 75, 2018/3/19koa, 3./17. or.). Batzordearen 2018/608 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko apirilaren 19koa. Horren bidez, itsas ekipamenduetarako etiketa elektronikoei aplikagarriak zaizkien irizpide teknikoak ezartzen dira (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 101, 2018/4/20koa, 64./67. or.). Batzordearen 2018/674 Erregelamendu Eskuordetua (EB), 2017ko azaroaren 17koa. Horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/94/EB Zuzentaraua osatzen da, L kategoriako motordun ibilgailuen birkarga-puntuei, barne-nabigazioko itsasontzientzako portuetako elektrizitate-hormikuntzari eta uretako garraioetarako GNL botaldun-puntuei dagokienez; eta Zuzentarau hori aldatzen da, hidrogeno gaseosoaren botaldun motordun ibilgailuen konektoreei dagokienez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 114, 2018/5/4koa, 1./3. or.). Batzordearen 2018/773 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko maiatzaren 15ekoa, itsas ekipamenduetarako diseinu-, eraikuntza- eta errendimendu-betekizunei eta entsegu-arauei buruzkoa, eta 2017/306 Exekuzio Erregelamendua (EB) indargabetzen duena (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 133, 2018/5/30, 1./180. or.).



Aireko garraioa

- Batzordearen 2018/55 Exekuzio Erregelamendua, 2018ko urtarrilaren 9koa. Horren bidez, 2015/1998 Erregelamendua (EB) aldatzen da, hegazkineria zibileko segurtasunari buruzko oinarritzko arau amankomunen segurtasun-arau baliokideen aplikazioa aitortzen zaien hirugarren herrialdeen artean Singapurko Errepublika sartzeari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 10, 2018/1/13, 5./8. or.).
- Batzordearen 2018/139 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko urtarrilaren 29koa. Horren bidez, 1033/2006 Erregelamendua (EE) aldatzen da, Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundearen (HEZINE) xedapenei buruzko erreferentziari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 25, 2018/1/30ekoa, 4./5. or.).
- Batzordearen 2018/394 Erregelamendua (EB), 2018ko martxoaren 13koa. Horren bidez, 965/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen da globoekin aireko eragiketarako egiteko betekizunak kentzeari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 71, 2018/3/14koa, 1./9. or.).
- Batzordearen 2018/871 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko ekainaren 14koa. Horren bidez, 474/2006 Erregelamendua (EE) aldatzen da, esplotaziorako debekua duten edo Europar Batasunaren barruan murrizketak dituzten aireko konpainien zerrendari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 152, 2018/6/15ekoa, 5./21. or.).
- Batzordearen 2018/1048 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2018ko uztailaren 18koa. Horren bidez, aireko espazioa erabiltzeko betekizunak eta prestazioak oinarri dituen nabigazioarekin lotutako prozedura operatiboak ezartzen dituena (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 189, 2018/7/26koa, 3./8. or.).
- Batzordearen 2018/1065 Erregelamendua (EB), 2018ko uztailaren 27koa. Horren bidez, 1178/2011 Erregelamendua (EB) aldatzen da, Europar Batasuneko hegaldiko tripulazioaren lizentzien baliozkotze automatikoari eta airea hartu eta lur hartzeari buruzko prestakuntzari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 192, 2018/7/30ekoa, 31./33. or.).
- Batzordearen 2018/1142 Erregelamendua (EB), 2018ko abuztuaren 14koa. Horren bidez, 1321/2014 Erregelamendua (EB) aldatzen da, aireontzien mantentze-lanetarako zenbait lizentzia-kategoria sartzeari, kanpoko hornitzaileengandik elementuak onartzeko prozedura aldatzeari eta mantentze-lanetan dauden prestakuntza-antolakuntzen ahalmenak aldatzeari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 207, 2018/8/16koa, 2./57. or.).
- Batzordearen 2018/1974 Erregelamendua (EB), 2018ko abenduaren 14koa. Horren bidez, 1178/2011 Erregelamendua, hegazkingintza zibileko hegazkinen langileekin lotutako administrazio-prozedurak eta baldintza teknikoak ezartzen dituena, aldatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1139 Erregelamenduari (EB) arabera (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 23, 2018/12/20koa, 1.-52. or.).
- Batzordearen 2018/1975 Erregelamendua (EB), 2018ko abenduaren 14koa. Horren bidez, 965/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen da planeagailuekin eta hegaldi elektronikoko maletatxoekin aireko eragiketarako egiteko betekizunak kentzeari dagokionez (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 326, 2018/12/20koa, 53.-63. or.).

Iturria: Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala.

11.1.2. Espainiako estatuko legediaren berrikuntzak

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

Errepide bidezko garraioa

- 949/2018 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, Penintsulakoak ez diren lurraldeetako egoiliarak gainerako nazio-lurraldearekin lotzeko garraio erregularrari, aire zein itsas garraio erregularrari, ematen zaion diru-laguntzen zenbatekoa aldatzen duena, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta berrogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-10651).
- 1411/2018 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, Estatuaren Errepide Sarearen Katalogoa aldatzen duena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-16617).
- FOM/509/2018 Agindua, apirilaren 19koa, larrialdi-kasuetan ordainpeko autobideetan zirkulazioa desbideratzeari dagokionez eskumenak eskuordetzen dituena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-6801).
- FOM/510/2018 Agindua, maiatzaren 8koa. Agindu horren bidez, abenduaren 12ko FOM/2523/2014 Agindua, aldatzen da. Azken agindu horrek errepideen eta zubien obretarako jarraibide tekniko orokorren pleguaren artikulua jakin batzuk eguneratzen ditu gai hauekin lotuta: oinarrizko materialak, bide-zoruak eta zoladurak, seinaleztapena, balizajea eta ibilgailuei eusteko sistemak. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-6802).
- Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2018ko martxoaren 26koa. Horren bidez, errepideen jarraibidearen azaleko drainaketari buruzko 5.2. IC arauaren zenbait taula eguneratzen dira. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-7489).
- FOM/606/2018 Agindua, maiatzaren 25ekoa, errepide bidez salgai arriskutsuak garraiatzeko urteroko txostenaren edukiari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-7511).

Tren garraioa

- 1011/2017 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Trenbide Zirkulazioari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretua aldatzen duena (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-285).
- 271/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 11koa, Trenbide Sektorearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretua aldatzen duena (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A- 2018-6372).
- 695/2018 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, Trenbide Zirkulazioari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretua aldatzen duena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-2018-9029).
- 1513/2018 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, hau aldatzen duena: uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretuaren, Trenbide Zirkulazioaren Erregelamendua onartzen duenaren, xedapen iragankor bakarra. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-17999).
- Ebazpena, 2017ko abenduaren 26koa, Trenbide Segurtasuneko Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, eskumenen eskuordetzeari buruzkoa. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-837).
- Ebazpena, 2018ko otsailaren 14koa, Azpiegituraren Idazkaritza Nagusiarena. Horren bidez, Trenbide Azpiegituren Administrazioaren Administrazio Kontseiluaren Hitzarmena, ADIFen sarearen adierazpenaren dokumentuaren 2018rako eguneratzea onartzen duena, argitaratzen da. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-2874).
- Ebazpena, 2018ko otsailaren 14koa, Azpiegituraren Idazkaritza Nagusiarena. Horren bidez, Trenbide Azpiegituren Administrazioa (ADIF) Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren Hitzarmena, ADIF-Abiadura Handiaren sarearen adierazpenaren dokumentuaren 2018rako eguneratzea onartzen duena, argitaratzen da. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-2875).

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

- Ebazpena, 2018ko apirilaren 16koa, Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitzaren Estatuko Idazkaritzarena. Horren bidez, ADIF-Abiadura Handia Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluaren Hitzarmena, eskumenen eskuordetzeari buruzkoa, argitaratzen da. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-5581).

- FOM/642/2018 Agindua, ekainaren 13koa. Horren bidez, hauek aldatzen dira: alde batetik, FOM/897/2005 Agindua, apirilaren 7koa, trenbide-azpiegituraren sareari eta azpiegitura horiei bolumena esleitzeko prozedurari buruzkoa; eta bestetik, FOM/189/2015 Agindua, otsailaren 11koa, trenbide-azpiegiturak erabiltzeagatik kanon sistemetan pizgarriak aplikatzeko oinarriko printzipioak garatzen dituen, azaroaren 17ko 39/2003 Legearen, Trenbide Sektoreari buruzkoaren, 73. artikuluan ezarritakoak. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-8016).

Itsasoko garraioa

- Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 26koa, Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritza Nagusiarena. Horren bidez, homologazio-prozedura ezartzen da, kapitaintzat, ofizialentzat, marinelentzat eta IGF Kodeak zuzendutako ontzietan doazen beste langileentzat oinarriko prestakuntzako eta prestakuntza aurreratuko ikastaroak emateko eta nahikotasun-ziurtagiriak egiteko. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-2520).

- Ebazpena, 2018ko otsailaren 8koa, Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritza Nagusiarena. Horren bidez, tentsio garaian nahikotasun-ziurtagiria lortzeko baldintzak zehazten dira. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-2521).

- Ebazpena, 2018ko ekainaren 26koa, Merkataritza Ontzidiko Zuzendaritza Nagusiarena. Horren bidez, merkataritza-ontzidiko txartel profesionalak berriro lortzeko ontzian igaro beharreko aldien baliokideak diren funtzioak eta zerbitzuak onartzeko prozedura garatzen duena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-9322).

Aireko garraioa

- 1267/2018 Errege Dekretua, urriaren 11koa, abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzen duena. 2591/1998 Errege Dekretua interes orokorreko aireportuak eta horien zerbitzu-eremuak antolatzeari buruzkoa da, zerga-, administrazio- eta lan-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166. artikuluan xedatutakoa betetzeko. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-15405).

- Ebazpena, 2017ko azaroaren 30ekoa. Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, 2017ko ekainaren 16ko Ebazpena aldatzen duena. 2017ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez, salbuespenak ematen dira hauetarako: Batzordearen 965/2012 Erregelamenduaren, urriaren 5ekoaren, 5. artikuluan 3. eta 5. atalen betetzerako; merkataritzakoak ez diren eragiketetan, onartutako prestakuntzako antolakuntzetan instrukzio-eragiketetan eta merkataritza-eragiketa espezializatuetan, Air Tractor AT 802 Y Air Tractor AT 802 A aireontziaren eragiketekin lotuta, Erregelamendu bereko VIII. Eranskinen aurreikusitako SPO.IDE.A.130, SPO.IDE.A.131 eta SPO.IDE.A.145 baldintzetarako (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-1052).

- FOM/174/2018 Agindua, urtarrilaren 31koa, dekretu honen I. Eranskineko bosgarren atala aldatzen duena: 1675/1972 Dekretua, ekainaren 26koa, Aireko nabigazioko laguntza-sarea (Eurocontrol) erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak onartu eta tarifa horien ordainketako berandutze-interesen tasa aldatzen duena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-2632).

- Ebazpena, 2018ko martxoaren 2koa, Aireko Segurtasuneko Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena. Horren bidez, onartzen dira bete beharreko baliabide onargarriak eta gida-materiala, urrutiko agente bidez pilotatutako aireontziekin eragiketak egiteko onartutakoak, abenduaren 15eko 1036/2017 Errege Dekretuaren Azken Xedapenetako Laugarrenaren arabera. (Estatuko Aldizkari Ofiziala-A-2018-5303).

Iturria: Sustapen Ministerioa.

11.1.3. EAEko legediaren berrikuntzak

- Laburpen Exekutiboa
- Testuinguru Orokorra
- Bilakaera Orokorra
- Errepide Bidezko Garraioa
- Tren Bidezko Garraioa
- Aire Bidezko Garraioa
- Itsaso Bidezko Garraioa
- Beste Garraiobide Batzuk
- Ondorio eta Joera Nagusiak
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- Funtsezko Adierazleak
- Eranskinak

Errepide bidezko garraioa

- EBAZPENA, 2017ko abenduaren 22koa, Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariarena, 2018. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena. (EHAA, 15, 2018/01/22koa).
- EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 15ekoa, Trafikoko zuzendariarena, Gidarientzako Eskola Partikularretako Zuzendarien Gaitasun Agiria lortzeko hautaprobaren deialdia egiten duena. (EHAA, 19, 2018/01/26koa).
- EBAZPENA, 2018ko martxoaren 7koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2017ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. (EHAA, 57, 2018/03/21ekoa).
- EBAZPENA, 2018ko martxoaren 7koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2017ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. (EHAA, 57, 2018/03/21ekoa).
- EBAZPENA, 2018ko martxoaren 7koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa ordaintzeko agintzen duen 2017ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. (EHAA, 57, 2018/03/21ekoa).
- EBAZPENA, 2018ko martxoaren 7koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2017ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. (EHAA, 57, 2018/03/21ekoa).
- EBAZPENA, 2018ko martxoaren 7koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2017ko ekainaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena. (EHAA, 57, 2018/03/21ekoa).
